

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

9233 *8/2021 Legea, ekainaren 2koa, zeinaren bidez legeria zibila eta prozesala erreformatzen baitira desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I

Legeria zibil eta prozesalaren erreforma honen bidez, urrats erabakigarria egin nahi da gure ordenamendu juridikoa Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora egokitzeko. Nazioarteko tratatu hori New Yorken egin zen, 2006ko abenduaren 13an. Nazioarteko Konbentzioaren 12. artikulua aldarrikatzen du desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa dutela gainerako pertsonen baldintza berberetan bizitzako arlo guztietan, eta neurri egokiak hartzea behartzen ditu estatu partaideak, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko, behar izanez gero. Konbentzio horren xedea da desgaitasuna duten pertsona guztiek oinarritzko giza eskubideak eta askatasunak bete-betean eta berdintasunean baliatu ahal izan dezaten sustatu, babestu eta bermatzea, eta pertsona horien berezko duintasuna errespetatu dadin sustatzea.

Helburu hori adierazita, konbentzioak berritasun garrantzitsuak dakartza desgaitasunaren tratamenduan. Gainera, estatu partaideei exijitzen die gaitasun juridikoa egikaritzearen inguruko neurri guztietan babes egokia eta eraginkorra eskaintzea, abusuak saihesteko, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri. Babes horiek bermatuko dute gaitasun juridikoa egikaritzearen inguruko neurriek pertsonen eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatzea, neurri horiek interes-gatazka eta bidegabeko eraginetatik aske izatea, pertsonen inguruabarrekiko proportzionalak eta inguruabar horietara egokitutakoak izatea, ahalik eperik laburrenean aplikatzea eta agintari edo organo judizial eskudun, independente eta inpartzial batek aldizka gauzatutako azterketen mende egotea. Babesak proportzionalak izango dira, halako neurriek pertsonen eskubideetan eta interesetan duten eraginaren arabera.

Hala, alde batera uzten da gure ordenamendu juridikoan orain arte indarrean egon den sistema, non nagusitzen baita desgaitasuna duten pertsonen eragiten dieten erabakiak beste norbaitek hartzea haien orde, eta bestelako sistema bat ezartzen da, non pertsonen borondatearen eta lehentasunen errespetua baita oinarri eta hark hartzen baititu bere erabakiak, arau orokor gisa.

Espainiak tratatu hori berretsi zuen, eta, horren ondorioz, Espainiako ordenamendu juridikoaren erreforma abiarazi zen, 26/2011 Legearen bidez. Lege horrek, hain zuzen ere, Araudia Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziora egokitzeko Legea du izena, eta gure barne-zuzenbideko hainbat lege-corpus aldatu zituen. Erreforma azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuarekin egin zuen aurrera, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei eta haien Gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartu zuenarekin. Horren ondotik etorri dira martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoak Zigor Kodean egindako erreforma, borondatezko jurisdikzioaren

legeria berria (uztailaren 2ko 15/2015 Legea, ekainaren 24ko 4/2017 Legeak aldatua, hain zuzen ere desgaitasuna duten pertsonen gainerako pertsonen baldintza berberetan ezkontzeko duten eskubideari dagokionez), edota oraintsuagokoak diren beste hauek: 1/2017 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Zinpekoen Epaimahaiaren maiatzaren 22ko 5/1995 Lege Organikoa aldatzen duena, desgaitasuna duten pertsonen bazterketarik gabe parte har dezaten bermatzeko, eta 2/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa aldatzekoa, desgaitasuna duten pertsona guztiei sufragio-eskubidea bermatzeko.

Lege honek mugarr nagusi bat jartzen du gure ordenamendua New Yorkeko Konbentziara egokitzeko lanean, bai eta gure barne-zuzenbidea eguneratzeko bidean ere, pertsona guztiek beren gaitasun juridikoa berdintasunean egikaritzeko duten eskubidearen errespetuaren arloan, hain zuzen. Gai horri azken urteotan etenik gabeko arreta jarri diote bai Nazio Batuek, bai Europako Kontseiluak eta Europako Parlamentuak berak, eta ondorioz, jakina, baita gure inguruko estatu-ordenamenduek ere.

Araudi berriak abiaburu hartzen ditu, gure Konstituzioak 10. artikuluan agintzen duen moduan, pertsonaren duintasunaren errespetua, oinarrizko eskubideen babesa eta desgaitasuna duen pertsonaren borondate askearen errespetua, bai eta pertsona horrek bere gaitasun juridikoa besteen baldintza berberetan egikaritzeko laguntza-neurrien premiaren eta proportzionaltasunaren printzipioak ere. Horren harira, gogoan hartu behar da ezen, Nazio Batuetako Adituen Batzordeak 2014an egindako Ohar Orokorrek agerian jarri duenez, gaitasun juridiko horrek barnean hartzen dituela hala eskubideen titulartasuna nola eskubideak egikaritzeko legitimazioa.

II

Lege honek zortzi artikulua ditu, bi xedapen gehigarri, sei xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen.

Lehenengo artikulua, zortzi apartatu baititu, Notariotzaren Legea aldatzen du; bigarren artikulua, hirurogeita zazpi apartatu baititu, Kode Zibila aldatzen du; hirugarren artikulua Hipoteka Legeari eragiten dio, eta bederatzi apartatu ditu; laugarren artikulua Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen du, eta hogeita bederatzi apartatu ditu; bosgarren artikulua azaroaren 18ko 41/2003 Legea aldatzen du (Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestekoa eta helburu berarekin Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga-araudia aldatzekoa), eta sei apartatu ditu; seigarren artikulua Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen du, eta hamar apartatu ditu; zazpigarren artikulua Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legea du hizpide, eta hogeia apartatu ditu; azkenik, zortzigarren artikulua Merkataritza Kodeaz dihardu, eta hiru apartatu ditu.

III

Bigarren artikulua Kode Zibilean egiten duen erreforma da zabalena eta sakonena, desgaitasuna duen pertsonaren borondatea eta lehentasunak oinarri dituen sistema berriaren funtsak ezartzen baititu; sistema horrek arau osoa hezurramitzen du, eta gainerako legeria zibilera zein legeria prozesalera estrapolatzen da beste lege-aldaketen bitartez.

Kode Zibilaren I. liburuaren XI. titulua berridatzi egiten da, eta izenburu hau ematen zaio: «Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko neurriak». Araudi berriaren ardatzeko elementua, beraz, ez da izango ustez aski gauza ez den pertsona ezgaitzea, ezta gizakiak berezkoa duen eta, horregatik, aldatu ezin den gaitasun bat aldatzea ere. Guztiz alderantziz, sistema berriaren erdiguneko ideia da laguntzaren premia duenari laguntzea. Laguntza hori, 2014ko Ohar Orokor horrek gogorarazten duenez, termino zabala da, era guztietako jarduketak biltzen dituena: akonpainamendu adiskidetsua, borondate-adierazpenak egiteko laguntza teknikoa, arkitekturako eta mota guztietako oztopoak kentzea, aholku ematea eta are erabakiak

hartzea ere, desgaitasuna duen pertsonak eskuordetuta. Are gehiago, erabakiak hartzeko ordezkaritza gisa ere gauzatu daiteke laguntza, betiere bestela ezin gauzatu daitekeen egoeretan, eta ezintasun-egoera horren aurrean soilik. Beharra duen edonork baliatu ahalko ditu laguntza-neurriak, kontuan hartu gabe haren desgaitasun-egoerak Administrazioaren aintzatespena jaso duen ala ez. Hau ere garrantzitsua da: hemeretzigarren mendeko kodeek egiten zutenaren kontra –gehiago arduratzen baitziren pertsonaren ondare-interesez pertsonaren babes osoaz baino–, araudi berria saiatzen da ondarearen ingurukoak ez ezik alderdi pertsonalak ere aintzat hartzen, hala nola eguneroko bizitzako gorabeheren gaineko erabakiak (bizilekua, osasuna, komunikazioak eta abar).

Ez daukagu aurrean terminologia-aldaketa huts bat, «ezgaitasun» eta «ezgaiaketa» baztertu eta beste termino zehatzago eta begirunetsuago batzuk ezartzen dituen, baizik eta errealitateari buruzko ikuspegi berri eta zuzenago bat, luzaroan oharkabean joan den zerbait ohartarazten duena: desgaitasuna duten pertsonak beren erabakiak hartzeko eskubidearen titularrak direla eta eskubide hori errespetatu egin behar dela; giza eskubideen kontu bat da, beraz. Izan ere, betidanik desgaitasunarekin erlazionatu diren hainbat muga ez dira desgaitasuna duten pertsonen sortuak, haien inguruneak baizik: oztupo fisikoek eta komunikazioek, kognitiboek, jarrerazkoek eta juridikoek murriztu dizkiete pertsona horiei beren eskubideak eta eskubideok egikartzeko aukera. Horregatik, lege honek sustatzen duen arau-erreformarekin batera etorri behar dira ingurunearen aldaketa, gizartearen pentsaera-aldaketa eta, bereziki, Zuzenbideko profesionalena –epaile eta magistratuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak, notarioak, erregistratzaileak–, horiek guztiek, desgaitasuna duten pertsonen eskakizunen aurrean, printzipio berrietatik abiatuta jardun beharko baitute beren eginkizunetan, eta ez honezkero lekuz kanpo dauden ikusmolde paternalistei jarraituz.

Europako beste ordenamendu batzuk eta Europako Kontseiluaren zuzentarauak aurrekari dituela, araudi berriak, laguntzak zehazteko garaian, borondatezko neurriak lehenesten ditu, hau da, desgaitasuna duen pertsonak berak har ditzakeen neurriak. Borondatezko neurrien artean bereziki garrantzitsuak izango dira prebentziozko ahalorde eta mandatuak, bai eta autokuradoretzaren aukera ere. Horiez gain, komeni da azpimarratzea egitezko zaintzaren figura indartu egiten dela eta berezko laguntza-instituzio juridiko bihurtzen dela, behin-behineko egoera izateari uzten diolako desgaitasuna duen pertsonaren eskubideak babesteko nahikoa eta egokia dela agerian jartzen denean. Errealitateak erakusten duenez, desgaitasuna duen pertsona sarri askotan behar bezala lagunduta eta babestuta dago erabakiak hartzerakoan eta bere gaitasun juridikoa egikartzekoan, egitezko zaintzaile bat dela medio (gehienetan ahaide bat, gure gizartearen oraindik ere familia baita bere kideen arteko elkartasunerako eta babeserako oinarritzko taldea, bereziki kide ahulenei dagokienez). Zaintzaile hori ez du epaile batek modu formalean inbestitu behar, eta desgaitasuna duen pertsonak ere ez luke nahi halakorik. Zaintzaileak ordezkari jardun behar duen kasuetan, aurreikusten da baimen judiziala lortu beharko duela *ad hoc*, eta, hartara, ez da beharrezkoa izango laguntzak emateko prozedura orokor bat abiatzea; alderantziz, nahikoa izango da kasu bakoitzerako baimena ematea, inguruabarrak aztertu eta gero.

Kuradoretzaren instituzioa, berriz, arreta handiagoz arautzen da, eta horixe da desgaitasuna duten pertsonentzako jatorri judizialeko laguntza-neurri nagusia. «Kuradoretza» hitzaren esanahiak berak –arta– instituzioaren xedea adierazten du: gaitasun juridikoa egikartzeko sostengua, babesa, laguntza; beraz, jarduteko printzipio gisa, eta ordezkaritza-izaerako jarduna ahal den neurrian baztertze aldera, kuradoretza laguntza-izaerako jarduna izango da funtsean. Hala ere, behar den kasuetan, eta betiere salbuespenez, ordezkaritza-eginkizunak esleitu ahalko zaizkio kuradoreari.

Artaren balioa handitzen ari da egungo gizarte demokratikoetan, eta aplikazio berezia du kuradoretzan. Pertsona guztiak, eta desgaitasuna duten pertsonak bereziki, arduraz tratatu behar dituzte gainerako pertsonen eta botere publikoek, hau da, nor bere egoerak eskatzen duen arretaz tratatu behar da.

Irizpide horri berari jarraituz, desgaitasunaren eremutik ezabatzen dira, tutoretza ez ezik, baita guraso-ahal luzatua eta guraso-ahal birgaitua ere, figura zurruneziak baitira eta

gutxi egokituak desgaitasuna duten pertsona helduen autonomia sustatzeko orain proposatzen den sistemara. Ildo horretan, komeni da gogora ekartzea desgaitasuna duten pertsonen autonomiari buruzko ikusmolde berriek zalantzan jartzen dutela gurasoak ote diren beti pertsona egokienak ahalbidetzeko desgaitasuna duen seme edo alaba helduak ahalik eta independentzia handiena lortzea eta bere burua prestatzea noizbait gurasoak ondoan izan gabe bizitzeko, pentsatzekoa baita semea edo alaba luzaroago biziko dela; gainera, gurasoak zahartzen direnean, batzuetan guraso-ahal luzatu edo birgaitu hori zama astunegia izan daiteke. Horregatik, araudi berrian, desgaitasuna duen adingabeak adin-nagusitasuna lortzen duenean, behar dituen laguntzak emango zaizkio, behar dituen beste edozein helduri ematen zaizkion bezala eta bide beretik.

Testu berrian defendatzaile judizialaren figura ere jaso da. Bereziki aurreikusten da hura egoera jakin batzuetan baliatzea, esaterako interes-gatazka dagoenean laguntza-figuraren eta desgaitasuna duen pertsonaren artean, edo une jakin batean ohiko laguntza-figurak ezin dionean lagundu desgaitasuna duen pertsonari.

Epaileak erabakitako laguntza-neurri guztiak aldi behin berrikusiko dira; gehienez ere, hiru urtean behin edo, salbuespenezko kasuetan, sei urtean behin. Nolanahi ere, pertsonaren egoera aldatu dela-eta neurriak ere aldatu beharra dagoen guztietan berrikusi ahalko dira.

Prozedurari erreparatuta, esan beharra dago laguntzak emateko prozedurak hau besterik ezin duela ekarri: ebazpen judizial batek zehaztea zein egintzatarako behar duen laguntza desgaitasuna duen pertsonak; inola ere ez, ordea, ezgaitze-deklaraziorik, eta are gutxiago eskubide pertsonal, ondare-eskubide edo eskubide politikoez gabeterik.

Azkenik, zarrastelkeriak instituzio autonomo izateari uzten dio, erreformaren ondorioz onetsitako laguntza-neurrien gaineko arauen barruan sar daitezkeelako figura horrek aurreikusten dituen kasuak.

Hemen egiten den erreforma hain sakona izanik, lege-aldaketa mordoa egin behar izan da bai Kode Zibilean, bai ukatu ezineko garrantzia duten beste lege batzuetan.

IV

Kodearen barruan, hizpide dugun gaia I. liburuaren XI. eta XII. tituluetera eraman da, eta, ondorioz, berrantolatu egin behar izan dira adingabetasunaren, adin-nagusitasunaren eta emantzipazioaren gaiak. Horrenbestez, I. liburuaren IX. tituluak adingabeen zaintza eta tutoretza ditu hizpide, eta X. titulua, berriz, adin-nagusitasunari eta emantzipazioari buruzkoa da. Esandakoarekin bat, tutoretza, ohiko ordezkartza-konnotazioa baitu, guraso-ahalaren babespean ez dauden adingabeen kasuan bakarrik erabiliko da, eta emantzipatuek zenbait egintza juridiko egikartzeko behar duten gaitasun-osagarria defendatzaile judizial batek emango du.

Esparru horretatik kanpo jada, Kode Zibil osoan zehar badira hainbat arau juridiko desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoari buruzko araudi berrira egokitu beharra dutenak. Hala, erreforma honek ukitzen dituen arauen artean baditugu nazioarteko zuzenbide pribatukoak, nazionalitateari buruzkoak, desgaitasuna izan eta laguntza behar duen adin nagusiko seme-alabaren bat tartean denean ezkontza-krisien ondorioei aplikatu beharreko zenbait arau –eragina izan dezakete, adibidez, familiaren etxebizitzaren esleipenean–, edo desgaitasuna duen guraso edo seme-alabaren bat tartean denean filiazioa ezartzeko arauak; halaber, aldaketa puntualak egiten dira irabazpidezko sozietateari buruzko manu batzuetan, ezkontideetako batek laguntza-neurriak behar dituen kasuetarako. Erreforma eragin berezia izango du oinordetzen zuzenbideko eta kontratuen zuzenbideko zenbait arautan. Arlo horietan, eskubideak egikartzeko gaitasuna izateak garrantzi handiko egintza juridikoak burutu ahal izatea dakar, eta ikuspegi berriaren arabera tratatu beharko dira bai egintza horiek berak, bai haien baliozkotasuna eta eraginkortasuna. Halaber, desgaitasuna duten pertsonak beren eskubideen bi alderdietan –titulartasunean eta egikaritzean– erabateko gaitasuna duten subjektutat hartzen badira, horrek ezinbestean izango ditu ondorioak erantzukizunaren ideian. Ildo horretatik, norberaren egitateengatiko erantzukizun zibilean aldatu egin behar da inputazio subjektiboaren

kontzeptua, eta besteren egitateengatiko erantzukizunaren ikusmolde berria eta mugatuagoa ezarri. Sistemaren koherentziari eutsiko bazaio, erreformaren ondorioz Zigor Kodeko bi manu ere aldatu behar dira, ez-zilegi penalaren ondoriozko erantzukizun zibilaren arloan, erantzukizun hori delituaren egilea ez beste pertsona bati egozten zaion kasuetan, eta, orobat, Zigor Kodearen lehenengo xedapen gehigarria ere aldatu egin behar da, araudi berrira egokitzeko. Subjektu egozgarriari buruzko aipamen okerra zuzentzen da, erreforma baliaturik. Horrez gain, Merkataritza Kodearen 4., 5. eta 234. artikulua erreformatzen dira, Kode Zibileko arau berrietara egokitzeko. Artikulu horietan guztietan ezabatu egiten da desgaitasuna izan eta laguntza-neurriak dituzten pertsonen buruzko aipamen oro, ez baita beharrezkoa; izan ere, gai hori Kode Zibileko arau orokorren mende egongo da.

Jabetza Erregistroaren eremuan, Hipoteka Legean ezgaitetaz edo ezgaituez diharduten manuak aldatzen dira eta Ezgaituen liburua kentzen da, arauen terminologia eta edukiak erreforma hau eragin duen New Yorkeko Konbentziara egokitzeko. Bestalde, kendu egiten da Hipoteka Legearen 28. artikulua, oso bakanak direlako artikulua horrek babestu behar lituzkeen kasuak, konparatzen baditugu artikulua horrek alboko ahaideen eta arrotzen ondorengotzan eragiten duen kaltearekin eta trafikoaren nahasmenduarekin, egoera antieconomikoak sortzen baititu.

Erregistro Zibila erdiguneko pieza bihurtzen da. Izan ere, sistema berriak lehenetsuna ematen die pertsona batek bere buruari edo bere ondasunei buruz aurreikusten dituen borondatezko neurriari, eta lehenetsun hori Erregistro Zibilean gauzatuko da. Hala ere, desgaitasuna duen pertsonaren oinarrizko eskubideak errespetatu behar direnez, intimitatea eta datu pertsonalen babesa barne, erabaki da laguntza-neurriari buruzko informazioa publikotasun murriztuko araubidearen eraginpeko datu gisa jasotzea Erregistroan.

V

Eremu prozesalean ere arauak Konbentzioari egokitu behar zaizkio, eta, hartara, gaitasuna aldatzeko ohiko prozesuen orde, bestelakoak ezartzen dira, desgaitasuna duten pertsonen laguntzak ematera bideratuak. Inguruabar horrek bide ematen du, gainera, horrelako uziak egikaritzen diren prozesuen arauetan zenbait aldaketa egiteko, auzitegiaren jardunean antzeman diren zenbait arazo konpontze aldera, auzitegi batzuen eta beste interpretazioan desberdintasunak egotea eragiten baitute.

Prozedura Zibilaren Legea (urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea) bere osoan berrikusi da, eta, horrela, behar diren berrikuspen terminologikoetatik harago, Konbentziara egokitzeko beharrezkoak diren doikuntzak egin dira filiazioa zehazteko edo aurkaratzeko akzioak egikaritzeari dagokionez, banantze- edo dibortzio-prozeduretan eta jarauntsia zatitzeko prozeduran.

Lehenengo aldaketa garrantzitsua 7 bis artikuluan dago, eta Borondatezko Jurisdikzioaren Legean ere sartu da. Artikulu horretan arautzen dira desgaitasuna duten pertsonen parte hartzen duten prozeduretako egokitzapenak eta doikuntzak, berdin da alderdi gisa edo beste modu batera parte hartzen duten. Egokitzapen eta doikuntza horiek, beharrezkoak izanez gero, prozesuko edozein fase eta jarduketatan egingo dira, baita komunikazio-egintzetan ere. Berariaz aipatzen da, gainera, desgaitasuna duen pertsonak, hala nahi badu eta bere kargura, profesional aditu bat ekar dezakeela laguntzaile moduan, egokitze- eta doitze-lanak egin ditzan.

Prozedura Zibilaren Legearen 756. artikuluko 1. apartatua ere garrantzitsua da, hau ezartzen baitu: legeria zibilaren arabera kuradorea izendatzea bidezkoa izanik aurretiaz horren aurka egin bada borondatezko jurisdikzioko espedientean, edo espediente hori ezin izan bada ebatzi, desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko neurri judizialak onartzeko prozesuak kapitulu horretan xedatutakoaren bidez arautuko dira. Aurka egiten ez denean, laguntza-neurriak judizialki ezartzean, borondatezko jurisdikzioari buruzko legeria beteko da.

Beraz, erreforma hau asmo handikoa da, borondatezko jurisdikzioaren bidea hautatzen baitu lehentasunez, pertsonaren beraren parte-hartzea funtsezkotzat hartuta eta bidea emanda pertsona horri bere lehentasunak adierazi eta modu aktiboan esku har dezan; agintaritza judizialak, berriz, behar den informazioa eskatuko du, betiere beharizanaren eta proportzionaltasunaren printzipioei loturik. Horrek guztiak ez du ezertan galaraziko prozedura kontraesanekoa bihurtzea. Bestalde, manu horren berorren 3. apartatuan konponbidea ematen zaio desgaitasuna duen pertsonak laguntza-neurriak xedatzeko prozesua artean ebazteke dagoelarik ohiko bizilekua aldatzean sortzen den arazoari. Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko Salak ezarritako irizpideari jarraituz, horrelakoetan bizileku berriko epaileari igorri behar litzaizkioke jarduketak, oraindik ikustaldirik egin ez bada. Horrela, errazago bideratzen da prozesua, eta, gainera, desgaitasuna duen pertsona dagoen lekutik hurbilago.

Prozedura Zibilaren Legearen 757. artikulua ere, 3. eta 4. apartatuetan, erantzuna ematen die auzitegi batzuen eta besteen jardunbidean desberdintasunak egotea eragiten zuten zenbait egoerari. Alde batetik, demandan desgaitasuna duen pertsonaren kuradore gisa proposatuta ageri den pertsonak alegazioak aurkez ditzala onartzen da, eta horrela datu gehiago bil daitezke mandatu hori bere gain hartzeko duen prestutasun eta egokitasunari buruz. Bestetik, onartzen da prozesuan esku har dezatela, beren kargua, prozeduraren sustatzaile ez diren legitimatuek edota interes legitimoa duten subjektuek, eta horrela saihesten dira desgaitasuna duen pertsonaren ahaideen arteko desberdinkeriak. Izan ere, lehenago ahaide batzuek bete-betean jardun zezaketen prozesuan, alderdi zirelako, eta beste batzuek froga-fasean baino ezin zuten entzunaldirik izan.

Hurrengo aldaketak Prozedura Zibilaren Legearen 758. artikuluan daude, eta demanda onartzeko uneari eta demandatua pertsonatzeari buruzkoak dira. Lehenik, hau ezartzen da: behin demanda onartu ondoren, ezarritako laguntza-neurriari buruz erregistro publikoetan dagoen informazioa bildu behar da, desgaitasuna duen pertsonaren borondatea errespetatzeko. Eta, bigarrenik, agintzen da defendatzaile judiziala izenda dadila baldin eta pertsona interesduna, hau da, desgaitasuna duen pertsona, ez bada bere defendatzaile eta ordezkari propioarekin agertzen demandari erantzuteko ezarritako epean. Hala, prozesuan beti izango da desgaitasuna duen pertsonaren interesak defendatuko dituen norbait.

Honelako prozesuetan nahitaez egin behar diren frogei buruzko araudia berrantolatatu egiten da testu berrian, eta, gainera, Prozedura Zibilaren Legearen 759.2 artikuluan gehitzen da zilegi izan daitekeela nahitaezko entzunaldiak ez egitea baldin eta interesdunak berak aurkezten badu demanda eta entzunaldi horiek haren pribatutasuna urra badezakete, isilpean gorde nahi dituen datu intimoak ahaideei ezagutarazten dizkielako. Prozesuak, gainera, ohiko eskematik urrundu eta lanbide arteko elkarlaneko sistema baterantz jo behar du, «mahai-inguruan» elkartuz gizarte- eta osasun-arloetako profesional espezializatuak eta kasu bakoitzerako laguntza-neurri egokiak gomenda ditzaketen beste profesional batzuk. Azkenik, epaileak ematen duen epaiaren edukiak, lehenengo araudian gertatzen zenaz bestera, aplikatu beharreko zuzenbide zibileko arauetara igortzen du, epaitzen den gaia zuzenbide substantibokoa delakoan, zuzenbide prozesalekoa baino gehiago.

VI

Borondatezko Jurisdikzioaren Legean (uztailaren 2ko 15/2015 Legea) egindako erreforma justifikatuta dago, batetik, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriak jartzeko espediente berria sortu delako, eta, bestetik, ez delako lege-testuen arteko desadostasunik izan behar, hori guztia pertsonen eskubideak eraginkortasunez zaindu ahal izateko.

Hala, Borondatezko Jurisdikzioaren Legearen eta legeria zibil materialaren arteko doikuntza ezartzen da, adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen defendatzaile judizialaren izendapenari dagokionez.

Bigarrenik, III bis kapitulua eransten da, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialak jartzeko espedienteari buruzkoa. Neurri horiek erabiliko dira baldin eta, arau zibilekin bat etorritz, bidezkoa bada laguntza-neurri judizial egonkorren bat ezartzea eta ez bazaio aurka egiten. Hauek sustatu ahalko dute espediente hori: Fiskaltzak, interesdunak berak, haren ezkontideak –ez badaude izatez edo legez bananduta– edo izatezko egoera parekoa duenak, eta haren ondorengoek, aurrekoek edo neba-arrebek.

Tutorea (adingabearentzat) edo kuradorea (desgaitasuna duen pertsonarentzat) izendatzeko espedientea dela-eta, egokitzapen terminologiko batzuez gainera, tutore edo kuradoreak kontuak emateko prozedura aldatu egiten da, Borondatezko Jurisdikzioaren Legea indarrean egon den ia hiru urte hauetan antzeman diren disfuntzio batzuk zuzentzeko. Alde batetik, epailearen aurreko agerraldia ez da beti egin beharko, baizik eta interesdunen batek eskatzen duenean soilik. Gaur egun, ikustaldi mordoa egiten da, eta, gehienetan, horrek ez du zentzurik, aurkezten diren kontuak ez direlako konplexuak eta ez zaielako aurka egiten. Bada, aurrerantzean, saihestu egingo dira horrelako egoerak. Bestetik, onartzen da auzitegiak ofizioz agindu dezala, tutoretzapeko edo lagundutako pertsonaren ondarearen kontura, kontabilitateko edo auditoretzako peritu-froga bat egiteko, nahiz eta inork ez eskatu perituaren agerraldirik, baldin eta txostenean eragiketa konplexuak edo justifikazio teknikoa behar dutenak deskribatzen badira. Auzitegiek behin eta berriz nabarmendu duten premia bati erantzuten dio horrek, eta xedea da hobeto babestea adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren interesak.

Halaber, adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen ondasunak besterentzeko edo horiei kargak ezartzeko egintzak epaileak baimendu edo onesteko espedientearen alderdi bat aldatzen da. Borondatezko Jurisdikzioaren Legearen 62.3 artikuluko arau berriek diotenez, abokatuak eta prokuradoreak esku hartzea jada ez da nahitaezkoa izango eragiketaren zenbatekoa 6.000 eurotik gorakoa den kasu guztietan, baizik eta beharrezkoa denean soilik, eragiketaren konplexutasuna edo interes kontrajarriak direla-eta. Horrela, zailtasun tekniko edo juridikorik gabeko egintzetan, kostuak gutxitu nahi zaizkie adingabeari edo desgaitasuna duen pertsonari, kontuan izanik horrelako jarduketetan beti egongo dela kontrol judiziala eskaeraren onespenera buruz erabakitzeke unean.

VII

Amaitzeko, nabarmendu behar da aldatu egiten direla Notariotzaren Legea eta azaroaren 18ko 41/2003 Legea (Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestekoa eta Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga-araudia aldatzekoa), lege horietako arauak erreforma honek ekarritako paradigma-aldaketara egokitzeke.

VIII

Araubide iragankorraz bezainbatean, formula malgu bat hautatu da, zeinaren arabera, arau orokor gisa, laguntza-eginkizunak lege berriaren arabera beteko baitira hura indarrean jartzen denetik aurrera, eta legitimazio zabala ezartzen baita noiznahi agintaritzaren judizialari eskatu ahal izateko lehengo sistemaren arabera ezarritako neurrien berrikuspena. Ofizioz ere egin ahalko da berrikuspena.

Azkenik, hiru hilabeteko epea ezartzen da araua indarrean jarri arte, kontuan izanik legeria berria ezagutzeko nahikoa denbora behar dela aldaketei ekin ahal izateko.

Lehenengo artikulua. *Notariotzaren 1862ko maiatzaren 28ko Legea aldatzea.*

Notariotzaren 1862ko maiatzaren 28ko Legea aldatzen da, honela:

Bat. Aldatu egiten da 23. artikuluan a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Hala baieztatzea egileslea ezagutzen duten eta notarioaren ezagunak diren adin nagusiko bi pertsonak. Berak izango dira identifikazioaren erantzuleak».

Bi. Paragrafo bat eransten da 25. artikulua azkenean; hona testua:

«Notarioaren aurrean agertzen diren pertsonen desgaitasuna dutenean, irisgarritasuna bermatzeko, beharrezkoak eta zentzuzkoak diren laguntzak, tresnak eta doikuntzak erabili ahalko dira, hala nola sistema handigarriak eta alternatiboak, braillea, irakurketa erraza, piktogramak, sarbide errazeko gailu multimedialak, interpreteak, ahoko komunikaziorako laguntza-sistemak, zeinu-hizkuntza, hizkuntza daktilologikoa, ukimenezko komunikazio-sistemak edota komunikazioa ahalbidetzen duten bestelako gailuak, bai eta beharrezkoa den beste edozein ere».

Hiru. Aldatu egiten da 54. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Ezkontideek, beren mendean ez badute ez seme edo alaba adingabe emantzipatu gaberik, ez gurasoei esleitutako laguntza-neurriak judizialki ezarriak dituen adin nagusiko seme edo alabarik, elkarrekin adostutako banantzea edo dibortzioa erabaki ahalko dute. Horretarako, hitzarmen arauemailea egin beharko da eskritura publikoan. Adostasuna eman beharko dute azken egoitza komuneko notarioaren aurrean edo eskatzaileetako edozeinen ohiko bizilekuko edo egoitzako notarioaren aurrean».

Lau. Aldatu egiten da 56. artikulua 1. apartatuko hirugarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Interesdunetako edozein adingabea bada eta legezko ordezkari ez badu, edo desgaitasuna duen pertsona bada eta laguntza nahikorik ez badu, notarioak horren berri emango dio Fiskaltzari, defendatzaile judiziala izendatzea eska dezan».

Bost. Aldatu egiten da 57. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Interesdunetako edozein adingabea bada eta legezko ordezkari ez badu, edo desgaitasuna duen pertsona bada eta laguntza nahikorik ez badu, notarioak horren berri emango dio Fiskaltzari, defendatzaile judiziala izendatzea eska dezan».

Sei. Aldatu egiten da 62. artikulua 3. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«3. Pertsona horietako edozein adingabea bada eta legezko ordezkari ez badu, edo desgaitasuna duen pertsona bada eta laguntza nahikorik ez badu, notarioak horren berri emango dio Fiskaltzari, defendatzaile judiziala izendatzea eska dezan».

Zazpi. Aldatu egiten da 70. artikulua 1. apartatuko c) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«c) Mantenuagatiko zorrak, horietan interesa badute adingabeek, ezta gai xedaezinei edo baimen judizialaren mendeko eragiketei buruzkoak ere».

Zortzi. Aldatu egiten da 81. artikulua 2. apartatuko a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«a) Adingabeek zein auzitan interesa izan eta horiek».

Bigarren artikulua. *Kode Zibila aldatzea.*

Kode Zibila aldatzen da, honela:

Bat. Honela geratzen da idatzita 9.6 artikulua bigarren paragrafoa:

«Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriari aplikatu beharreko legea haien ohiko bizilekua izango da. Bizilekua beste estatu batera aldatuz gero, ohiko

bizileku berriaren legea aplikatuko da; hala ere, Espainian beste estatu batzuetan adostutako laguntza-neurriak aitortzen dira. Hala ere, Espainiako legea aplikagarria izango da, behin-behineko edo premiazko laguntza-neurriak hartzeko».

Bi. Honela geratzen da idatzita 10. artikulua 8. apartatua:

«8. Espainian dauden pertsonen artean egiten diren kontratuetan, Espainiako legearekin bat etorri gaitasuna duten pertsona fisikoek beste herrialde bateko legeari jarraikiz desgaitasuna dutela adierazi ahalko dute baldin eta, kontratua sinatzen den unean, beste aldeak desgaitasun horren berri badu edo ez izatekotan bere utzikeriaren ondorioz bada».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 15.1 artikulua bigarren paragrafoa:

«Aukeraren inguruko adierazpen hori egin dezake, kasuaren arabera, bai aukerataileak, bere kabuz edo, desgaitasuna badu, behar dituen laguntzekin, bai haren legezko ordezkariak. Naziokotasuna eskuratzen denean adierazpenaren bidez edo legezko ordezkariak egindako eskariaren bidez, horretarako beharrezkoa den baimenak zehaztuko du zein den aukeratu beharreko auzotartasun zibila».

Lau. Honela geratzen da idatzita 20. artikulua 2. apartatua:

«2. Aukeraren inguruko adierazpena egin dezakete:

a) Aukeratailearen legezko ordezkariak, baldin eta aukerataile hori hamalau urtekoa baino gazteagoa bada. Hamalau urtetik beherako adingabearen legezko ordezkarien arteko desadostasuna badago, horretarako aurreikusita dagoen borondatezko jurisdikzioko espedientea izapidetuko da.

b) Interesdunak berak, bere legezko ordezkariaren laguntzarekin, interesdunak hamalau urte baino gehiago baditu.

c) Interesdunak, bere kabuz, emantzipaturik badago edo hemezortzi urtekoa baino nagusiagoa bada. Aukera hori iraungi egingo da interesdunak hogeitau urte betetzen dituenean; baina aukeratailea bere lege pertsonalaren arabera ez badago emantzipaturik hemezortzi urte betetzean, aukera egiteko epea luzatu egingo da emantzipazioaren ondorengo bi urteak igaro arte.

d) Desgaitasuna duen interesdunak, laguntzekin eta prozeduraren doikuntzekin, behar izanez gero.

e) Interesdunak, bere kabuz, aukera egitea eragotzi dioten laguntza-neurriak azkendu eta hurrengo bi urteetako epean».

Bost. Aldatu egiten dira 21.3 artikulua c) eta d) letrak, eta honela geratzen dira idatzita:

«c) Hamalau urtekoa baino gazteagoa den adingabearen legezko ordezkariak. Bizilekuagatiko nazionalitate-eskaera dela-eta legezko ordezkarien arteko desadostasuna badago, horretarako aurreikusita dagoen borondatezko jurisdikzioko espedientea izapidetuko da.

d) Desgaitasuna duen interesdunak, laguntzekin eta prozeduraren doikuntzekin, behar izanez gero».

Sei. Honela geratzen da idatzita 22.2 artikulua c) letra:

«c) Jarraikako bi urtetan eta lege-aginduz, Espainiako herritar edo erakunde baten tutoretzapean, kuradoretzapean –ordezkaritza osorako ahalmenekin–, zaintzapean edo harrerapean egon denarentzat, eskabidea egiteko unean oraindik egoera horretan izan arren».

Zazpi. Aldatu egiten da 81. artikulua lehengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Banantzea judizialki dekretatuko da seme edo alaba adingabe eta emantzipatu gabeak badaude edota gurasoei esleitutako laguntza-neurriak judizialki ezarri zaizkien adin nagusiko seme edo alabak badaude, ezkontza edozein formatan egin dela ere».

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 82. artikulua:

«1. Ezkontideek elkarrekin adostuta banantzea erabaki ahalko dute ezkontza egin eta hiru hilabete igaro eta gero. Horretarako, hitzarmen arauemailea egin beharko da Justizia Administrazioaren letradu baten aurrean, edo eskritura publikoa notario baten aurrean. Hitzarmen edo eskritura horretan ezkontideek azaldu beharko dute banantzeko borondate argia dutela, eta 90. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera banantzeak sortzen dituen ondorioak arautzeko neurriak zehaztuko dituzte. Funtzionario diplomatiko nahiz kontsularrek, esleitu zaizkien notario-eginkizunak betetzean, ezingo dute banantzearen eskritura publikoa eskuetsi.

Ezkontideek banantzea egilestean pertsonalki esku hartu beharko dute; dena dela, jarduneko letradu batek lagundu beharko die Justizia Administrazioaren letraduaren edo notarioaren aurrean adostasuna ematean. Era berean, seme-alaba adin nagusikoek edo adingabe emantzipatuak adostasuna eman beharko dute Justizia Administrazioaren letraduaren edo notarioaren aurrean, diru-sarrera propiorik ez izateagatik eta familiaren egoitzan bizitzeagatik dagozkien neurriak buruz.

2. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko aurreko artikuluan azaldutako egoera duten seme-alabak daudenean».

Bederatzi. Bigarren paragrafo bat eransten zaio 91. artikuluari, eta honela geratzen da idatzita:

«Deuseztasun, banantze edo dibortzioaren unean hamasei urtetik gorako bi-bion seme edo alabaren batek laguntza-neurrien beharra badauka desgaitasuna izateagatik, epaiak neurri horien ezarpenaz eta gauzatzeko moduz ere ebatziko du, adingabeari entzun eta gero. Neurriak, halakorik ezartzen bada, semeak edo alabak hemezortzi urte betetzen dituen jarriko dira indarrean. Horrelako kasuetan neurriak eskatzeko legitimazioa, frogaren berezitasunak eta epaiaren edukia Prozedura Zibilaren Legean desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurrien xedapen judizialari buruz ezarritakoaren bidez arautuko dira».

Hamar. Beste era batera geratzen da idatzita 94. artikulua; honela:

«Agintari judizialak zehaztuko du noiz, nola eta non egikaritu duen seme-alaba adingabeekin bizi ez den gurasoak seme-alabok bisitatu, horiekin harremanak izan eta eurekin egoteko eskubidea.

Adin nagusikoak edo emantzipatuak diren seme-alabek desgaitasuna izan eta erabakia hartzeko laguntza behar dutenean, haiekin bizi ez den gurasoak eskatu ahal izango du, deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-prozeduran bertan, ezar dadila nola egikaritu den aurreko paragrafoan aurreikusitako eskubidea.

Agintaritzak judizialak aurreko paragrafoetan aurreikusten den erabakia hartuko du, seme edo alabari eta Fiskaltzari entzun eta gero. Halaber, agintaritzak judizialak aurreko paragrafoetan ezarritako eskubideak eten ahalko ditu inguruabar garrantzitsuren batek hala eskatzen badu edo ebazpen judizialean ezarritako betebeharretan huts egiten bada era larrian edo behin eta berriz.

Ez da bisita- edo egonaldi-araubiderik ezarri beharko, eta halakorik bada eten egingo da, gurasoa zigor-arloko prozesu batean sartuta badago ezkontidearen edo seme-alaben biziaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo

sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren kontra egiteagatik. Ezta agintaritzak judizialak etxeko indarkeriaren edo genero-indarkeriaren zantzu oinarridunak nabaritzen dituenean ere, alderdien alegazioak eta egindako frogak ikusita. Hala ere, gurasoaren eta seme-alaben arteko harremanen egoera aztertu eta gero, agintaritzak judizialak bisita-, komunikazio- edo egonaldi-araubidea ezarri ahalko du, ebazpen horren arrazoi izanik adingabearen interes gorena, edo desgaitasuna izan eta laguntzak behar dituen adin nagusikoaren borondatea, nahiak eta lehentasunak.

Ez da bisita-araubiderik ezarri beharko gurasoa behin-behinean edo epai irmoz espetxeratuta badago eta espetxeratzeari aurreko paragrafoan azaltzen diren delituengatik erabaki bada zigor-arloko prozedura batean.

Halaber, agintaritzak judizialak aitortu ahalko du 160. artikulua bigarren apartatuan komunikazio eta bisitetarako ezarritako eskubidea, aurretik gurasoei entzunda, bai eta adingabearen edo desgaitasuna izan eta erabakia hartzeko laguntza behar duen adin nagusikoaren neba, arreba, aitona, amona, ahaide edo hurrekoa izateagatik eskubidea beretzat eskatu duen pertsonari ere. Adingabeak edo desgaitasuna duen adin nagusikoak adostasuna eman beharko du. Agintaritzak judizialak, erabakitzerakoan, beti izango du kontuan adingabearen interesa, edo desgaitasuna duen adin nagusikoaren borondatea, nahiak eta lehentasunak».

Hamaika. Honela geratzen da idatzita 96. artikulua:

«1. Ezkontideek egin eta agintaritzak judizialak onetsitako akordiorik izan ezean, bi ezkontideenak diren seme-alaba adingabeei eta haiekin geratzen den ezkontideari dagokie familiaren etxebizitza eta etxebizitza horretan egunero erabiltzen diren objektuak erabiltzea, harik eta haiek guztiak adin nagusikoak izan arte. Seme-alaba adingabeen artean baten batek desgaitasuna badu eta komeni bazaio adin nagusikoa denean ere familiaren etxebizitza erabiltzen jarraitzea, agintaritzak judizialak erabakiko du noiz arte iraungo duen eskubide horrek, inguruabarren arabera.

Aurreko paragrafoaren ondoretarako, bi ezkontideenak diren seme-alaba adin nagusikoak ere, deuseztasun, banantze edo dibortzioaren unean desgaitasun-egoeran badira eta komeni bazaie familiaren etxebizitza erabiltzen jarraitzea, antzeko egoera duten seme-alaba adingabeekin parekatuko dira.

Lehenengo paragrafoan aurreikusten den erabilera azkentzen denean, independentzia ekonomikorik ez dutenen etxebizitza-beharrizanak liburu honen VI. tituluaren (ahaideen arteko mantenuari buruzkoan) ezarritakoaren arabera aseko dira.

Seme-alaba batzuk ezkontide batekin geratzen direnean, eta bestek, bestearekin, agintaritzak judizialak bidezkoena erabakiko du.

2. Semerik edo alabarik izan ezean, erabaki daiteke ondasun horien erabilera euren titular ez den ezkontideari ematea, zuhurtziara finkaturiko epean zehar, baldin eta, inguruabarrak kontuan hartuta, hori komenigarri bada, eta ezkontide horren interesa bada babes handiena merezi duena.

3. Etxebizitza eta ondasunon erabilera aurreko paragrafoetan ezarritakoari jarraituz esleitu bada, bi ezkontideen adostasuna edo, bestela, epailearen baimena beharko da haiek osorik edo zati batean xedatzeko. Familiaren etxebizitza xedatzeko ahalmenaren murrizketa hori Jabetza Erregistroan jasoko da. Xedatzaileak okerreko adierazpena edo adierazpen faltsua egiten badu etxebizitzaren erabilerari buruz, adierazpen horrek ez dio kalterik egingo eskuratzailerari onustedunari».

Hamabi. Beste era batera geratzen da idatzita 112. artikulua bigarren paragrafoa; honela:

«Edozein kasutan ere, filiazioa zehaztu baino lehen, seme edo alaba adingabearen legezko ordezkariak egintzak burutu baditu haren izenean, edo, desgaitasuna izan eta laguntza-neurriak ezarri zaizkien adin nagusikoen kasuan,

egintzak burutu badira neurri horien arabera, egintzok beren baliozkotasunari eutsiko diote».

Hamahiru. Honela geratzen da idatzita 121. artikulua:

«Emantzipatu gabeko adingabeek egindako aitortpena baliozkoa izan dadin, epailearen onespena behar da, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunda.

Laguntza-neurriak ezarri zaizkien adin nagusiko pertsonak egindako aitortpena baliozkoa izan dadin, neurriok ezarri dituen ebazpen judizialean edo eskritura publikoan xedatutakoa beteko da. Ezer xedatu ez bada eta borondatezko laguntza-neurririk ez badago, epaileak hartu zituen laguntza-neurrien berrikuspena bideratuko da, neurriok osatzeko, helburu horretarako».

Hamalau. Honela geratzen da idatzita 123. artikulua:

«Adin nagusikoa seme edo alabatzat aitortzeak ez du ondorerik sortuko, adin nagusiko horren esanbidezko nahiz isilbidezko adostasunik gabe.

Desgaitasuna duen adin nagusikoak berak emango du bere filiazioari buruzko aitortpena eragingarria izateko adostasuna, esanbidez edo isilbidez, horretarako behar dituen laguntzekin. Ebazpen judizial edo eskritura publikoren batek laguntza-neurriak ezarri baditu, bertan xedatutakoa beteko da».

Hamabost. Honela geratzen da idatzita 124. artikulua:

«Adingabearen filiazioari buruzko aitortpena eragingarria izan dadin, beharrezkoa da adingabe horren legezko ordezkariak beren-beregi emandako adostasuna, edo, bestela, epailearen onespena, Fiskaltzak eta lege-bidez zehazturiko gurasoak esan beharrekoa entzunez.

Adostasuna edo onespena ez da beharrezkoa, aitortpena testamentuan egin bada edo aitortpen hori jaiotza-inskripzioa egiteko epearen barruan egin bada. Aitatasunari buruzko inskripzioa modu horretan eginez gero, inskripzio hori etenda gera daiteke, amak hala eskatuz gero, jaiotzaren osteko urtebetean zehar. Aitak inskripzioaren baieztapena eskatzen badu, nahitaezkoa izango da epaileak berori onestea, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunda».

Hamasei. Honela geratzen da idatzita 125. artikulua:

«Adingabearen gurasoak neba-arrebak edo zuzeneko lerroan odolkideak direnean, filiazioa lege-bidez zehaztu bada guraso bati begira, epailearen aurretiazko baimena nahitaezkoa izango da filiazio hori lege-bidez beste gurasoari begira zehaztu ahal izateko; epaileak baimen hori emango du, Fiskaltzak esan beharrekoa entzunez, adingabearen interesari hori komeni bazaio.

Adingabeak ez badu adostasunik eman azken zehaztapen horri dagokionez, adin-nagusitasuna lortzean, baliorik gabe utz dezake, aitortpen kautoa eginez».

Hamazazpi. Honela geratzen da idatzita 133. artikulua 1. apartatua:

«1. Kasuan kasuko egoera-erabak izan ezean, semea edo alaba bere bizitza osoan zehar dagokio ezkontzaz kanpoko filiazioa erreklamatzeko akzioa.

Semea edo alaba hiltzen bada adin-nagusitasuna lortu edo ondore horietarako ezarrita dauzkan laguntza-neurriak kendu eta hurrengo lau urteak igaro baino lehen, edo, bestela, demandaren oinarri diren frogak aurkitu eta hurrengo urtebetean zehar, seme edo alaba horren jaraunslerei dagokie haren akzioa, epeok bete arte».

Hemezortzi. Honela geratzen dira idatzita 137. artikulua 1. eta 2. apartatuak:

«1. Semeak edo alabak aitatasuna aurkara dezake filiazioa inskribatu eta hurrengo urtebetean barrena.

Semea edo alaba adingabea bada, edo desgaitasuna izan eta laguntza-neurriak baditu, epearen zenbaketa hasiko da seme edo alaba horrek adin-nagusitasuna lortzen duenetik edo laguntza-neurriak azkentzen direnetik.

Filiazioa inskribatu eta hurrengo urtebetean zehar, guraso-ahala duen amari, legezko ordezkariari edo, bestela, Fiskaltzari dagokio akzioa egikaritzea, seme edo alaba adingabearen intereserako.

Desgaitasuna duen pertsona bada, era berean, filiazioa inskribatu eta hurrengo urtebetean zehar egikaritu ahalko du aurkaratze-akzioa pertsona horrek berak, edo laguntza ematen duen eta berariaz horretarako ahalmena jaso duen pertsonak, edo, halakorik ezean, Fiskaltzak.

2. Semeak edo alabak, erregistroan inskribatu denetik, adin nagusikoa denetik edo laguntza-neurria azkendu denetik urtebete baino gehiago igaro arren, bere guraso gisa inskribatuta agertzen denaren aitatasun biologikorik eza ezagutu ezean, urtebeteko epea horren berri duenetik zenbatzen hasiko da».

Hemeretzi. Aldatu egiten da 156. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«Guraso-ahala egikaritzen dute bi gurasoek batera, edo, osterantzean, batek bakarrik, bestearen esanbidezko edo isilbidezko adostasunarekin. Guraso batek buruturiko egintzak baliozkoak dira, egintzok gizarte-usadioekin eta kasuan kasuko inguruabarrekin bat badatoz edo presako beharizan-egoeretan gauzatu badira.

Epai kondenatzailea eman ondoren eta erantzukizun penala amaitzen ez den bitartean edo gurasoetako baten aurka zigor-arloko prozedura bat hasi denean bien seme-alaba adingabeen edo beste gurasoaren bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren, osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka egiteagatik, seme-alaba adingabeei arreta eta laguntza psikologikoa emateko, nahikoa izango da beste guraso horrek baimena ematea, eta lehenengo gurasoari horren berri eman beharko zaio aurrez. Aurrekoa berdin aplikatuko da, nahiz eta aurrez salaketarik ez jarri, emakumea laguntza jasotzen ari bada genero-indarkeriaren arloko zerbitzu espezializatu batean, betiere zerbitzu horrek egoera egiaztatzen duen txostena emanaz gero. Laguntza hamasei urtetik gorako seme-alabei eman behar bazaie, haien berariazko baimena beharko da beti.

Guraso-ahala egikaritzean desadostasuna izanez gero, bietatik edozeinek jo dezake agintaritza judizialarengana. Hark entzungo die bi-bioi, baita semeari edo alabari ere, horrek heldutasun nahikoa badu, eta, nolana ere, semea edo alaba hamabi urtetik gorakoa bada; horrenbestez, erabakitze ahalmena gurasoetako bati eratzikiko dio. Desadostasunak etengabekoak badira, edo beste edozein arrazoik modu larrian oztopatzen badu guraso-ahalaren egikaritzea, epaileak guraso bati eratziki diezaioke ahalaren egikaritzea, oso-osorik zein zati batez; edo, bestela, epaileak gurasoen artean bana ditzake guraso-ahalaren eginkizunak. Neurri horien iraupena epaileak berak zehaztuko du; baina iraupen hori ezin da inoiz izan bi urtetik gorakoa. Aurreko lerrokadetak kasuetan, hirugarren onustedunei begira uste da guraso bakoitzak bestearen adostasunarekin diharduela, guraso-ahalaren egikaritzea arrunta burutzean.

Guraso bat izan ezean, edo guraso bat absente badago, edo ezintasunen bat badu, beste gurasoak modu eskusiboan egikarituko du guraso-ahala.

Gurasoak banandurik bizi badira, semearekin edo alabarekin bizi den gurasoak egikarituko du guraso-ahala. Dena den, beste ezkontideak eskaera oinarri duna egiten badu, agintaritza judizialak horri eratziki diezaioke guraso-ahala, semearen edo alabaren intereserako, guraso horrek bestearekin batera ahal hori egikari dezan; edo, bestela, epaileak bien artean bana ditzake guraso-ahalaren egikaritzari datzekion eginkizunak».

Hogei. Kendu egiten da 171. artikulua.

Hogeita bat. Aldatu egiten da I. liburuaren IX. titulua, eta honela geratzen da idatzita, izenburu eta eduki hauekin:

«IX. TITULUA

Adingabeen tutoretza eta zaintza

I. KAPITULUA

Tutoretza*1. atala. Xedapen orokorrak**199. artikulua.*

Tutoretzaren mende egongo dira:

1. Desanparo-egoeran diren adingabe emantzipatu gabeak.
2. Guraso-ahalaren pean ez dauden adingabe emantzipatu gabeak.

200. artikulua.

Tutoretza-eginkizunak eginbeharrak dira, tutoretzapekoaren onurarako egikarituko dira, eta agintaritza judizialaren zaintzapean egongo dira.

Agintaritza judizialak 158. artikuluan ezarritako neurri eta xedapenak erabaki ditzake, adingabeen gaineko tutoretzaren kasu guztietan, hori beharrezkoa bada, adingabe horien intereserako.

Erakunde publiko baten tutoretzapean dauden adingabeak badira, neurri horiek ofizioz edo erakundeak, Fiskaltzak nahiz adingabeak berak eskatuta baino ezingo ditu erabaki agintaritza judizialak. Erakunde publikoa prozedurako alderdi izango da eta erabakitako neurrien berri emango zaio, eta berak komunikazio hori helaraziko dio egoitza-zentroko zuzendariari edo familia harreragileari.

201. artikulua.

Gurasoek, testamentuan nahiz notario-agiri publikoan, tutorea izenda dezakete, eta tutoretzaren gaineko fiskalizazio-organoak ezar ditzakete; era berean, organo horien partaide izan behar diren pertsonak izenda ditzakete; eta, halaber, beste edozein xedapen ordena dezakete, euren seme-alaba adingabeei eurei edo haien ondasunei buruz.

202. artikulua.

Tutoretza eratzean, agintari judizialarentzat lotesleak izango dira aurreko artikuluan aipaturiko izendapenak, salbu eta beste zerbait behar denean adingabearen interes gorenerako; kasu horretan, agintaritza judizialak ebazpen zioduna emango du.

203. artikulua.

Gurasoen testamentura nahiz notario-agiri publikora bildu direnean gurasoen xedapenak, batzuk eta besteak batera aplikatuko dira, bateratzeko modukoak diren heinean. Xedapen horiek bateratzeko modukoak ez badira, agintaritza judizialak hartuko ditu, ebazpen ziodunean, bere ustez adingabearen interes gorenerako egokienak direnak.

204. artikulua.

Testamentuan nahiz notario-agiri publikoan tutoretzari buruzko xedapenak egin badira, xedapen horiek eraginik gabekoak izango dira, baldin eta, horiek hartzeko unean, xedatzaileari guraso-ahala kendu bazaio.

205. *artikulua.*

Norbaitek dohainik ondasunak xedatzen baditu adingabearen mesederako, ondasunok administratzeko eta xedatzeko erregelak ezar ditzake, eta eginkizun horietarako pertsona edo pertsonak izenda ditzake. Tutoreari dagozkio administratzaileari eratziki ez zaizkion eginkizunak.

206. *artikulua.*

Tutorezara deituriko ahaideek eta adingabearen gaineko zaintza duen pertsona fisiko edo juridikoak tutoretzaren eraketa eragin beharko dute, hori erakarri duen egitatea ezagutzen duten unetik; hori egin ezean, pertsona horiek erantzukizun solidarioa izango dute eragindako kalte-galeren ordainaren gain.

207. *artikulua.*

Pertsona orok Fiskaltzari edo agintaritza judizialari eman diezaioke tutoretza erakarri duen egitatearen berri, hurrengo artikuluan aipatzen den espedientea abiaraz dezan.

208. *artikulua.*

Agintaritza judizialak tutoretza eratuko du borondatezko jurisdikzioko espediente baten bidez, legez ezarritako izapideak eginez.

209. *artikulua.*

Tutoretza Fiskaltzaren jagoletzapean beteko da; Fiskaltzak ofizioz jardungo du, edo, bestela, adingabeak nahiz edozein interesdunek hala eskaturik.

Edozein unetan, Fiskaltzak tutoreari eska diezaioke informazioa eman dezan adingabearen egoerari buruz, bai eta tutoretzaren administrazioak duen egoerari buruz ere.

210. *artikulua.*

Tutoretza eratzen duen ebazpenean edo horren osteko ebazpenetatik edozeinetan, agintaritza judizialak jagoletza- eta kontrol-neurriak ezar ditzake, bere ustez horiek komenigarri badira tutoretzapekoaren onurarako. Era berean, agintaritza judizialak edozein unetan eska diezaioke tutoreari informazioa eman dezan adingabearen egoerari buruz, bai eta administrazioaren egoerari buruz ere.

2. *atala. Tutoretzarako delazioa eta tutorea izendatzea*

211. *artikulua.*

Tutore izan daiteke edozein pertsona fisiko, baldin eta, agintaritza judizialaren iritziz, eginkizuna egokiro betetzeko behar adinako gaitasuna badu eta hurrengo artikuluetan ezarritako desgaitasun-arrazoietatik bat ere betetzen ez badu.

212. *artikulua.*

Tutore izan daitezke fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako pertsona juridikoak, publiko zein pribatuak, haien xedeetako bat bada adingabeei babes eta laguntza ematea.

213. *artikulua.*

Tutorearen izendapenean, hobetsiko dira:

1. Gurasoek testamentuan edo notario-agiri publikoan izendaturiko pertsona edo pertsonak.
2. Agintaritza judizialak izendaturiko aurrekoa, neba edo arreba.

Salbuespen gisa, eta ebazpen ziodunean, aurreko paragrafoetako hurrenkera alda daiteke, edo paragrafo horietan aipaturiko pertsona guztiak alde batera utz daitezke, hori beharrezkoa bada adingabearen interes gorena kontuan hartuta. Adingabearentzat onuragarria da tutorearen familia-bizitzan integratzea.

214. *artikulua.*

Aurreko artikuluan aipaturikoak izan ezean, agintaritza judizialak pertsonarik egokiena izendatuko du tutore; horretarako, kontuan izango ditu pertsona horren eta tutoretzapekoaren arteko harremanak eta tutoretzapekoaren interes gorena.

215. *artikulua.*

Neba-arreba batzuentzat tutorea izendatu behar bada, ahal den neurrian, pertsona bera izendatuko da guztion tutore.

216. *artikulua.*

Ezin dira tutore izan:

1. Ebazpen judizialaren bitartez guraso-ahalaren egikaritza kendu edo etenda dutenak, edota zaintza eta babeserako eskubideak oso-osorik zein zati batez kendu edo etenda dituztenak.
2. Lege-aginduz aurreko tutoretza, kuradoretza edo zaintza batetik enkaituak izan direnak.

217. *artikulua.*

Agintaritza judizialak ezin ditu hauek tutore izendatu:

1. Tutoretzapekoaren gurasoek baztertu dituztenak.
2. Edozein delituren ondorioz epai irmoan kondenatuak izan direnak, hortik funtsez atera badaiteke pertsona horiek ez dutela behar den moduan jardungo tutoretzan.
3. Konkurtso-prozedura izapidetu bitartean beren administrazio-ahalmenetan ordeztuak izan diren administratzaileak.
4. Konkurtso batean errudun-deklarazioa egotzi ahal zaienak, salbu eta tutoretza pertsonaren gainekoa baino ez denean.
5. Tutoretzapekoarekin interes-gatazka dutenak.

218. *artikulua.*

Tutoretzan tutore batek jardungo du, salbu eta:

1. Tutoretzapekoari berari edo horren ondareari inguruabar bereziak gertatzeagatik, komeni denean kargu desberdin gisa bereiztea pertsonaren tutorea eta ondasunen tutorea; horrelakoetan, tutore bakoitzak bere buruz jardungo du bere eskumen-eremuan, baina bi-biei dagozkien erabakiak batera hartu beharko dituzte.
2. Inor bere neba edo arrebaren seme-alaben tutore izendatzen denean, komenigarritzat jotzen bada tutorearen ezkontideak edo tutorearekin pareko afektibitate-harremana duenak ere tutoretza horretan jardutea.
3. Tutoretzapekoaren gurasoek testamentuan edo notario-agiri publikoan tutore bat baino gehiago izendatzen dutenean, tutoretzan batera jardun dezaten.

219. *artikulua.*

Aurreko artikulua 3. zenbakira bildutako kasuan, gurasoek beren-beregi hala xedatzen badute, erabaki daiteke, tutoreak izendatzean, tutore horiek modu solidarioan egikaritu ahal izatea tutoretzaren ahalmenak.

Mota horretako izendapenik egin ezean, eta aurreko artikuluko 1. zenbakian xedatutakoari kalterik egin gabe, tutoreek batera egikaritutako dituzte euron ardurapean utzitako tutoretza-ahalmenak; hala ere, baliozkoa izango da tutore gehienek erabakiz egindakoa. Halako erabakirik izan ezean, agintaritzak judizialak entzungo die tutoreei, baita tutoretzapekoari ere, behar besteko zentzutasuna baldin badu; ondoren, agintaritzak judizialak bere ustez komeni dena erabakiko du gerogarreneko errekurtsorik gabe. Desadostasunak etengabekoak badira eta modu larrian oztopatzen badute tutoretza betetzea, agintaritzak judizialak tutoretza horren jardunbidea berrantolatu ahal izango du, eta beste tutore bat ere izenda dezake.

220. *artikulua.*

Tutoreei batera eratziki bazaizkie euren ahalmenak, eta, egintza edo kontratu jakin bati begira, interesen arteko bateraezintasuna edo aurkakotasuna sortzen bada tutore baten inguruan, beste tutoreak, edo, tutore bat baino gehiago izanez gero, gainerako tutoreek batera gauza dezakete halako egintza edo kontratua.

221. *artikulua.*

Edozein arrazoiren ondorioz tutore batek kargua uzten badu, tutoretzak bere horretan irauten du gainerako tutoreekin, salbu eta izendapena egitean beren-beregi besterik xedatu denean.

222. *artikulua.*

Desanparo-egoeran diren adingabeen tutoretza, legearen aginduz, kasuan kasuko lurraldean adingabeen babesaz arduratzen den erakunde publikoari egokitu zaio.

Nolanahi ere, erregela arruntekin bat etorritz izendatu behar da tutorea, pertsona fisiko jakin batzuek, adingabearekin dituzten harremanengatik edo beste inguruabar batzuek, tutoretza bereganatu ahal dutenean tutoretzapekoaren onurarako.

Aurreko paragrafoko kasuan, tutorearen izendapen judizialaren aurretik edo ebazpenean bertan, guraso-ahala etetea edo kentzea edo tutorea kargutik enkaitzea, hala badagokio, erabaki beharko da.

Guraso-ahala kentzeko, tutorea kargutik kendu dadin eragiteko eta desanparo-egoeran diren adingabeen tutoreen izendapena eskatzeko akzioak egikaritzeko legitimatuta egongo dira Fiskaltza, erakunde publikoa eta tutoretza egikaritzeko deitutakoak.

223. *artikulua.*

Tutorea kargutik kentzeko eta desenkusatzeko arrazoiak kuradoretzarako ezarritakoak berak izango dira.

Agintaritzak judizialak kargutik kentzea dekreta dezake adingabeak hala eskatzen badu eta heldutasun nahikoa badu. Betiere adingabearen iritzia kontuan hartuko da, eta hamabi urte baino gehiago baditu, berak esan beharrekoa entzungo da.

Kargutik kentzea deklaratu eta gero, beste tutore bat izendatu behar da kode honetan ezarritako moduan.

3. atala. Tutoretzan aritzea

224. artikulua.

Kuradoretzaren arauak tutoretzari aplikatzekoak dira ordezeko moduan.

225. artikulua.

Tutorea adingabearen ordezkaria da, salbu eta adingabeak bere kabuz burutu ahal dituen egintzetarako edo laguntza baino behar ez duen egintzetarako.

226. artikulua.

Tutorearentzat debekaturik dago:

1. Tutoretzapekoak edo horren kausadunek egindako eskuzabaltasunak jasotzea, kudeaketa behin betiko onesten ez den artean.
2. Tutoretzapekoa ordezkatzeari, karguan diharduenak egintza berean esku hartzen duenean bere izenean edo beste inoren izenean, horren ondorioz interes-gatazka sortuz.
3. Tutoretzapekoaren ondasunak kostu bidez eskuratzea, edo, titulu berberaren bidez, tutoretzapekoari ondasunak eskualdatzea.

227. artikulua.

Tutoreak adingabearen onurarako arituko dira beren karguan, adingabearen nortasunarekin bat etorriz eta haren eskubideak errespetatuz.

Tutoreek agintaritzaren laguntza eska dezakete tutoretzan jarduteko, horren beharra dutenean.

228. artikulua.

Tutoreari dagokio tutoretzapekoa jagotea, eta, bereziki:

1. Hura zaintzea eta mantenua ematea.
2. Adingabea heztea eta oso-osoko heziketa ematea.
3. Hobeto gizarteratu dadin eragitea.
4. Adingabearen ondarea administratzea behar adinako arretarekin.
5. Urtero-urtero, agintaritza judizialari informazioa ematea adingabearen egoerari buruz, eta administrazioaren urteko kontu-arrazoiak ematea.
6. Adingabeari entzutea, eragiten dioten erabakiak hartu aurretik.

229. artikulua.

Tutoreak eskubidea du ordainsaria jasotzeko, tutoretzapekoaren ondareak hori ahalbidetzen badu, bai eta justifikatutako gastuen diru-itzulketarako ere. Diru kopuru horiek adingabearen ondarearen kargura ordainduko dira.

Gurasoek besterik ezarri ez badute, agintaritza judizialari dagokio ordainsariaren zenbatekoa eta berori jasotzeko modua finkatzea, eta, horretarako, kontuan hartuko ditu egin beharreko lana, eta ondasunen balioa eta errentagarritasuna. Betiere agintaritza judizialak aldatu egin dezake gurasoek ezarritakoa, adingabearen intereserako komeni dela uste badu.

Ezar daiteke, halaber, tutoreak beregana ditzala tutoretzapekoaren ondasunek sortzen dituzten fruituak, tutoretzapekoari mantenua ematearen truk, gurasoek hala xedatu badute. Agintaritza judizialak ondorerik gabe utz dezake aurreikuspen hori, edo berori ezar dezake nahiz eta gurasoek ezer xedatu ez izan, adingabearen intereserako komeni dela uste badu.

230. artikulua.

Tutore-eginkizuna betetzean, norbaitek kalte-galerak izan baditu berak ezelako errurik izan gabe, eta ez badago beste biderik kalte-ordaina lortzeko, kaltetun horrek kalte-galeron ordaina eskuratzeko eskubidea izango du tutoretzapekoaren ondasunen kontura.

4. atala. Tutoretza azkentzea eta azken kontu-arrazoiak ematea

231. artikulua.

Tutoretza azkentzen da:

1. Adingabeak adin-nagusitasuna lortzen duenean, emantzipatzen denean edo adin-nagusitasunaren onura ematen zaionean.
2. Adingabea adoptatzen dutenean.
3. Adingabea hiltzen denean edo haren heriotza deklaritzen denean.
4. Guraso-ahala kendu nahiz eteteagatik tutoretza eratu eta gero ahalaren titularrak hura berreskuratzen duenean, edo guraso-ahalaren titularrari hura egitez egikaritzea eragozten zion arrazoia desagertzen denean.

232. artikulua.

Tutoreak, urtero kontu-arrazoiak emateko duen betebeharrak gain, bere eginkizunak bukatzean bere administrazioari buruzko kontu orokor eta egiaztatua eman beharko dio agintaritzari judizialari, hiru hilabeteko epean; epe hori behar adina luza daiteke, horretarako arrazoi zuzena izanez gero.

Bost urte igarotakoan preskribatzen du kontu-arrazoiaren emate hori eskatzeko akzioak; epe horren zenbaketa hasten da, kontu-arrazoiaren ematea gauzatzeko zein epe ezarri eta hori igaro denetik.

Kontu-arrazoiaren onespenera buruz ebazpena eman baino lehen, agintaritzari judizialak entzungo die halaber tutore berriari, halakorik bada, eta tutoretzapean egondako pertsonari edo horren jaraunsleei.

Agintaritzari judizialak kontu-arrazoiak onesteak ez du eragotziko tutoreak eta adingabeak edo horren kausadunek egikaritzea tutoretza dela-eta elkarren aurka dituzten akzioak.

233. artikulua.

Tutoretzapean egon den pertsonaren ondarearen kargura ordainduko dira kontu-arrazoiak emateko beharrezkoak diren gastuak.

Kontu orokorraren saldoak legezko korrituak sortuko ditu tutorearen mesederako nahiz horren kalterako. Saldoa tutorearen mesederako bada, saldo horrek legezko korrituak sortuko ditu, titularrari bere ondasunak itzuli eta gero ordainketa eskatzen denetik. Saldoa tutorearen kalterako bada, saldo horrek legezko korrituak sortuko ditu, kontua onetsi eta hiru hilabete igarotakoan.

234. artikulua.

Tutorea bere erruz edo zabarkeriaz adingabeari eragiten dizkion kalteen erantzule izango da.

Erantzukizun hori erreklamatzeko akzioak preskribatuko du azken kontu-arrazoiak ematen direnetik hiru urtera.

II. KAPITULUA

Adingabearen defendatzaile judiziala

235. artikulua.

Adingabearen defendatzaile judiziala izendatuko da kasu hauetan:

1. Gai zehatz baten inguruan interes-gatazka badago adingabeen eta beren legezko ordezkarien artean, salbu eta legeak hori gainditzeko beste bideren bat ezartzen duenean.

2. Arrazoa edozein dela, tutoreak bere zereginak ez baditu betetzen, arrazoi hori amaitu arte edo beste pertsona bat izendatu arte.

3. Adingabe emantzipatuak 247. eta 248. artikuluetan aurreikusten den gaitasun-osagarriaren beharra izan, eta eman behar diotenek ezin badiote eman, edo interes-gatazka badago haiekin.

236. artikulua.

Adingabearen defendatzaileari aplikatzekoak izango dira desgaitasuna duten pertsonen defendatzaile judizialaren arauak. Defendatzaile judiziala adingabearen onurarako arituko da bere karguan, adingabearen nortasunarekin bat etorritik eta haren eskubideak errespetatuz.

III. KAPITULUA

Adingabearen egitezko zaintza

237. artikulua.

1. Agintaritza judizialak egitezko zaintzailerik badela jakin dakienean, zaintzaile horri eska diezaioke informazioa eman dezan, dela adingabearen egoerari buruz eta hark dituen ondasunen egoerari buruz, dela zaintzaileak haienganako izan duen jardunari buruz; eta kontrol- eta jagoletza-neurriak ezar ditzake bere ustez horiek egokiak badira.

Kautela-neurri gisa, egitezko zaintza-egoera egon bitartean eta babes-neurri egokia eratu arte, bidezkoa bada, judizialki eman ahal izango zaizkie tutoretza-eskumenak zaintzaileei. Era berean, aldi baterako harrera eratu ahalko da, eta zaintzaileak harreragile izango dira.

2. Adingabeen desanparo-egoeraren adierazpena bidezkoa izango da, egoera horrez gainera, 172. artikuluan aurreikusten den laguntza ezaren egoera gertatzen denean.

Gainerako kasuetan, egitezko zaintzaileak guraso-ahalaren etetea edo gabetzea, tutorea kargutik enkaitzea edo tutorearen izendapena sustatu ahal izango ditu.

238. artikulua.

Desgaitasuna duten pertsonen egitezko zaintzaren arauak adingabearen egitezko zaintzari aplikatzekoak dira, ordezkari moduan».

Hogeita bi. I. liburua X. titulua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita, izenburu eta eduki hauekin:

«X. TITULUA

Adin-nagusitasuna eta emantzipazioa239. *artikulua.*

Emantzipazioa gertatzen da:

1. Adin-nagusitasuna lortzean.
2. Guraso-ahala egikaritzen dutenek hura ematen dutenean.
3. Epaileak hura ematen duenean.

240. *artikulua.*

Adin-nagusitasuna hasten da hemezortzi urte betetakoa.

Adin-nagusitasunaren urteak zenbatzeko, jaioteguna aintzat hartu behar da oso-oso.

241. *artikulua.*

Guraso-ahala egikaritzen dutenek emantzipazioa eman dezaten, beharrezkoa da adingabeak hamasei urte izatea eta adingabe horrek emantzipazioari adostasuna ematea. Emantzipazio hori eman daiteke eskritura publikoaren bidez edo Erregistro Zibilararen arduradunaren aurrean egindako agerraldiaren bidez.

242. *artikulua.*

Emantzipazioa emanaz gero, hori Erregistro Zibilean inskribatu behar da, eta, bien bitartean, emantzipazioak ez du ondorerik sortuko hirugarrenen aurka.

Behin emantzipazioa eman eta gero, ezin da hori ezeztatu.

243. *artikulua.*

Hamasei urtekoa baino nagusiagoa den semea edo alaba bere buruz bizi bada gurasoen adostasunarekin, hori emantzipatutzat joko da ondore guztietarako. Gurasoek adostasun hori ezezta dezakete.

244. *artikulua.*

Agintaritza judizialak emantzipazioa eman diezaieke hamasei urtekoak baino nagusiagoak diren seme-alabei, horiek hala eskatzen badute eta horien gurasoei entzun eta gero:

1. Guraso-ahala egikaritzen duena beste gurasoa ez den pertsona batekin ezkontzen denean edo horrekin ezkondu-bizimodua egiten duenean.
2. Gurasoak bananduta bizi direnean.
3. Guraso-ahalaren egikaritza modu larrian oztopatzen duten arrazoietatik edozein gertatzen denean.

245. *artikulua.*

Era berean, agintaritza judizialak, Fiskaltzaren txostena jaso ondoren, adin-nagusitasunaren onura eman diezaioke hamasei urtekoa baino nagusiagoa den tutoretzapekoari, tutoretzapeko horrek hala eskatzen badu.

246. *artikulua.*

Adin nagusikoak bizitza zibileko egintza guztiak gauzatu ditzake, kode honek kasu berezietarako ezartzen dituen salbuespenetan izan ezik.

247. *artikulua.*

Emantzipazioaren ondorioz, adingabea gaituta dago bere burua eta ondasunak gobernatzeko, adin nagusiko izango balitz bezala; baina, adin-nagusitasunera heldu arte, emantzipatuak ezin izango du dirua maileguan hartu, ezta ondasun higiezinak, merkataritza nahiz industriako establezimenduak edo balio berezia duten objektuak kargatu eta besterendu ere, bere gurasoen adostasunik gabe, eta, bi-biok izan ezean, defendatzaile judizialaren adostasunik gabe.

Adingabeko emantzipatua bere kabuz ager daiteke epaiketan.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatu behar zaio epaiketaren bidez adin-nagusitasunaren onura lortu duen adingabeari ere.

248. *artikulua.*

Adingabe ezkonduak ondasun higiezinak, merkataritzako establezimenduak edo balio berezia duten objektu komunak besterendu edo kargatu ditzan, nahiko da bi ezkontideen adostasuna, beste ezkontidea adin nagusikoa bada; bestea ere adingabea bada, bi-bion adostasuna ez ezik, behar da bataren eta bestearen gurasoen edo defendatzaile judizialaren adostasuna ere bai».

Hogeita hiru. Aldatu egiten da I. liburuaren XI. titulua, eta honela geratzen da idatzita, izenburu eta eduki hauekin:

«XI. TITULUA

Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko neurriak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak249. *artikulua.*

Beren gaitasun juridikoa modu egokian egikaritzeko laguntza behar duten adin nagusikoentzako edo adingabe emantzipatuentzako laguntza-neurriek helburu izango dute haien nortasuna erabat garatzea eta juridikoki jardutea, berdintasun-baldintzetan. Laguntza-neurri horiek pertsonaren duintasunaren errespetua eta haren oinarrizko eskubideen babesa izan behar dituzte oinarri. Lege-jatorria edo jatorri judiziala dutenak bidezkoak izango dira soilik pertsonak batere borondaterik ez duenean edo borondate nahikorik ez duenean. Neurri guztietan gorde behar dira premia- eta proportzionaltasun-printzipioak.

Laguntza ematen duten pertsonen hartzaitzailearen borondatea, nahiak eta lehentasunak aintzat hartuta jardun behar dute. Ahaleginduko dira, halaber, desgaitasuna duen pertsonak bere erabakiak hartzeko prozesua garatu ahal dezan, informazioa emanez, erabakiak ulertzen eta arrazoitzen lagunduz eta bere lehentasunak adierazteko modua erraztuz. Era berean, sustatuko dute desgaitasuna duen pertsonak etorkizunean laguntza gutxiagorekin egikaritu ahal dezan bere gaitasun juridikoa.

Salbuespenezko kasuetan, ahaleginak egin arren ezin badira zehaztu pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak, ordezkartza-eginkizunak ere bildu ahalko dira laguntza-neurrietan. Horrelakoetan, eginkizun horietan ari denak kontuan hartu beharko du zer bizi-ibilbide izan duen desgaitasuna duen pertsonak, zer sinesmen eta balio dituen eta zer faktore hartuko lituzkeen aintzat erabakia hartzeko baldin eta ordezkartza-eginkizunaren beharrik ez balu.

Agintaritza judizialak egokitzen jotzen dituen babesak ezarri ahalko ditu laguntza-neurriak gauzatzean manu honetatik ondorioztatzen diren irizpideak bete daitezten,

eta, bereziki, aintzat har daitezen laguntza-neurriak behar dituen pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak.

250. artikulua.

Gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten pertsonentzako laguntza-neurriak dira, borondatezko neurriez gainera, egitezko zaintza, kuradoretza eta defendatzaile judiziala.

Laguntza-neurrien funtzioa izango da desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzea, hala behar den arloetan, haren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz.

Borondatezko laguntza-neurriak desgaitasuna duen pertsonak ezarritakoak dira; horien bidez adierazten du nork eman behar dion laguntza, eta norainoko laguntza emango dion. Borondatezko laguntza-neurriekin batera, behar diren babesak ezar daitezke, pertsonaren borondatearen, nahien eta lehentasunen errespetua une eta egoera orotan bermatzeko.

Egitezko zaintza laguntza-neurri informala da. Horrelako laguntza eman daiteke baldin eta ez bada eraginkortasunez aplikatzen ari den borondatezko neurri edo neurri judizialik.

Kuradoretza laguntza-neurri formala da, eta etengabeko laguntza behar dutenei aplikatzen zaie. Haren norainokoa kasuan kasuko ebazpen judizialean zehazten da, desgaitasuna duen pertsonaren egoera eta inguruabarrak eta laguntza-premiak kontuan hartuta.

Defendatzaile judiziala izendatzea, laguntza-neurri formal gisa, bidezkoa izango da laguntzaren premia aldizka agertzen denean, egoera hori behin eta berriz gertatzen bada ere.

Laguntza-neurriak erabakitzerakoan, interes-gatazkak edo behar ez diren eraginak gerta daitezkeen egoerak saihestuko dira, ahal den heinean.

Ezingo dute laguntza-neurriak gauzatu laguntza behar duen pertsonari kontratuzko harreman baten bitartez laguntza- edo egoitza-zerbitzuak edo antzekoak ematen dizkiotenek.

251. artikulua.

Laguntza-neurriren bat gauzatzen duenarentzat debekaturik dago:

1. Laguntza behar duen pertsonak edo haren kausadunek egindako eskuzabaltasunak jasotzea, kudeaketa behin betiko onesten ez den artean, salbu eta ohiturazko opariak edo balio txikiko ondasunak direnean.

2. Egintza batean laguntza-neurriak gauzatu, eta egintza berean esku hartzea bere izenean edo beste inoren izenean, horren ondorioz interes-gatazka sortuz.

3. Laguntza behar duen pertsonaren ondasunak kostu bidez eskuratzea, edo, titulu berberaren bidez, hari ondasunak eskualdatzea.

Borondatezko laguntza-neurrietan, aurreko debekuak ez dira aplikatuko baldin eta neurri horiek eratzeko agirian debekuok berariaz baztertu baditu egileak.

252. artikulua.

Norbaitek dohainik ondasunak xedatzen baditu laguntza behar duen pertsona baten onurarako, ondasunok administratzeko eta xedatzeko erregelak ezar ditzake, eta ahalmen horiek emango zaizkien pertsona edo pertsonak izenda ditzake. Administratzaileari ematen ez zaizkion ahalmenak ondasunen xedapenaren onuradunari egokituko zaizkio, eta horiek egikaritzeko laguntza egokia jasoko du, behar izanez gero.

Emandako ahalmenak nola egikaritzen diren kontrolatu edo gainbegiratzeko egokitut jotzen dituzten organoak ere ezar ditzakete.

253. *artikulua.*

Norbait bere gaitasun juridikoa egikaritzeko presako laguntzaren beharrea dagoenean, egitezeko zaintzailerik ez badu, behin-behinean laguntza emango dio kasuan kasuko lurraldean eginkizun horren ardura duen erakunde publikoak. Erakundeak egoeraren jakitun jarriko du Fiskaltza hogeita lau orduko epean.

II. KAPITULUA

Borondatezko laguntza-neurriak*1. atala. Xedapen orokorrak*254. *artikulua.*

Adin-nagusitasuna lortu aurreko bi urteetan zentzuz uste bada guraso-ahalaren edo tutoretzaren pean dagoen adingabeak adin-nagusitasuna lortutakoan laguntza beharko duela bere gaitasun juridikoa egikaritzeko, agintaritzak judizialak erabaki ahalko du –adingabeak berak, gurasoek, tutoreak edo, beharrezkoa baderitzo, Fiskaltzak eskaturik– bidezkoa dela laguntza-neurri egokia ezartzea adingabea izateari uzten dionerako. Hamasei urtetik gorakoak adin-nagusitasunerako bere aurreikuspenak egin ez baditu, neurri horiek hartuko dira. Bestela, adingabeari prozesuan parte hartzen utziko zaio, eta aintzat hartuko dira haren borondatea, nahiak eta lehentasunak.

255. *artikulua.*

Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua den edozein pertsonak, bere gaitasun juridikoa gainerakoen baldintza berberetan egikaritzea eragoz diezaioketen inguruabarrak hautematen edo aurreikusten baditu, bere buruarentzako edo bere ondasunetarako laguntza-neurriak aurreikusi edo erabaki ahalko ditu eskritura publikoan.

Horrez gain, jarduketa-araubidea, laguntzailearen edo laguntzaileen ahalmenen norainokoa edota laguntza gauzatzeko modua ezarri ahalko ditu. Laguntza 249. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik gauzatu da.

Halaber ezarri ahalko ditu egoki deritzen kontrol-neurri edo -organoak, abusu, interes-gatazka edo bidegabeko eraginak saihesteko behar diren babesak, eta laguntza-neurrien berrikuspenerako mekanismoak eta epeak, helburua izanik bere borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuko direla bermatzea.

Ofizios eta luzamendurik gabe, notario eskuesleak laguntza-neurriak biltzen dituen agiri publikoaren berri emango dio Erregistro Zibilari, egilearen erregistro indibidualean jaso dadin.

Borondatezko neurriak ezean edo daudenak nahiko ez direnean eta behar adinako laguntza eman dezakeen egitezeko zaintzailerik ez dagoenean baino ezingo ditu hartu neurri osagarriak edo ordezkokoak agintaritzak judizialak.

*2. atala. Prebentziozko ahalorde eta mandatuak*256. *artikulua.*

Ahalorde-emaileak klausula batean jarri ahalko du ahalordeak iraun egingo duela berak etorkizunean laguntzaren beharra badauka bere gaitasuna egikaritzeko.

257. *artikulua.*

Ahalorde-emaileak ahalordea eman dezake berak etorkizunean bere gaitasuna egikaritzeko laguntza beharko balu ere, eta kasu horretan soilik aplikatu da. Horrelakoetan, ahalorde-emaileak laguntza behar duela egiaztatuzko, beraren

aurreikuspenak beteko dira. Aurreikuspen horiek beteko direla bermatzeko, behar izanez gero, notario-akta egiletsiko da, eta hor, notarioaren iritziaz gainera, adituxosten bat jasoko da helburu bererako.

258. *artikulua.*

Aurreko artikuluetan aipatutako ahalordeek indarrean iraungo dute ahalorde-emailearen onurarako beste laguntza-neurri batzuk eratu arren, judizialki ezarritako neurriak izan nahiz interesdunak berak aurreikusitakoak izan.

Ahalordeduna ahalorde-emailearen ezkontidea edo izatezko bikotekidea denean, elkarrekin bizitzeari uzteak ahalordea azkentzea ekarriko du besterik gabe, salbu eta ahalorde-emaileak kontrakoa nahi duela adierazten badu edo elkarrekin bizitzeari uzteko arrazoia ahalorde-emailea barneratzea bada.

Ahalorde-emaileak, ahalmenak emateaz gainera, egoki deritzen kontrol-neurri edo -organoak ezarri ahalko ditu, baita ahalmenak egikaritzeko baldintzak eta jarraibideak, abusu, interes-gatazka edo bidegabeko eraginak saihesteko behar diren babesak eta laguntza-neurrien berrikuspenerako mekanismoak eta epeak ere, helburua izanik bere borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuko direla bermatzea. Ahalordea azkentzeko modu espezifikoak ere aurreikusi ahalko ditu.

Laguntzak emateko prozedura eskatzeko legitimatutako edonork eta, halakorik bada, kuradoreak prebentziozko ahalordeak azkentzeko eskatu ahalko dute judizialki, baldin eta kuradorea kargutik kentzeko aurreikusitako kausaren batek ahalordedunarengan eragina badu, salbu eta ahalorde-emaileak besterik aurreikusi duenean.

259. *artikulua.*

Ahalordean iraupen-klausula badago ahalorde-emaileak etorkizunean bere gaitasuna egikaritzeko laguntza beharko balu ere, edo horretarako bakarrik ematen bada ahalordea, eta, bi kasuetan ere, ahalordeak ahalorde-emailearen negozio guztiak biltzen baditu, ahalordedunak, laguntza-beharra gertatzen denean, kuradoretzari aplikatzen zaizkion arauak bete beharko ditu ahalordean jasota ez dagoen guztian, ahalorde-emaileak besterik zehaztu ez badu.

260. *artikulua.*

Aurreko artikuluetan aipatzen diren prebentziozko ahalordeak eskritura publikoan egiletsi behar dira.

Notario eskuesleak horien berri emango dio Erregistro Zibilari, ofizioz eta luzamendurik gabe, ahalorde-emailearen erregistro indibidualean jaso daitezen.

261. *artikulua.*

Ordezkaritza-ahalmenak pertsonalki egikaritu behar dira, baina egintza zehatz bat edo batzuk egiteko ardura beste norbaiten esku utz daiteke. Pertsona babestea helburu duten ahalmenak ezin dira eskuordetu.

262. *artikulua.*

Kapitulu honetan xedatutakoa ahalorderik gabeko mandatuei ere aplikatuko zaie.

III. KAPITULUA

Desgaitasuna duten pertsonen egitezko zaintza

263. artikulua.

Desgaitasuna duen pertsona baten egitezko zaintzan egokiro aritu izan denak eginkizun horretan jarraituko du, baita borondatezko laguntza-neurriak edo laguntza-neurri judizialak daudenean ere, baldin eta neurri horiek eraginkortasunez aplikatzen ari ez badira.

264. artikulua.

Egitezko zaintzaileak salbuespenez ordezkari jardutea beharrezkoa denean, horretarako baimena eskuratu beharko du borondatezko jurisdikzioko espedientearen bitartez, eta, espediente horretan, desgaitasuna duen pertsonari entzungo zaio. Ordezkari jarduteko baimen judizialak kasu bakoitzerako baldintza eta betekizun egokiak izango ditu, eta bera eman aurretik egiaztatu egingo da beharrezkoa dela. Baimenak laguntza-eginkizuna bete ahal izateko egintza bat edo gehiago bil dezake, eta desgaitasuna duen pertsonaren borondatearekin, nahiekin eta lehentasunekin bat etorritz baliatu behar da.

Beti ere, egitezko zaintzaileak baimen judiziala eskatu beharko du, aurreko paragrafoan adierazitako eran, 287. artikuluan zerrendatutako egintzetan adostasuna emateko.

Ez da baimen judizialik beharko zaintzaileak prestazio ekonomikoa eskatzen duenean desgaitasuna duen pertsonarentzat, baldin eta prestazio horrek ez badu nabarmen aldatzen pertsonaren bizimodua, edo haren ondasunen gaineko egintza juridikoak egiten dituenean, ondasunok garrantzi ekonomiko txikikoak izanik eta pertsonarentzat edo familiarentzat esanahi berezirik gabekoak.

Agintaritza judizialak defendatzaile judiziala izendatzea erabaki ahalko du gaiaren izaera ikusita beharrezkoa iruditzen zaionean.

265. artikulua.

Borondatezko jurisdikzioko espediente baten bidez, agintaritza judizialak errekerimendua egin ahalko dio zaintzaileari noiznahi, ofizioz, Fiskaltzak eskaturik edo zeinahi interesdunek eskaturik, zaintzaile horrek bere jardunari buruzko informazioa eman dezan; eta beharrezkotzat jotzen dituen babesak ezarri ahalko ditu.

Halaber, zaintzaileari bere jardunaz kontu eman dezan eskatu ahalko dio noiznahi.

266. artikulua.

Zaintzaileak eskubidea du justifikatutako gastuen diru-itzulketa jasotzeko, baita zaintzaren ondoriozko kalteen ordaina ere, lagundutako pertsonaren ondasunen kargura.

267. artikulua.

Egitezko zaintza azkentzen da:

1. Lagundutako pertsonak laguntza beste modu batera antola dadila eskatzen duenean.
2. Zaintza eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean.
3. Zaintzaileak bere jardunean atzera egiten duenean; kasu horretan, aurretiaz jakitun jarri beharko du kasuan kasuko lurraldean desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta laguntza sustatzeko eginkizunak dituen erakunde publikoa.

4. Agintaritza judizialak egokitzen jotzen duenean, Fiskaltzak eskaturik nahiz zaintzapeko pertsonari laguntzen jardun nahi duen norbaitek eskaturik.

IV. KAPITULUA

Kuradoretza

1. atala. Xedapen orokorrak

268. artikulua.

Laguntzak ezartzeko prozeduran agintaritza judizialak hartzen dituen neurriak jasotzailearen beharrezko neurrikoak izango dira, pertsona horrek bere gaitasun juridikoa egikaritzean autonomiarik handiena izatea errespetatuko dute beti, eta une oro aintzat hartuko dituzte haren borondatea, nahiak eta lehentasunak.

Epaileak erabakitako laguntza-neurriak aldian behin berrikusiko dira; gehienez ere, hiru urtean behin. Hala ere, agintaritza judizialak, salbuespenez eta modu arrazoituan, laguntzak ezartzeko edo aldatzeko prozeduran, berrikuspen-epe luzeagoa ezar dezake, gehienez ere sei urtekoa.

Aurrekoa gorabehera, epaileak erabakitako laguntza-neurriak berrikusi egingo dira pertsonaren egoeraren aldaketaren bat dela-eta neurriak aldatzea beharrezkoa izan daitekeen guztietan.

269. artikulua.

Agintaritza judizialak kuradoretza eratuko du ebazpen ziodunaren bidez, ez badago behar adinako beste laguntza-neurririk desgaitasuna duen pertsonarentzat.

Agintaritza judizialak zehaztuko du pertsonak zein egintzatan behar duen kuradorearen laguntza bere gaitasun juridikoa egikaritzeko. Horretarako, kontuan hartuko ditu pertsonaren laguntza-premia zehatzak.

Salbuespenezko kasuetan bakarrik, desgaitasuna duen pertsonaren inguruabarrak direla-eta ezinbestekoa denean, agintaritza judizialak ebazpen ziodunean zehaztuko du kuradoreak zein egintza zehaztuetan hartu behar duen bere gain desgaitasuna duen pertsonaren ordezkaritza.

Zehatz-mehatz finkatuko da zer egintzatan eman behar duen laguntza kuradoreak, eta adieraziko da, kasua bada, zer egintzatan jardun behar duen ordezkari. Kuradoreak 249. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituko die.

Ebazpen judizialak ezingo du inola ere eskubide-gabetze hutsa ezarri.

270. artikulua.

Agintaritza judizialak, kuradoretza eratzeko ebazpenean edo geroko beste batean, egokitzen jotzen dituen kontrol-neurriak ezarriko ditu, laguntza behar duen pertsonaren eskubideen, borondatearen eta lehentasunen errespetua bermatzeko eta, halaber, abusuak, interes-gatazkak eta behar ez den eragina saihesteko. Gainera, kuradoreari noiznahi eskatu ahalko dio informazioa eman dezala, bere eginkizunen esparruan, laguntza behar duen pertsonaren edo haren ondarearen egoerari buruz.

Ebazpen horiek aldian behin berrikustea ezertan galarazi gabe, Fiskaltzak noiznahi eskatu ahalko du beharrezkotzat jotzen duen informazioa, kuradoretzaren funtzionamendu ona bermatzeko.

2. atala. Autokuradoretza eta kuradorea izendatzea

1. azpiatala. Autokuradoretza

271. artikulua.

Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua den edozein pertsonak, bere gaitasun juridikoa gainerakoen baldintza berberetan egikaritzea eragoz diezaioketen inguruabarrak gertatuko balira ere, eskritura publikoan proposatu ahalko du pertsona jakin bat edo batzuk kuradoretzarako izendatzea edo baztertzea.

Orobat ezarri ahalko ditu kuradoretzaren funtzionamenduari eta edukari buruzko xedapenak –bereziki, bere buruaren zaintzari buruzkoak–, bere ondasunak administratzeko eta xedatzeko arauak, kuradorearen ordainsariak, inbentarioa egiteko betebeharra edo inbentarioaren lekapena, eta zaintza- eta kontrol-neurriak, bai eta horiek gauzatuko dituzten pertsonak proposatu ere.

272. artikulua.

Izendapen-proposamenak eta aurreko artikuluan azaltzen diren gainerako borondatezko xedapenek agintaritza judiziala lotetsiko dute kuradoretza eratzean.

Hala ere, agintaritza judizialak borondatezko xedapen horiek baztertu ahalko ditu osorik edo partzialki, ofizioz, edo kuradoretzara legez deitutako pertsonak nahiz Fiskaltzak hala eskaturik, eta betiere ebazpen ziodunaren bidez, baldin eta xedapenok egin zituen pertsonak ezagutzen ez zituen inguruabar larriak agertu badira, edo xedapenetan adierazi edo ustez aintzat hartu zituen arrazoiak aldatu badira.

273. artikulua.

Baldin eta, autokuradoretza ezartzean, kuradorearen ordezkioak izendatzea proposatzen bada eta ordezkapenen hurrenkerarik zehazten ez bada, geroagoko agirian proposatutako ordezkioa hobetsiko da. Agiri berean zenbait ordezkio proposatzen badira, lehenik proposatutakoa hobetsiko da.

274. artikulua.

Ezkontidearen edo beste norbaiten esku utzi ahalko da kuradorea hautatzea interesdunak eskritura publikoan zerrendatutakoen artetik.

2. azpiatala. Kuradorea izendatzea

275. artikulua.

1. Kuradore izan daitezke adin nagusiko pertsonak, baldin eta, agintaritza judizialaren iritziz, eginkizun hori egoki betetzeko gai badira.

Kuradore izan daitezke, halaber, fundazioak eta irabazi-asmorik gabeko gainerako pertsona juridikoak, publiko zein pribatuak, xedetzat badute, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonen autonomia sustatzea eta haiei laguntzea.

2. Ezin dira kuradore izan:

1.a Laguntza behar duen pertsonak baztertu dituenak.

2.a Ebazpen judizialaren bitartez guraso-ahalaren egikaritzea kenduta edo etenda dutenak, edota zaintza eta babeserako eskubideak oso-osorik zein zati batez kenduta edo etenda dituztenak.

3.a Aurreko tutoretza, kuradoretza edo zaintza batean lege-aginduz kargutik kendu dituztenak.

3. Agintaritza judizialak ezingo ditu kuradore izendatu, salbuespenezko eta behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik, pertsona hauek:

1.a Edozein delituren ondorioz kondenatuak izan direnak, hortik funtsez atera badaiteke pertsona horiek ez dutela behar den moduan jardungo kuradoretzan.

2.a Laguntza behar duen pertsonarekin interes-gatazka dutenak.

3.a Konkurtso-prozedura izapidetu bitartean beren administrazio-ahalmenetan ordeztuak izan diren administratzaileak.

4.a Konkurtso batean errudun-deklarazioa egotzi ahal zaienak, salbu eta kuradoretza pertsonaren gainekoa baino ez denean.

276. *artikulua.*

Agintaritza judizialak kuradore izendatuko du laguntza behar duen pertsonak edo hark eskuorde jarritako pertsonak izendapenerako proposatu duena, salbu eta 272. artikuluaen bigarren paragrafoan aurreikusitako inguruabarretatik baten bat gertatzen denean. Agintaritza judizialak 275. artikuluan xedatzen dena ere bete beharko du.

Halako proposamenik ezean, agintaritza judizialak kuradore izendatuko du:

1.a Ezkontidea edo izatez ezkontidearen pareko egoera duena, laguntza behar duen pertsonarekin bizi badira.

2.a Semea, alaba edo ondorengoa. Bat baino gehiago badira, laguntza behar duen pertsonarekin bizi dena hobetsiko da.

3.a Gurasoa, edo, gurasorik ez bada, aurrekoa. Bat baino gehiago badira, laguntza behar duen pertsonarekin bizi dena hobetsiko da.

4.a Laguntza behar duen pertsonarekin bizi den ezkontide edo bikotekideak edo gurasoek testamentuan edo agiri publikoan adierazitako pertsona edo pertsonak.

5.a Egitezko zaintzaile gisa diharduen pertsona.

6.a Kuradoretza behar duen pertsonarekin bizi den neba, arreba, ahaide edo hurrekoa.

7.a Aurreko artikuluaen 1. apartatuko bigarren paragrafoan adierazitako baldintzak biltzen dituen pertsona juridiko bat.

Agintaritza judizialak aurreko apartatuko hurrenkera alda dezake, laguntza behar duen pertsonari entzun eta gero.

Behin entzunda, ez badago argi zer nahi duen, agintaritza judizialak legezko hurrenkera aldatu ahalko du, haren borondatea, nahiak eta lehentasunak ulertu eta interpretatzeko pertsona egokiena izendatuz.

277. *artikulua.*

Kuradore bat baino gehiago izendatzea proposa daiteke, laguntza behar duen pertsonaren borondateak eta beharizanek justifikatzen badute. Bereziki, kargu banatan bereizi ahalko dira pertsonaren kuradorea eta ondasunen kuradorea.

Kuradoretza zenbait pertsonaren esku uzten denean, agintaritza judizialak jardunbidea ezarriko du, laguntza behar duen pertsonaren borondatea errespetatuz.

278. *artikulua.*

Izendapenaren ondoren, kuradorea kuradoretzatik kenduko da baldin eta hura gaitasunik gabe uzteko arrazoiren bat badago; edo kuradoretzan jardutean makur jotzen badu, dela karguari datxezkion eginbeharrak bete ez dituelako, dela ez delako gauza izan kargua betetzeko; edo kuradorearen eta laguntza jasotzen duen pertsonaren artean elkarbizitza-arazo larriak eta etengabeak sortzen badira.

Agintaritza judizialak, hala ofizioz, nola babesza ezarri zitzaion pertsonak eskaturik edo Fiskaltzak eskaturik, bere kabuz edo interesdunen baten bitartez

jakiten duenean kuradoretzan behar den moduan jardutea eragoz dezaketen inguruabarrak gertatu direla, kuradorea kargutik kentzea dekretatu ahalko du borondatezko jurisdikzioko espedientearen bidez.

Kargutik kentzeko espedientea izapidetu bitartean, agintaritza judizialak kuradorearen eginkizunak eten ahalko ditu, eta, beharrezkoa baderitzo, defendatzaile judiziala izendatzea erabakiko du.

Kargutik kentzea judizialki deklaratu eta gero, beste kuradore bat izendatu behar da kode honetan ezarritako moduan, bestelako laguntza-neurri bat egokia denean izan ezik.

279. artikulua.

Kuradorea kuradoretzan aritzetik desenkusa daiteke, kargu horretan jarduteak gehiegizko kargak edo zailtasun larriak dakartzanean izendatutako pertsonarentzat. Era berean, kuradorea kuradoretzan jarraitetik desenkusatu ahalko da, baldin eta horretarako arrazoiak agertzen badira karguan diharduen bitartean.

Pertsona juridiko pribatuak desenkusatu ahalko dira, kuradoretzan behar bezala jarduteko baliabide nahikorik ez dutenean edo kuradoretzan jarduteko baldintzak beren estatutuetako xedeekin bat ez datozenean.

Interesdunak desenkusatzeko arrazoia alegatzen badu, alegazio hori hamabost eguneko epean egin beharko du izendapenaren berri izan duenetik. Desenkusatzeko arrazoia gerora sortutakoa baldin bada, edozein unetan alega daiteke.

Agintaritza judizialak desenkusari buruzko ebazpena ematen ez duen artean, izendatuak eginkizuna gauzatzeko betebeharra du. Hala egin ez eta laguntza eman beharra dagoenean, kuradorearen ordezkotik defendatzaile judiziala izendatuko da, eta kuradoreak erantzun beharko du desenkusak eragindako gastuez, desenkusa onartzen ez bazaio.

Behin desenkusa onartuz gero, beste kuradore bat izendatuko da.

280. artikulua.

Testamentu-xedapen bati jarraituz izendatutako kuradorea kuradoretzatik desenkusatzeko bada, arrazoia edozein dela ere, galdu egingo du testamentugileak izendapen horren ondorioz berari utzitakoa.

281. artikulua.

Kuradoreak ordainsaria jasotzeko eskubidea du, desgaitasuna duen pertsonaren ondareak horretarako bidea ematen badu, eta, orobat, eskubidea izango du justifikatutako gastuen itzulketarako eta berak errurik izan gabe jasandako kalteen ordainerako. Diru kopuru horiek desgaitasuna duen pertsonaren ondarearen kargura ordainduko zaizkio.

Agintaritza judizialari dagokio zenbatekoa eta hura jasotzeko modua finkatzea, eta, horretarako, kontuan hartuko ditu egin beharreko lana eta ondasunen balioa eta errentagarritasuna.

Laguntzak emateko izendatu diren pertsona fisiko edo juridikoak desenkusatzeko arrazoia edo haiek kargutik kentzeko erabakia onartzeak ez du inola ere ekarriko laguntza horiek behar dituen pertsona babesik edo defentsarik gabe geratzea. Agintaritza judizialak ofizioz jardun beharko du, eta beharrezkoa den laguntza emango diote horretara deitutakoek, edo, ezin badu haiengana jo, ezinbestean lagundu beharko diote organismo edo erakunde publiko eskudunek eta Fiskaltzak.

Laguntzak emateko ardura erakunde publiko bati ematen zaionean, ez da desenkusatzeko arrazoirik izango.

3. atala. Kuradoretzan aritzea

282. artikulua.

Kuradorea karguaz jabetuko da Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean. Behin kuradoretzan ari dela, harreman pertsonala izan beharko du lagunduko duen pertsonarekin, eta haren ardurapean utzi diren eginkizunak bete beharko ditu behar adinako arretaz.

Kuradoreak gaitasun juridikoa egikaritzen lagunduko dio laguntza jasotzen duen pertsonari, haren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz.

Kuradorea ahaleginduko da desgaitasuna duen pertsonak erabakiak hartzeko bere prozesua egin dezan.

Kuradorea ahaleginduko da laguntza jasotzen duen pertsonaren gaitasunak sustatzen, etorkizunean laguntza gutxiagorekin egikaritu dezan bere gaitasuna.

283. artikulua.

Kuradorea kasu jakin batean jarduteko ezinduta badago aldi baterako, edo inoiz interes-gatazka sortzen bada kuradorearen eta laguntza jasotzen duen pertsonaren artean, Justizia Administrazioaren letraduak kuradorearen ordezkotzat defendatzaile judiziala izendatuko du. Izendapen horretarako, laguntza behar duen pertsonari entzungo zaio, eta haren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuko dira.

Aurreko paragrafoan azaldutako kasuan, kuradore bat baino gehiago badaude eta denek antzeko eginkizunak badituzte, ezintasunik edo interes-gatazkarik ez duen batek hartuko ditu bere gain eginkizunak.

Ezintasun-egoerak edo interes-gatazkek luze irauten badu edo behin eta berriz gertatzen bada, agintaritza judizialak, ofizioz, Fiskaltzak eskaturik, laguntzak ezartzeko prozedura eskatzeko legitimaturik dagoen edozein pertsonak eskaturik edo kuradoretzan diharduen edozein pertsonak eskaturik, eta desgaitasuna duen pertsonari eta Fiskaltzari entzun ondoren, kuradoretzaren funtzionamendua berrantolatu ahalko du, eta are beste kuradore bat izendatu ere.

284. artikulua.

Agintaritza judizialak, beharrezkotzat jotzen duenean, aparteko arrazoiak tarteko, kuradoreari eskatu ahalko dio fidantza jar dezala bere betebeharrak konplitutuko dituela bermatzeko, eta fidantzaren modalitatea eta zenbatekoa zehaztuko ditu. Behin fidantza jarrita, fidantza horrek epailearen onespena beharko du.

Agintaritza judizialak noiznahi aldatu edo ondorerik gabe utzi ahalko du emandako bermea.

285. artikulua.

Ordezkaritzarako ahalmenak dituen kuradoreak laguntza ezarri zaion pertsonaren ondarearen inbentarioa egin beharko du hirurogei eguneko epean, karguaz jabetzen den egunetik aurrera.

Inbentarioa Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean eratu behar da, haren iritzi egoki diren pertsonen zitzazioa eginda.

Justizia Administrazioaren letraduak lehenengo paragrafoan ezarritako epea luzatu ahalko du, horretarako arrazoiak egonez gero.

Justizia Administrazioaren letraduaren ustez kuradorearen eskuetan utzi behar ez diren dirua, bitxiak, objektu baliotsuak eta balore higigarriak nahiz agiriak horretara bideratutako establezimenduan gordailutuko dira.

Neurri horiek eragiten dituzten gastuak kuradoretzaren laguntza ezarri zaion pertsonaren ondasunen kargura ordainduko dira.

286. *artikulua.*

Kuradoreak ez baditu inbentarioan jasotzen laguntzen duen pertsonaren kontra dituen kredituak, uko egiten diela joko da.

287. *artikulua.*

Laguntza behar duen pertsona ordezkatzeko eginkizunak betetzen dituen kuradoreak epailearen baimena behar du ebazpenak zehazten dituen egintzetarako eta, betiere, hauetarako:

1.a Pertsonarentzat edo familiarentzat garrantzia duten egintzak gauzatzea, ukitutako pertsonak ezin dituen bere kabuz egin; hori guztia, ezertan eragotzi gabe barneratzeari buruz eta osasunaren arloko baimen informatuari buruz legez ezarritakoa edo beste lege berezi batzuetan ezarritakoa.

2.a Laguntza-neurriak dituen pertsonaren ondasun higiezinak, merkataritzako edo industriako establezimenduak, pertsonarentzat zein familiarentzat esanahi berezia duten ondasun edo eskubideak, aparteko balioa duten ondasun higigarriak, objektu baliotsuak eta merkatu ofizialetan kotizatu gabeko balore higigarriak besterentzea edo kargatzea, higiezinak errentan ematea sei urtetik gorako hasierako eperako, edota kontratu edo egintza xedatzaileak eta inskribatzeko modukoak egitea. Salbuespena da akzioak lehenespenez harpidetzeko eskubidearen salmenta. Paragrafo honetan aipatutako ondasunak zuzeneko salmentaren bidez besterenduko dira, salbu eta auzitegiak beharrezkotzat jotzen duenean enkante judizialean besterentzea, titularraren eskubideak eta interesak hobeto eta oso-osoan bermatzeko.

3.a Laguntza-neurriak dituen pertsonaren ondasunak edo eskubideak doan eskuratzea, salbu eta garrantzi ekonomiko nabarmenik eta pertsonarentzat nahiz familiarentzat esanahi berezirik ez dutenak.

4.a Kuradoretzapeko pertsonaren eskubideei uko egitea, edo haren intereseko gaitan transakzioa egitea edo halakoak arbitrajepean jartzea, garrantzi ekonomiko txikia dutenean izan ezik. Ez da epailearen baimenik beharko kontsumo-arbitrajerako.

5.a Edozein jarauntsi inbentario-onurarik gabe onartzea, edo jarauntsi edo eskuzabaltasunak arbuizatzea.

6.a Laguntza jasotzen duen pertsonaren ondasunetan aparteko gastuak egitea.

7.a Laguntza jasotzen duen pertsonaren izenean demanda jartzea, presako gaitan edo balio gutxiko gaitan izan ezik. Ez da epailearen baimenik beharko, baldin eta desgaitasuna duen pertsonak laguntzak ezarri dizkion ebazpen judiziala berrikusteko eskatzen bada.

8.a Dirua maileguan eman edo hartzea eta abala edo fidantza ematea.

9.a Bizi-aseguruko kontratuak, biziarteko errentakoak eta antzekoak egitea, kontratu horietan inbertsio edo ekarpen handiak egin behar direnean.

288. *artikulua.*

Agintaritza judizialak, egokitzat jotzen duenean desgaitasuna duen pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak berma daitezen, kuradoreari baimena eman ahalko dio egintza multzo bat burutzeko, denak izaera berekoak edo jarduera ekonomiko berari dagozkionak; egintza horien funtsezko ezaugarriak eta inguruabarrak zehaztuko ditu.

289. *artikulua.*

Jarauntsia banatu edo gauza komuna zatitzeko, kuradore ordezkariak ez du epailearen baimenik behar; baina, banaketa eta zatiketa egin eta gero, beharrezkoa izango da epaileak haiek onestea. Defendatzaile judiziala izendatu bada

zatiketarako, berak ere epailearen onespena beharko du, ez bada bestelakorik xedatu izendapena egitean.

290. *artikulua.*

Agintaritza judizialak, aurreko artikuluetan jasotako egintzetatik edozein baimendu edo onetsi baino lehen, Fiskaltzari eta laguntza-neurriak dituen pertsonari entzungo die; berebat, berari eskatu zaizkion txostenak eta bere ustez komenigarri direnak bilduko ditu.

4. *atala. Kuradoretza azkentzea*

291. *artikulua.*

Kuradoretza zuzenbide osoz azkentzen da laguntza-neurriak dituen pertsona hiltzen denean edo haren heriotza deklaritzen denean.

Halaber, kuradoretza ebazpen judizialaren bidez azkentzen da jada laguntza-neurri horren beharrik ez dagoenean edo kuradoretzapeko pertsonarentzat egokiagoa den bestelako laguntza bat ezartzen denean.

292. *artikulua.*

Kuradoreak, aldi behin kontu-arrazoiak emateaz gain –agintaritza judizialak betebehar hori ezarri badió–, bere eginkizunak bukatzean bere administrazioari buruzko kontu-arrazoi orokor eta egiaztatua eman beharko dio agintaritza judizialari, hiru hilabeteko epean; epe hori behar den beste luza daiteke, horretarako arrazoi zuzena izanez gero.

Bost urte igarotakoan preskribatzen du kontu-arrazoien emate hori eskatzeko akzioak; epe horren zenbaketa hasten da, kontu-arrazoien ematea gauzatzeko zein epe ezarri eta hori igaro denetik.

Kontu-arrazoien onespeneri buruz ebazpena eman baino lehen, agintaritza judizialak entzungo die halaber kuradore berriari, halakorik bada, eta laguntza jaso duen pertsonari edo haren jaraunsleei.

Epaileak kontu-arrazoiak onesteak ez du eragotziko kuradoreak eta desgaitasuna izan eta laguntza jasotzen duen pertsonak edo haren kausadunek egikaritzea kuradoretza dela-eta elkarren aurka dituzten akzioak.

293. *artikulua.*

Laguntza jaso duen pertsonaren ondarearen kargura ordainduko dira kontu-arrazoiak emateko beharrezkoak diren gastuak.

Kontu orokorraren saldoak legezko korrituak sortuko ditu kuradorearen mesederako nahiz haren kalterako. Saldoa kuradorearen mesederako bada, titularrari bere ondasunak itzuli eta gero ordainketa eskatzen denetik sortuko ditu saldo horrek legezko korrituak. Saldoa kuradorearen kalterako bada, kontua onetsi eta hiru hilabete igarotakoan sortuko ditu saldo horrek legezko korrituak.

294. *artikulua.*

Kuradoreak erantzungo du berak laguntza ematen dion pertsonari bere erruz edo zabarkeriaz eragiten dizkion kalteez.

Erantzukizun hori erreklamatzeko akzioak preskribatuko du azken kontu-arrazoiak ematen direnetik hiru urtera.

V. KAPITULUA

Desgaitasuna duen pertsonaren defendatzaile judiziala

295. artikulua.

Desgaitasuna duten pertsonen defendatzaile judiziala izendatuko da kasu hauetan:

1.a Arrazoa edozein dela, laguntza eman behar duenak ezin duenean hori egin, arrazoi hori desagertu arte edo beste pertsona bat izendatu arte.

2.a Interes-gatazka dagoenean desgaitasuna duen pertsonaren eta laguntza eman behar dion pertsonaren artean.

3.a Kuradoreak desenkusa alegatu eta hura izapidetu bitartean agintaritza judizialak beharrezkotzat jotzen duenean defendatzaile judiziala izendatzea.

4.a Desgaitasuna duen pertsonari laguntzeko neurri judizialak ezartzea sustatu eta agintaritza judizialak beharrezkotzat jotzen duenean ondasunak administra daitezela ebazpen judiziala eman arte.

5.a Desgaitasuna duen pertsonak aldizka duenean laguntza-neurrien premia, egoera hori behin eta berriz gertatzen bada ere.

Desgaitasuna duen pertsonari entzun ondoren, agintaritza judizialak defendatzaile judizial izendatuko du haren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatu, ulertu eta interpretatzeko egokiena den pertsona.

296. artikulua.

Ez da defendatzaile judizialik izendatuko pertsona bati baino gehiagoren esku utzi bada laguntza emateko ardura, salbu eta horietako inork ezin duenean jardun, edo agintaritza judizialak beharrezkotzat jotzen duenean defendatzaile judiziala izendatzea, arrazoiak azalduta.

297. artikulua.

Defendatzaile judizialari kuradorearen gaikuntza ezaren, desenkusaren eta kargutik kentzearen inguruko arrazoiak aplikatuko zaizkio, bai eta lagundutako pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak ezagutu eta errespetatzeko kuradoreak dituen betebeharrak ere.

298. artikulua.

Izendapenean, defendatzaile judiziala salbuetsi ahalko da ondasunak enkante publikoan gutxieneko prezioa finkatuta saldu beharretik eta egintzen ondoko onespén judizialek.

Defendatzaile judizialak, kudeaketa egin ondoren, haren kontu-arrazoiak eman beharko ditu.

VI. KAPITULUA

Inori eragindako kalteengatiko erantzukizuna

299. artikulua.

Desgaitasuna duen pertsonak inori eragindako kalteez erantzungo du, IV. liburuaren XVI. tituluaren II. kapituluarekin bat etorritik, alde batera utzi gabe kontratuz kanpoko erantzukizunari buruz ezarritakoa balizko beste erantzule batzuei dagokienez».

Hogeita lau. Kendu egiten da I. liburuaren egungo XII. titulua.

Hogeita bost. XII. titulua eransten da I. liburuan, izenburu eta eduki hauekin:

«XII. TITULUA

Xedapen erkideak

300. *artikulua.*

Tutoretza-karguei eta desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriei buruzko ebazpen judizialak eta notario-agiri publikoak Erregistro Zibilean inskribatu behar dira».

Hogeita sei. Beste era batera geratzen da idatzita 443. artikulua; honela:

«Pertsona guztiek gauzen gaineko edukitza eskuratu dezakete.

Adingabeek beren ordezkari legitimoen laguntza behar dute edukitzatik berentzat sortzen diren eskubideak erabiltzeko.

Desgaitasuna duten pertsonak, laguntza-neurriak ezarri bazaizkie, horietatik ateratzen den moduan erabil ditzakete edukitzatik sortzen diren eskubideak».

Hogeita zazpi. Honela geratzen da idatzita 663. artikulua:

«Ezin dute testamenturik egin:

1.a Hamalau urtetik beherakoek.

2.a Testamentua egiteko unean beren borondatea eratu edo adierazi ezin dutenek, ezta horretarako bitarteko edo laguntzak baliatuta ere».

Hogeita zortzi. Honela geratzen da idatzita 665. artikulua:

«Desgaitasuna duen pertsonak testamentua egin dezake baldin eta, notarioaren iritziz, bere xedapenen norainokoa ulertzeko eta adierazteko gauza bada. Notarioa ahaleginduko da egilesleak erabakiak hartzeko bere prozesua egin dezan, lagunduko dio prozesu hori ulertzen eta arrazoitzen, eta bere borondatea, nahiak eta lehentasunak adierazteko bidea emango dio, behar diren doikuntzak eginez».

Hogeita bederatzia. Honela geratzen da idatzita 695. artikulua:

«Testamentugileak notarioari ahoz, idatziz edo zeinahi bitarteko tekniko, bitarteko material edo giza bitarteko baliatuz agertuko dio bere azken nahia. Nahi hori aintzat hartuta, notarioak testamentua idatziko du, eta, bertan, testamentu hori egiteko toki, urte, hil, egun eta ordua adieraziko ditu; notarioak testamentugileari ohartaraziko dio testamentua irakurtzeko duen eskubideaz, eta, ondoren, notarioak berak testamentua irakurriko du ozenki, testamentugileak bere borondatea testamentu horrekin bat datorren ala ez adieraz dezan. Hala izanez gero, egintza berean testamentua sinatuko dute testamentugileak, hori egin ahal badu, eta, hala denean, lekukoek eta egintza horretan parte hartu behar duten gainerako pertsonak.

Testamentugileak adierazten badu berak ez dakiela sinatzen edo ezin duela sinatu, lekukoetatik batek sinatuko du testamentugilearen ordezkari eta berak hala eskatuta.

Testamentugileak testamentua irakurtzeko edo haren edukiaren irakurketa entzuteko zailtasuna edo ezintasuna badu, notarioak egiaztatu egingo du, bitarteko tekniko, bitarteko material edo giza bitarteko egokiak erabiliz, testamentugileak beharrezkoak diren informazio eta azalpenak ulertu dituela eta badakiela testamentuan zehatz-mehatz jaso dela bere nahia».

Hogeita hamar. Kendu egiten da 697. artikulua 2. zenbakia, eta 3. zenbakia 2. zenbaki bihurtzen da.

Hogeita hamaika. Beste era batera geratzen da idatzita 706. artikulua hiruugarren paragrafoa; honela:

«Testamentua bide teknikoetatik edozein erabiliz idazten bada, edo, testamentugileak hala eskatuta, beste inork testamentua idazten badu, testamentugileak sinadura jarri behar du testamentuko orri guztien oinean. Testamentua euskarri elektronikoan idazten bada, onartutako sinadura elektronikoa erabiliz sinatu beharko da».

Hogeita hamabi. Honela geratzen da idatzita 708. artikulua:

«Irakurtzen ez dakitenek edo irakurri ezin dutenek ezin dute testamentu itxia egin.

Ikusteko desgaitasuna dutenek bai, egin dezakete, idazteko edo irakurtzeko bitarteko mekanikoak edo teknologikoak erabiliz, betiere kode honetan ezarritako gainerako baliozkotasun-baldintzak betetzen badira».

Hogeita hamahiru. Aldatu egiten da 709. artikulua hasierako tartekia, eta azken paragrafo bat eransten da; hona hemen:

«Hitzik egin ezin dutenek idatzi ahal badute, testamentu itxia egin dezakete hurrengo betez gero:».

«Ikusteko desgaitasuna dutenek, testamentua aurkeztean, hau adierazi behar dute testamentu-azalean, idatzitakoa irakurtzea ahalbidetzen dieten bitarteko mekaniko edo teknologikoen bidez: azal horren barruan haien testamentua dagoela –hura egiteko zer bitarteko erabili duten ere aditzera emango dute– eta testamentuak haien sinadura duela».

Hogeita hamalau. Beste era batera geratzen da idatzita 742. artikulua bigarren paragrafoa; honela:

«Nolanahi ere, testamentu hori baliozkoa izango da, frogatzen denean kaltea testamentugileak nahi gabe eta jakin gabe edo testamentugilea osasun mentaleko nahasmendu larrien eraginpean zegoela gertatu dela; baina testamentu-azala apurtuta edo zigiluak urraturik agertzen badira, orduan, testamentua baliozkoa izan dadin, aurrekoaz gain, testamentuaren kautotasuna frogatu beharko da».

Hogeita hamabost. Beste era batera geratzen da idatzita 753. artikulua; honela:

«Era berean, ez du ondorerik sortuko testamentugileak hura ordezkatzeko duen tutore edo kuradorearen mesederako eginiko testamentu-xedapenak, salbu eta xedapen hori tutoretza edo kuradoretza azkendu eta gero egiten denean.

Osasun- edo laguntza-arrazoiengatik establezimendu publiko edo pribatu batean barneratuta dauden pertsonen beren zaintzaileen mesederako eginiko xedapenak deusezak izango dira zaintzaile horiek establezimenduko titular, administratzaile edo langileak badira. Establezimendu horien mesederako eginiko xedapena ere deuseza izango da.

Kausatzailea zaintzen edo artatzen duten edo antzeko zerbitzuak ematen dizkioten gainerako pertsona fisikoak haren oinordetzan onuradun izan daitezke baldin eta notario-testamentu irekiaren bidezko oinordetza bada.

Hala ere, tutore, kuradore edo zaintzailearen mesederako eginiko xedapenak baliozkoak izango dira, pertsona hori abintestato oinordekoa izateko eskubidea duen ahaidea bada».

Hogeita hamasei. Beste era batera geratzen dira idatzita 756. artikulua 2. zenbakiko hiruugarren paragrafoa eta 7. zenbakia; honela:

«Epai irmo bidez guraso-ahala kenduta duena edo adingabe baten tutoretzaz edo familia-harreraz edo desgaitasuna duen norbaiten kuradoretzaz gabetua izan dena egotz dakioken kausa batengatik, haren jarauntsiari dagokionez».

«7. Desgaitasuna duen norbaiten oinordetza izanez gero, jarauntsirako eskubidea izan eta hari beharrezkoak diren laguntzak eman ez dizkietenak; beharrezko laguntzat hartuko dira Kode Zibilaren 142. eta 146. artikuluetan araututakoak».

Hogeita hamazazpi. Kendu egiten da 776. artikulua.

Hogeita hemezortzi. Honela geratzen da idatzita 782. artikulua:

«Fideikomisozko ordezipenek ezin dute inola ere senipartea kargatu, salbu eta testamentugileak desgaitasun-egoeran den seme edo alaba baten edo batzuen mesederako ezartzen dituenean, 808. artikulua araberan».

Fideikomisozko ordezipena hobekuntzako herenaren gainekoa bada, ondorengo mesederako bakarrik ezar daiteke».

Hogeita hemeretzi. Kendu egiten da 808. artikulua hirugarren paragrafoa, egungo laugarren paragrafoa hirugarren paragrafo bihurtzen da, eta, jarraian, bi paragrafo berri eranstean dira; artikulua hori, beraz, honela geratzen da idatzita:

«Seme-alaben edo ondorengo senipartea osatzen dute gurasoen jarauntsiko bi herenek.

Hala ere, senipartea osatzen duten bi zatietatik bat xeda dezakete gurasoek, euren seme-alabei edo ondorengoei hobekuntza gisa emateko.

Hirugarren zatia xedapen askekoa izango da.

Senipartedunetatik bat edo batzuk desgaitasun-egoeran badira, testamentugileak haien mesederako xedatu ahalko du desgaitasunik gabeko gainerako senipartedunen seniparte hertsia. Hala eginez gero, testamentugileak kontrakorik xedatu ezean, seme edo alaba onuradunak horrela jasotakoa hondarraren fideikomisozko ordezipenarekin kargatuko da, seniparte hertsia atxiki zaien mesederako, eta onuradunak ezingo ditu xedatu ondasun horiek ez doan ez *mortis causa* egintzaren bidez.

Testamentugileak aurreko paragrafoan ematen zaion ahalmena erabiltzen badu, bere seniparte hertsia kargatzea aurkaratzen duen semeari edo alabari dagokio frogatzea ez dagoela karga hori justifikatzen duen arrazoirik».

Berrogei. Beste era batera geratzen da idatzita 813. artikulua bigarren paragrafoa; honela:

«Era berean, testamentugileak ezin du inolako karga, baldintza eta ordezipenik ezarri senipartearen gainean, alargunaren gozamenaren inguruan xedatutakoari kalterik egin gabe eta 782. eta 808. artikuluek ezarritakoari kalterik egin gabe».

Berrogeita bat. Beste era batera geratzen dira idatzita 822. artikulua lehenengo eta bigarren paragrafoak; honela:

«Ohiko etxebizitzaren titularrak horren gaineko biztantz-eskubidea ematen badio, dohaintza edo legatu moduan, desgaitasun-egoeran den senipartedunetako bati, hori ez da zenbatuko seniparteak kalkulatzeko, heriotza-unean bi-biak elkarrekin bizi badira etxebizitza horretan.

Biztantz-eskubide hori lege-aginduz eratxikiko zaio, baldintza berberetan, aurreko paragrafoan azaldutako egoeran den senipartedunari, horrentzat beharrezkoa izan eta hildakoarekin batera bizi bada, salbu eta testamentugileak bestelakoa xedatu edo eskubide hori beren-beregi baztertu duenean; hala ere, biztantzeko eskubidearen titularrak ezin izango du eragotzi gainerako senipartedunak bertan bizitzea, hori haientzat beharrezkoa den bitartean».

Berrogeita bi. Beste era batera geratzen da idatzita 996. artikulua; honela:

«Desgaitasuna duen pertsonak berak onartuko du jarauntsia, salbu eta ezarritako laguntza-neurrietatik bestelakoa ateratzen denean».

Berrogeita hiru. Honela geratzen da idatzita 1041. artikulua:

«Ez dira kolazioaren menpe egongo mantenu- eta hezkuntza-gastuak; gaixotasunak sendatzeko gastuak, nahiz eta gaixotasunok bereziak izan; ikastaldiko gastuak; eta ohiturazko opariak.

Gurasoek edo aurrekoek gastuak egin badituzte seme-alaba edo ondorengoek desgaitasun-egoeran izateagatik dituzten beharrian bereziak betetzeko, gastu horiek ere ez dira kolazioaren menpe egongo».

Berrogeita lau. Beste era batera geratzen da idatzita 1052. artikulua; honela:

«Jaraunskide orok, bere ondasunen gaineko administrazio eta xedapen askea duela, edozein unetan eska dezake jaraunsiaren banaketa. Jaraunskidea absente badago, haren legezko ordezkariak eskatuko dute banaketa. Jaraunskideak desgaitasuna duela-eta laguntza-neurriak baditu, horietan xedatzen den moduan jokatu da».

Berrogeita bost. Aldatu egiten da 1057. artikulua hirugarren paragrafoa, eta artikulua horri laugarren paragrafo bat erantsen zaio. Hona testuak:

«Artikulu honetan eta aurrekoan xedatutakoa bete beharko da, nahiz eta jaraunskideetatik bat guraso-ahalpean edo tutoretzapean egon; dena den, halako kasuetan, kontulari-banatzailerak jaraunspeneko ondasunen inbentarioa egin beharko du, pertsona horien legezko ordezkariak zitazioa eginez.

Jaraunskideak laguntza-neurriak baditu, horietan ezarritako moduan jokatu da».

Berrogeita sei. Honela geratzen da idatzita 1060. artikulua:

«Adingabeek banaketan legezko ordezkariak dutenean, ez da beharrezkoa izango ez esku-hartze ez baimen judizialik, baina tutoreak onespenean beharko du, egindako banaketari dagokionez. Defendatzaile judiziala izendatzen bada adingabea banaketan ordezkatzeko, defendatzaile horrek agintaritzaren onspenean lortu beharko du, salbu eta Justizia Administrazioaren letratuak, izendapena egitean, bestelakoa xedatzen duenean.

Ordezkaritzarako ahalmenak dituen kuradoreak egindako banaketan ere ez da beharrezkoa izango ez baimen ez esku-hartze judizialik. Banaketa egindakoan, haren onspenean beharko da.

Adingabe baten izenean edo laguntza-neurriak ezarri zaizkion pertsona baten izenean banaketan jarduteko izendatutako defendatzaile judizialak banaketa egiten badu, banaketa horrek onspenean beharko du, salbu eta izendapena egitean bestelakoa xedatzen denean».

Berrogeita zazpi. Paragrafo hau jartzen da 1163. artikulua lehenengo paragrafoaren ordez:

«Adingabe bati egindako ordainketa baliozkoa izango da berarentzat onuragarri bihurtu den neurrian. Erregela hori aplikatuko da, halaber, desgaitasuna duen pertsonak, ordainketa jasotzeko laguntza-neurriak izan arren, horrelako laguntzarik gabe jarduten duenean, betiere zorduna edo ordainketa egiten duen pertsona laguntza-neurri horien jakitun izan bada kontratazioaren unean, edo beste nolabait baliatu badu desgaitasun-egoera, horrela bidegabeko abantaila lortuz».

Berrogeita zortzi. Honela geratzen da idatzita 1263. artikulua:

«Emantzipatuta ez dauden adingabeek kontratu hauek egin ditzakete: legeen arabera beren kabuz edo beren ordezkarien laguntzaz egin ditzaketenak, eta beren adinean, gizarte-usadioen arabera, berezkoak diren bizitza arrunteko ondasun eta zerbitzuen gainekoak».

Berrogeita bederatzia. Honela geratzen da idatzita 1291. artikulua 1. zenbakia:

«1.a Tutoreek edo ordezkarietarako ahalmenak dituzten kuradoreek epailearen baimenik gabe egin ahal dituzten kontratuak, baldin eta kontratuok egiten badituzte eurek ordezkatzeko dituzten pertsonen gauzen gainean, eta pertsona horiek jasandako kaltea bada gauzen balioaren laurdenetik gorakoa».

Berrogeita hamar. Paragrafo hau jartzen da 1299. artikulua bigarren paragrafoaren ordez:

«Tutoretzapean dauden adingabeentzat, desgaitasuna duten pertsonentzat – laguntza-neurriak badituzte eta horietan ordezkarietarako ahalmenak ezartzen badira– eta absenteentzat, lau urteok ez dira hasiko, tutoretza edo ordezkarietarako laguntza-neurria azkendu arte edo legezko absentsia-egoera amaitu arte».

Berrogeita hamaika. Honela geratzen da idatzita 1301. artikulua:

«Deuseztasun-akzioa lau urteren buruan iraungiko da. Epe horren zenbaketa hasiko da:

- 1.a Larderia- edo indarkeria-kasuetan, horiek amaitzen diren egunetik.
- 2.a Oker- zein dolo-kasuetan, edo karia faltsua denean, kontratua gauzatzen denetik.
- 3.a Akzioa adingabeek egindako kontratuei buruzkoa denean, horiek guraso-ahalpetik edo tutoretzapeatik irteten direnetik.
- 4.a Akzioa desgaitasuna duten pertsonen egindako kontratuei buruzkoa denean, kontratuok egitean ez direlako erabili ezarritako laguntza-neurriak, beharrezkoak izan arren: kontratua egiten denetik.
- 5.a Akzioaren helburua bada ezkontide batek, bestearen adostasuna behar eta hori izan gabe, burutzen dituen egintza edo kontratuak baliogabetzea, orduan, ezkontzako sozietatea edo ezkontza bera desegiten denetik, salbu eta aurretiaz behar besteko berriak izan direnean egintza edo kontratu horren inguruan».

Berrogeita hamabi. Honela geratzen da idatzita 1302. artikulua:

«1. Kontratuak deuseztatzeko akzioa egikari dezakete kontratu horien ondorioz betebeharreko nagusi edo subsidiario direnek.

2. Adingabeek egindako kontratuak haien legezko ordezkariak deuseztatu ahaliko dituzte, edo adingabeek berek, behin adin-nagusitasuna lortu eta gero. Salbuespen gisa har daitezke adingabeek beren kabuz baliozkotasunez egin ditzaketen kontratuak.

3. Desgaitasuna duten pertsonen deuseztatu ahaliko dituzte egiten dituzten kontratuak, baldin eta kontratatzeke ahalmena egikaritzeko ezarrita dauzkaten laguntza-neurriak erabili gabe eginak badira, neurriok beharrezkoak izan arren. Kontratua deuseztatzeko, behar duten laguntza emango zaie. Desgaitasuna duen pertsona akzioa egikari dezakeen aldia amaitu aurretik hiltzen bada, jaraunleek kontratua deuseztatu ahaliko dute epe hori amaitu baino lehen.

Laguntza ematea zegokion pertsonak ere deuseztatu ahaliko ditu aurreko paragrafoan aipatutako kontratuak. Kasu horretan, kontratua deuseztatu ahaliko da baldin eta beste kontratugilea laguntza-neurrien jakitun izan bada kontratazioaren

unean, edo beste nolabait baliatu badu desgaitasun-egoera, horrela bidegabeko abantaila lortuz.

4. Kontratatzaileek ezin dute alegatu haiekin kontratatu zuenaren adingabetasuna, ezta haren laguntzarik eza ere; eta larderia edo indarkeria eragin, doloa erabili edota okerra sorrarazi zutenek ezin dute beren akzioa oinarritu kontratuaren akats horietan».

Berrogeita hamahiru. Honela geratzen da idatzita 1304. artikulua:

«Deuseztasuna gertatzen denean adingabetasunaren ondorioz, kontratugile adingabeak ez du besterik itzuli behar berak jasotako prestazioarekin aberastu dena baino. Erregela hori aplikatuko da, halaber, ezarritako laguntza-neurriak beharrezkoak izan arren haiek erabili ez izanaren ondorioz gertatzen denean deuseztasuna, baldin eta itzulketarako eskubidea duen kontratugilea laguntza-neurri horien jakitun izan bada kontratazioaren unean, edo beste nolabait baliatu badu desgaitasun-egoera, horrela bidegabeko abantaila lortuz».

Berrogeita hamalau. Honela geratzen da idatzita 1314. artikulua:

«Era berean, kontratuak deuseztatzeko akzioa azkendu egingo da, kontratu horien objektu den gauza galtzen denean harako akzioa egikari dezakeen pertsonaren doloz edo erruz.

Akzioaren arrazoia bada kontratugileetatik baten adingabetasuna, gauza galtzea ez da oztopo izango akzioak aurre egin dezan, salbu eta galera gertatzen denean erreklamatzailearen doloz edo erruz, horrek adin-nagusitasuna eskuratu eta gero.

Akzioaren arrazoia bada desgaitasuna duen kontratatzaileak ezarri zaizkion laguntza-neurriak erabili ez izana beharrezkoak izan arren, gauza galtzea ez da oztopo izango akzioak aurre egin dezan, baldin eta beste kontratugilea laguntza-neurrien jakitun izan bada kontratazioaren unean, edo beste nolabait baliatu badu desgaitasun-egoera, horrela bidegabeko abantaila lortuz».

Berrogeita hamabost. Kendu egiten da 1330. artikulua.

Berrogeita hamasei. Honela geratzen da idatzita 1387. artikulua:

«Desgaitasuna duen ezkontidearen kuradore izendatutako beste ezkontideari lege-aginduz eskualdatuko zaizkio irabazpidezko sozietateak dituen ondasunen administrazioa eta xedapena, baldin eta ordezkaritza osorako ahalmenak eratxiki bazaizkio».

Berrogeita hamazazpi. Beste era batera geratzen da idatzita 1393. artikulua 1. zenbakia; honela:

«1.a Beste ezkontideari epaiketa bidez laguntza-neurriak ezarri eta neurriok ondarearen esparruan ordezkaritza osorako ahalmenak eragiten badituzte, edo ezkontide hori absente dagoela edo konkurtsoan dagoela adierazi bada, edota familia bertan behera uzteagatik kondenatua izan bada. Agintaritza judizialak desegitea erabaki dezan, nahiko izango da hori eskatzen duen ezkontideak ebazpen judizial egokia aurkeztea».

Berrogeita hemezortzi. Hau jartzen da 1459. artikulua 1. zenbakiaren ordeztuz:

«1.a Tutoretza-karguan edo laguntza-eginkizunetan ari direnek, ordezkatzeko duten pertsonaren edo ordezkatzeko dituzten pertsonen ondasunak».

Berrogeita hemeretzi. Honela geratzen da idatzita 1548. artikulua:

«Guraso edo tutoreek, adingabeen ondasunei dagokienez, eta ondasunen administrazioa erabakirik ere, ahalorde berezirik ez badute, ezin izango dituzte gauzak errentan eman sei urtetik gorako epe-mugarako».

Hirurogei. Beste era batera geratzen da idatzita 1700. artikulua 3. zenbakia, 5. zenbakia eransten da, eta azken paragrafoa aldatzen da. Hona testua:

«3.a Bazkideetatik edozeinen heriotzaren edo konkurtsoaren ondorioz, eta 1699. artikuluan ezarritako kasuan».

«5.a Bazkideetatik edozeini laguntza-neurriak ezarri eta neurriok ondarearen esparruan zuzendaritza osorako ahalmenak eragiten dituztenean.

Artikulu honen 3., 4. eta 5. zenbakietan xedaturikoari begira, salbuespen gisa har daitezke 1670. artikulua aipatzen dituen sozietateak, horiek indarrean iraun behar dutenean Merkataritza Kodearen arabera».

Hirurogeita bat. Beste era batera geratzen da idatzita 1732. artikulua; honela:

«Mandatu amaizten da:

1.a Horren ezeztapenaren ondorioz.

2.a Mandatariak mandatuari uko egitearen ondorioz.

3.a Mandatugile zein mandatariaren heriotza edo konkurtsoa gertatzearen ondorioz.

4.a Mandatariarentzat laguntza-neurriak ezartzearen ondorioz, neurriok eragina badute hark mandatari gisa esku hartu behar duen egintzan.

5.a Mandatugilearentzat, bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurri gisa, ordezkartzako kuradoretza ezartzearen ondorioz, ezertan eragotzi gabe kode honetan prebentziozko mandatuei buruz xedatutakoa».

Hirurogeita bi. Honela geratzen da idatzita 1764. artikulua:

«Adingabe batek edo desgaitasuna duen pertsona batek gordailua egiten badu ezarritako laguntza-neurria erabili gabe, gordailuzaina gordailu-kontratutik sortzen diren betebeharrak guztien menpe geratuko da».

Hirurogeita hiru. Honela geratzen da idatzita 1765. artikulua:

«Gordailua adingabe baten esku egiten bada, gordailugileak akzioa izango du gordailupeko gauza errebindikatzeko, gauza hori gordailuzainaren esku dagoen bitartean; edo, bestela, gordailuzainak gauzarekin edo prezioarekin izan duen aberastearen kopurua kobratzeko. Gordailua desgaitasuna duen pertsona baten esku egiten denean erregela hori aplikatuko da, halaber, hark ez baditu erabiltzen ezarritako laguntza-neurriak, beharrezkoak izan arren, eta gordailugilea laguntza-neurri horien jakitun bada kontratazioaren unean, edo beste nolabait baliatzen badu desgaitasun-egoera, horrela bidegabeko abantaila lortuz».

Hirurogeita lau. Honela geratzen da idatzita 1773. artikulua:

«Gordailua egin eta gero gordailugileak laguntza-neurriak baliatzen baditu, gordailuaren itzulketa neurri horietatik ateratzen denari egokituko zaio».

Hirurogeita bost. Honela geratzen da idatzita 1811. artikulua:

«Tutoreak eta ordezkartzak ahalmenak dituen kuradoreak epailearen baimena behar dute ordezkatzeko duten pertsonaren interesekin zerikusia duten gaiekin transakzioa egiteko, salbu eta garrantzi ekonomiko txikiko gaiak direnean».

Hirurogeita sei. Aldatu egiten da 1903. artikulua hirugarren paragrafoa, eta laugarren paragrafo bat eransten da. Hona testua:

«Tutoreek erantzukizuna dute adingabeek eragindako kalteen gain, horiek haien agintepean badaude eta haiekin bizi badira.

Ordezkaritza osorako ahalmenak dituzten kuradoreek erantzukizuna dute laguntza ematen dioten pertsonak eragindako kalteen gain, harekin bizi badira».

Hirurogeita zazpi. Laugarren xedapen gehigarria aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«96., 756.7, 782., 808., 822. eta 1041. artikuluek desgaitasuna aipatzen dutenean, ulertuko da azaroaren 18ko 41/2003 Legeak definitutako kontzeptuaz ari direla (Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko eta helburu horrekin Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga-arloko araudia aldatzeko Legea), eta abenduaren 14ko 39/2006 Legearen arabera II. edo III. graduko mendekotasun-egoeran diren pertsonen ere ari direla (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea).

Kode honetako gainerako manuek desgaitasuna aipatzen dutenean, gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurrien beharra sortzen duen egoeraz ari direla ulertu behar da, kasuan kasuko artikuluen testutik besterik ondorioztatu ezean».

Hirugarren artikulua. *1946ko otsailaren 8ko Dekretuaren bidez onetsitako Hipoteka Legea aldatzea.*

Hipoteka Legea aldatzen da, honela:

Bat. Honela geratzen da idatzita 2. artikuluen laugarren zenbakia:

«Laugarrena. Pertsona baten absentsia edo heriotza deklaritzen duten ebazpen judizialak edo pertsona baten ondasunen xedapen askeari eragiten diotenak, eta Prozedura Zibilaren Legearen 755. artikuluen bigarren paragrafoan aipatzen diren ebazpenak. Apartatu honi jarraituz laguntza-neurrien gaineko ebazpen judizialak inskribatzen direnean, ondasun higiezinaren administrazioari eta xedapenari buruzko liburuan bakarrik egingo dira inskripzioak».

Bi. Kendu egiten da 28. artikulua.

Hiru. Honela geratzen da idatzita 42. artikuluen bosgarren apartatua:

«Bosgarrena. Organo judizial eskudunaren aurrean demanda jartzen duenak 2. artikuluen laugarren apartatuan adierazitako ebazpenen bat eskuratzeko, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriei buruzko ebazpenak izan ezik».

Lau. Aldatu egiten da 165. artikulua: lehenengo paragrafoa beste era batera geratzen da idatzita, eta seigarren erregelaren eranstean da. Hona hemen:

«Legezko hipoteka oro epai bidez eta alderdiak hala eskatuta eratu edo zabaltzeko, hurrengo erregelok bete behar dira:».

«Seigarrena. Tutoreen fidantzaren ondoriozko legezko hipoteka bada, tutoreen izendapena izapidetzen duen epaitegiari egokituko zaio legezko hipoteka dekretatzeko eskumena eta haren izapidetzea, 192. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik; aurreko erregeletan xedatutakoa aplikatuko da, manu horren kontrakoa ez den heinean».

Bost. Honela geratzen da idatzita 168. artikuluko laugarren kasua:

«Laugarrena. Tutoretzapean dauden adingabeek, euren tutoreen ondasunen gain, tutore horiek izan dezaketen erantzukizunagatik, baldin eta agintaritza judizialak beharrezkotzat jotzen badu tutoreek fidantza jar dezaten, hargatik eragotzi gabe agintaritza judizialaren iritziz nahikoa den beste berme erreal edo pertsonal bat emateko aukera».

Sei. Honela geratzen da idatzita 192. artikulua:

«168. artikuluaaren laugarren zenbakiaren ariora tutoreek eman beharreko hipoteka-fidantza agintaritza judizialak dekretatuko du, ofizioz, edo Fiskaltzak nahiz interes legitimoa duen edozein ahaidek eskaturik, betiere agintaritza judizialak beharrezkotzat jotzen badu fidantza ematea eta beste berme motaren bat proposatu ez bada. Ebazpen judizialean fidantzaren zenbatekoa agertuko da, eta adieraziko da epaitegira ekarri behar dela alde bakarrez eta zenbatekoaren gehieneko muga ezarrita eraturako hipotekaren eskritura publikoa. Eskritura hori, onespén judizialarekin batera, ondasun hipotekatuak non izan eta bertako erregistro eskudunean edo erregistro eskudunetan aurkeztuko da, eta kalifikatu eta inskribatu egingo da lege honetan ezarritako baldintzak betez.

Legezko hipoteka ezereztu ahal da agintaritza judizialak hala dekretatzen duenean, hipoteka horren ordez beste berme pertsonal edo erreal bat eman dadin onartuta. Ezereztuko da, halaber, tutoretzaren kontu guztiak onetsita daudenean eta, betiere, amaierako kontu-ematetik hiru urte igarotakoan, Erregistroan kontuen gaineko erreklamaziorik jaso ez bada bitarte horretan».

Zazpi. Honela geratzen da idatzita 222. artikulua 9. apartatua:

«9. Artikulu honetan xedatutakoa betetzeko, beharrezko baliabideak ahalbidetuko dira eskura, interesdunari informazioa emateko liburu-egunkariaren edukiaz edota, hala denean, sarrera-liburuaren, inskripzio-liburuaren nahiz ondasun higiezinaren administrazioari eta xedapenari buruzko liburuaren edukiaz, telefaxaren nahiz komunikazio elektronikoen bidez, hark nahi duena kontuan hartuta eta, betiere, informazio-ohar soilaren balioarekin. Salbuespena egingo da desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurriak ezartzen dituzten ebazpen judizialei dagokienez».

Zortzi. Honela geratzen da idatzita 222 bis artikulua 5. apartatuko azken paragrafoa:

«Pertsonen aurkibideko fitxen gaineko kontsulta denean, aurreko a) letrako inguruabarrak baino ez dira jasoko. Berdin jokatuko da ondasun higiezinaren administrazioari eta xedapenari buruzko liburuari dagokionez».

Bederatzi. Erantsi egiten da 242 bis artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«242 bis artikulua.

1. Ondasun higiezinaren administrazioari eta xedapenari buruzko liburuan, zeina 2. artikuluaaren laugarren zenbakian aipatzen baita, idazkunetan jasoko dira absentzia eta heriotza deklaratzeko espedienteetan emandako ebazpenak eta konkurtso-legerian ezarritako konkurtso-ebazpenak, bai eta legeetan ezarritako gainerako ebazpen eta neurriak ere, pertsona baten ondasunen administrazio eta xedapen askeari eragiten badiote. Halaber, liburu horretako idazkunetan jasoko dira desgaitasuna duten pertsonen gaineko ebazpenak, Prozedura Zibilararen Legearen 755.2 artikuluan aipatzen direnak.

2. Ondasun higiezinaren administrazioari eta xedapenari buruzko liburuko idazkunak kasuan kasuko ebazpenean bildutako inguruabarrak agertuko ditu. Laguntza-neurriak daudenean, idazkunak neurriok badirela eta beren edukia baino ez du agertuko.

3. Espainiako Jabetza Erregistratzaileen, Merkataritzako Erregistratzaileen eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoak, bere kargura eta Justizia Ministerioaren menpean, Aurkibide Zentral Informatizatua eramango du, erregistroek ondasun higiezinaren administrazioari eta xedapenari buruzko liburuan egindako idazkunez bidaltzen dioten informazioa bertan jasotzeko. Aurkibide horrek lotura

elektronikoa izango du titulartasun inskribatuak bilatzeko egungo fitxategian kasuan kasuko idazkunari buruz jasotako datuekin, halakorik egonez gero».

Laugarren artikulua. *Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzea.*

Prozedura Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen da, honela:

Bat. Aldatu egiten dira 7. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela geratzen da idatzita:

- «1. Pertsona guztiak agertu ahalko dira epaiketean.
2. Emantzipatu gabeko adingabeek agertu behar dute legeak zein ordezkari, laguntza edo baimen agindu eta horrekin. Beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak dituzten pertsonen kasuan, neurri horien norainokoaren eta edukiaren arabera jokatu da».

Bi. Erantsi egiten da 7 bis artikulua, idazpuru eta eduki hauekin:

«7 bis artikulua. *Desgaitasuna duten pertsonentzako doikuntzak.*

1. Desgaitasuna duten pertsonen parte hartzen duten prozesuetan behar diren egokitzapenak eta doikuntzak egingo dira haiek berdintasun-egoeran parte hartuko dutela bermatzeko.

Egokitzapen eta doikuntza horiek egingo dira alderdietako batek edo Fiskaltzak eskaturik nahiz epaitegiak berak ofizioz erabakirik, prozesuko edozein fase edo jarduketatan, baita komunikazio-egintzetan ere, behar izanez gero. Komunikatzeko, ulertzeko edota ingurunearekiko interakziorako egokitzapenak izan daitezke.

2. Desgaitasuna duten pertsonen ulertzeko eta ulertuak izateko eskubidea dute, egin beharreko edozein jarduketatan. Horretarako:

a) Desgaitasuna duten pertsonen komunikazio guztiak, izan ahozkoak edo idatzizkoak, hizkuntza argi, erraz eta ulergarri egingo dira, betiere haien ezaugarri pertsonalak eta beharrezkoak kontuan harturik, behar diren bitartekoak erabiliz, hala nola irakurketa erraza. Desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza ematen dion pertsonari ere egingo zaio komunikazioa, hala behar denean.

b) Desgaitasuna duen pertsonari behar adinako laguntza edo babesak emango zaizkio bere burua ulertarazteko; legez onartutako zeinu-hizkuntzetako interpretazioa eta pertsona gorrei, gor-itsuei eta entzuteko desgaitasuna dutenei ahozko komunikazioan laguntzeko bitartekoak sartuko dira horren barruan.

c) Onartuko da profesional aditu batek parte har dezala, behar diren egokitze-eta doitze-lanak eginez, erraztaile gisa, desgaitasuna duen pertsonak ulertu ahal izateko eta bere burua ulertarazi ahal izateko.

d) Desgaitasuna duen pertsona bere aukerako pertsona batek lagunduta egon ahalko da agintari eta funtzionarioekiko lehen harremanetik bertatik».

Hiru. Aldatu egiten da 52.1 artikulua 5. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«5.) Epaiketetan desgaitasuna duten pertsonen gaineko laguntza-neurri judizialei buruzko akzioak egikaritzen direnean, haiek bizilekua non izan eta bertako auzitegia izango da eskudun, 756. artikulua 3. apartatua ezartzen denarekin bat etorritik».

Lau. Beste era batera idazten da 162. artikulua 3. apartatua; honela:

«3. Aurreko apartatua aipatutako bitartekoak erabiliz aurkeztutako edo igorritako ebazpenen, dokumentuen, irizpenen edo txostenen kautotasuna haien zuzeneko azterketaren edo bestelako prozeduren bidez soilik aitor edo egiazta daitekeenean, euskarri elektronikoa aurkeztu ahalko dira, aitzitik, haien irudi

digitalizatuen bidez, lege honen 267. eta 268. artikuluetan aurreikusitako moduan; hala ere, alderdietako batek, edo auzitegiak familia-prozesuetan, laguntza-neurri judizialak ezartzeko prozesuetan nahiz filiazio-prozesuetan, edota Fiskaltzak hala eskatuz gero, beren jatorrizko paper-euskarrian aurkeztu beharko dira haiek, hartarako finkatutako epean edo une prozesalean».

Bost. Beste era batera idazten da 222. artikulua 3. apartatuko bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«Egoera zibilari, ezkontzari, filiazioari, aitatasunari, amatasunari eta gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurri buruzko epaietan, gauza epaituak ondoreak izango ditu guztiei begira, Erregistro Zibileko inskripzioa edo idatzoharra egin denetik aurrera».

Sei. IV. liburuaren I. tituluaren izenburua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialei, filiazioari, ezkontzari eta adingabeei buruzko prozesuak»

Zazpi. Aldatu egiten da 748. artikulua 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1.) Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialak ezartzeari buruzkoetan».

Zortzi. Honela geratzen dira idatzita 749. artikulua 1. eta 2. apartatuak:

«749. artikulua. *Fiskaltzak esku hartzea.*

1. Desgaitasuna duten pertsonentzat laguntza-neurri judizialak ezartzeari buruzko prozesuetan, ezkontza-deuseztasunekoetan, nazioarteko adingabe-ostekoetan eta filiazioa zehaztekoetan eta aurkaratzekoetan Fiskaltza beti izango da alderdi, nahiz eta haien sustatzailea ez izan eta, legearen arabera, alderdietakoren baten defentsa bere gain hartu behar ez izan.

Prozesu horietan desgaitasuna duten pertsonen parte hartzen dutenean, Fiskaltzak prozedura osoan zehar babestuko ditu haien borondatea, nahiak, lehentasunak eta eskubideak, baita adingabearen interes gorena ere.

2. Titulu honetan aipatutako gainerako prozesuetan, nahitaezkoa izango da Fiskaltzaren esku-hartzea, betiere prozedurako interesdunetakoren bat adingabea bada, desgaitasuna badu edo legezko absentzia-egoeran badago».

Bederatzi. Honela geratzen da idatzita 751.2 artikulua 1. zenbakia:

«1.) Filiazioari, aitatasunari eta amatasunari buruzko prozesuetan, ez baldin badago interesdun hauetakoren bat prozeduran: adingabeak; desgaitasuna duten pertsonak, laguntza-neurri judizialak ezarri eta, horien barruan, ordezkartza-eginkizunak dituen laguntzaile bat izendatu bazaie; edo absenteak».

Hamar. Honela geratzen dira idatzita 753. artikulua 1. eta 3. apartatuak:

«1. Esanbidez besterik xedatu ezean, titulu honek aipatu prozesuak hitzeko epaiketaren izapideei jarraituz gauzatuko dira. Justizia Administrazioaren letratuak demanda helaraziko die Fiskaltzari, bidezkoa denean, eta legearen arabera prozeduran alderdi izan behar duten gainerako pertsonen, horiek demandatuak izan zein izan ez; horiek epatuko dira, hogeit eguneko epean demandari erantzun diezaioten, 405. artikuluan ezarritakoaren arabera».

«3. Lehentasunez izapidetuko dira titulu honetan aipatutako prozesuak, betiere prozedurako interesdunetakoren bat adingabea bada, edo desgaitasuna izan eta laguntza-neurri judizialak ezarri bazaizkio, ordezkartza-eginkizunak dituen laguntzaile bat izendatuta, edo legezko absentzia-egoeran badago».

Hamaika. Honela geratzen da idatzita 755. artikulua:

«755. artikulua. *Epaiak erregistro publikoetara iristea.*

Justizia Administrazioaren letraduak erabakiko du titulu honetan aipatutako prozeduretan emandako epaiak eta gainerako ebazpenak erregistro zibilei komunikatuko zaizkiela, ofizioz, horietan kasuan kasuko idazkunak egin daitezzen.

Alderdiek hala eskatuta, epaiok eta ebazpenok Jabetza Erregistroari, Merkataritza Erregistroari, Ondasun Higigarrien Erregistroari edo beste edozein erregistro publikori ere komunikatuko zaizkio, kasuan-kasuan bidezkoak diren ondoreetarako. Laguntza-neurriak daudenean, laguntza noren mesederako ezarri den, hark eskatuz gero soilik egingo da komunikazioa».

Hamabi. IV. liburuaren I. tituluko II. kapituluaren izenburua aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialak ezartzeari buruzko prozesuak».

Hamahiru. Honela geratzen da idatzita 756. artikulua:

«756. artikulua. *Aplikazio-eremua eta eskumena.*

1. Aplikatu beharreko legeria zibilaren arabera bidezkoa denean kuradorea izendatzea, horretara bideratutako borondatezko jurisdikzioko espedientean izendapenaren aurka egiten bada edo espediente hori ezin bada ebatzi, kapitulu honetan ezarritakoarekin bat arautuko da desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialen ezarpena.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzat laguntza-neurriak ezartzeari buruzko demandak aztertzeke eskuduna izango da aurretik borondatezko jurisdikzioko espedienteaz aztertu zuen agintaritza judiziala, salbu eta eskaeraren xede den pertsona harrezkero bizilekuz aldatu bada; hala denean, pertsona hori bizi den tokiko lehen auzialdiko epailea izango da eskuduna.

3. Prozesuaren xede den pertsona ohiko bizilekuz aldatzen bada ikustaldia egin baino lehen, jarduketak dauden horretan igorriko dira egoki den epaitegira».

Hamalau. Honela geratzen da idatzita 757. artikulua:

«757. artikulua. *Legitimazioa eta prozesuan parte hartzea.*

1. Hauek eragin dezakete desgaitasuna duen pertsona batentzat laguntza-neurri judizialak ezartzeko prozesua: interesdunak berak; ezkontideak, ez badago egitez edo legez bananduta, edo egitez ezkontidearen antzeko egoera duen pertsonak; ondorengoek, aurrekoek edo neba-arrebek.

2. Fiskaltzak prozesu hori eragin behar du aurreko apartatuan aipatutako pertsonak izan ezean, edo pertsona horiek demanda aurkeztu ezean, salbu eta Fiskaltzak ondorioztatzen duenean badirela beste bide batzuk interesdunak behar dituen laguntzak lor ditzan.

3. Demandarekin batera eskatzen bada laguntzak ezartzeko prozedura has dadila, laguntza-neurriak ezar daitezela eta kuradore jakin bat izenda dadila, kuradore horri demanda helaraziko zaio, horri buruz komenigarri deritzona alega dezan.

4. Laguntza-neurri judizialak ezartzeko prozesua eskatzeko legitimatuta dauden pertsonak, edo interes legitimoa dutela frogatzen dutenek, jada hasitako prozesuan parte hartu ahalko dute, beren kontura, eta horrek 13. artikuluan ezarritako ondorioak sortuko ditu».

Hamabost. Beste era batera idazten da 758. artikulua; honela:

«758. artikulua. *Erregistroko ziurtagiria, eta demandatua bertaratzea.*

1. Demanda onartu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak inskribatu diren laguntza-neurriei buruzko ziurtagiria eskatuko die Erregistro Zibilari eta egokitzen jotzen dituen gainerako erregistro publikoei.

2. Behin demanda jakinarazi ondoren –igorrita edo eskura emanda, edo ediktuen bitartez, interesdunari ezin izan bazaio pertsonalki jakinarazi–, interesduna ez bada demandari erantzuteko ezarritako epean epaitegira agertzen bere defentsarekin eta ordezkartzarekin, Justizia Administrazioaren letraduak defendatzaile judizial bat izendatuko dio, salbu eta jada izendatuta dagoenean edo interesdunaren defentsa Fiskaltzari dagokionean hura prozeduraren eragilea ez izateagatik. Jarraian, defendatzaile judizialari beste hogeit eguneko epea emango zaio demandari erantzun diezaion, egoki baderitzo.

Justizia Administrazioaren letraduak behar diren jarduketak egingo ditu desgaitasuna duen pertsonak prozeduraren xedea, helburua eta izapideak uler ditzan, 7 bis artikuluan ezarritakoari jarraituz».

Hamasei. Honela geratzen da idatzita 759. artikulua:

«759. artikulua. *Nahitaezko frogak lehen eta bigarren auzialdian.*

1. Kapitulu honetan aipatzen diren laguntza-neurriak ezartzeari buruzko prozesuetan, 752. artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatzen diren frogaz gain, auzitegiak hauek gauzatuko ditu:

1.) Desgaitasuna duen pertsonarekin elkarriketa izango du.

2.) Ezkontideari entzungo dio, egitez edo legez bananduta ez badago, edo egitez ezkontidearen pareko egoera duen pertsonari, baita desgaitasuna duen pertsonaren ahaiderik hurbilenei ere.

3.) Demandako uzien arabera beharrezkoak eta egokiak diren aditu-irizpenak aginduko ditu. Ezingo da erabakirik hartu ezarri beharreko neurriei buruz, aurretik auzitegiak agindutako aditu-irizpenik izan gabe. Nahitaezko irizpen horretarako, gizarte- eta osasun-arloetako profesional espezializatuengana joko da beti, eta kasu bakoitzean egoki diren laguntza-neurrien arabera zer komeni den, beste profesional espezializatu batzuek ere jo ahalko da.

2. Desgaitasuna duen pertsonak berak aurkeztu badu demanda, auzitegiak, desgaitasuna duen pertsonak eskatuz gero, eta salbuespen gisa, erabaki ahalko du nahitaezko entzunaldi horiek ez egitea, hori komenigarriagoa bada haren intimitatea babesteko.

3. Kuradorea izendatzea proposatzen ez bada, horri buruz esan beharrekoa entzungo zaie desgaitasuna duen pertsonari, ezkontideari, ez badago egitez edo legez bananduta, edo egitez ezkontidearen pareko egoera duenari, baita ahaiderik hurbilenei eta auzitegiak egokitzen jotzen dituen gainerako pertsonen ere, eta aplikatzeko izango da halaber aurreko apartatuan xedatutakoa.

4. Laguntza-neurriei buruz zein epaik erabaki eta hori gora jotzen bada, bigarren auzialdian ere ofizioz aginduko da artikulua honen aurreko apartatuetan aipatu nahitaezko frogak gauzatzea».

Hamazazpi. Aldatu egiten da 760. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«760. artikulua. *Epaia.*

Agintaritza judizialak epaian ezartzen dituen neurriek bat etorri behar dute aplikatu behar diren zuzenbide zibileko arauetan gaiari buruz xedatutakoarekin».

Hemezortzi. Honela geratzen da idatzita 761. artikulua:

«761. artikulua. *Epaileak ezarritako laguntza-neurriak berrikustea.*

Epaian jasotako neurriak berrikusi egingo dira, legeria zibilean ezarritakoarekin bat etorritz, eta, horretarako, Borondatezko Jurisdikzioaren Legean ezarritako izapideak beteko dira.

Aurreko paragrafoan aipatutako borondatezko jurisdikzioko berrikuspen-espeditentearen aurka egiten bada, edo espediente hori ezin bada ebatzi, auzibidezko prozesua hasteko eskatu beharko da kapitulu honetan ezarritakoaren arabera. Prozesu hori susta dezake 757. artikulua 1. apartatua aipatutako pertsonetatik edozeinek, baita desgaitasuna duen pertsonari laguntza ematen dionak ere».

Hemeretzi. Beste era batera geratzen da idatzita 762. artikulua; honela:

«762. artikulua. *Kautela-neurriak.*

1. Auzitegi eskudunak norbait bere desgaitasun-egoeratik laguntza-neurrien beharrean dagoela jakin badaki, neurri egokiak hartuko ditu ofizioz, desgaitasuna duen pertsona edo horren ondarea egoki babesteko. Gainera, auzitegiak Fiskaltzari emango dio egitatearen berri, azken horrek, bidezkotzat jotzen badu, borondatezko jurisdikzioko espedientea has dezan.

2. Halaber, Fiskaltzak, horrelako egoeretan, auzitegiari eska diezaiolke aurreko apartatua aipatu neurriak berehala hartzea.

Neurriok har daitezke ofizioz edo alderdietako batek hala eskatuta, prozeduraren edozein unetan.

3. Egoeraren presako izaerak eragotzi ezean, aurreko apartatuetan aipatu neurriak hartuko dira, desgaitasuna duten pertsonen entzun ondoren. Horretarako, lege honen 734., 735. eta 736. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da».

Hogei. Aldatu egiten da 765. artikulua izenburua, eta 1. apartatua beste era batera idazten da:

«765. artikulua. *Adingabea den edo desgaitasuna duen eta laguntza behar duen seme edo alabari dagozkion akzioak egikaritzea. Prozesuko oinordetza.*

«1. Adingabea den edo desgaitasuna duen seme edo alabaren legezko ordezkariak edo Fiskaltzak egikari ditzakete seme edo alaba horri filiazioa zehazteko edo aurkaratzeko dagozkion akzioak, legeria zibilean xedatutakoaren arabera.

Seme edo alaba horrek desgaitasuna izan eta akzioak egikaritzeko laguntza-neurriak baditu, berak egikaritu ahalko ditu, edo laguntza ematen dion eta horretarako berariazko ahalmena jaso duen pertsonak, edo, halakorik ezean, Fiskaltzak».

Hogeita bat. Aldatu egiten da 770. artikulua 4. erregela, eta 8. erregela eransten zaio artikulua horri. Hona:

«4.) Ikustaldi-ekitaldian gauzatu ezin diren frogak auzitegiak zehaztu epean gauzatu dira, eta epe hori, gehienez jota, hogeita hamar eguneko izango da.

Epe horretan, auzitegiak ofizioz agin ditzake egokitzen jotzen dituen frogak. Froga horien xedea da ezkontza-deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa agintzeko kasuan-kasuan Kode Zibilak zein inguruabar ezarri eta inguruabar horiek gertatzen diren egiaztatzea; baita seme-alaba adingabeak edo desgaitasuna duten seme-alaba adin nagusikoak zein neurri ukitu eta neurri horiei buruzko erabakiak oinarritzeko egitateen inguruabarrak egiaztatzea ere, legeria zibil aplikagarriaren arabera.

Hamabi urtetik beherako seme-alabei entzun ahalko zaie baldin eta prozedura adostasunik gabekoa bada eta hori egitea beharrezkotzat jotzen bada, ofizioz nahiz fiskalak, alderdiek, lantalde tekniko judizialeko kideek edo seme-alabek berek eskaturik; eta adin horretara iritsi diren seme-alabei beti entzun beharko zaie. Entzun beharko zaie, halaber, beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntzaren beharra izan eta laguntza hori gurasoek ematen dieten seme-alabei, bai eta desgaitasuna duten seme-alabei ere, familiaren etxebizitzaren erabilera eztabaidatzen ari bada eta haiek erabiltzen badute.

Seme-alaba adingabeen edo desgaitasuna izan eta beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza behar duten seme-alaba adin nagusikoen entzunaldietan agintaritzak judizialak baldintza egokiak bermatuko ditu haien interesak babestuta egon daitezzen, inoren interferentziarik gabe, eta salbuespenez espezialisten laguntza eskatu ahalko du, beharrezkoa bada».

«8.) Ezkontza-prozesuetan, bi-biona den hamasei urtetik gorako seme edo alabaren bat desgaitasunaren ondorioz laguntza-neurrien beharra izateko egoeran badago, desgaitasuna duten pertsonentzat laguntza-neurri judizialak ezartzeko prozesuetarako lege honetan ezarritako izapideak beteko dira».

Hogeita bi. Beste era batera idazten da 771. artikulua 2. apartatua; honela:

«2. Eskabidea kontuan hartuta, Justizia Administrazioaren letraduak agerraldirako zitazioa egingo die ezkontideei, alderdien arteko akordioa lortzen saiatzeko, eta Fiskaltzari ere bai, seme-alaba adingaberik egonez gero edo desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituen seme-alabarik egonez gero; agerraldi hori hurrengo hamar egunetan egingo da. Agerraldi horretara joan behar da demandatutako ezkontidea, bere abokatuak lagundurik eta bere prokuradoreak ordezkaturik».

Egunean bertan jakinaraziko dio ebazpena auzitegiari, berehala erabaki ditzan Kode Zibilarren 102. artikuluan aipatu ondoreak, eta seme-alabak jagoteari, eta familiaren etxebizitza eta ostilamendua erabiltzeari buruz egokitzen jotzen duena, kasuaren presara dela eta, hori komeni bada. Ebazpen horren aurka, ez dago errekurtsorik».

Hogeita hiru. Aldatu egiten da 775. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Fiskaltzak, seme-alaba adingaberik egonez gero edo desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituen seme-alabarik egonez gero, eta ezkontideek, beti, behin betiko neurriak hartu zituen auzitegiari eska diezaiekete ezkontideek hitzartu neurriak edo hitzarmenik izan ezean hartutakoak aldaraztea, baldin eta funtsean aldatu badira neurriok onestean edo erabakitzean aintzat hartutako inguruabarrak».

Hogeita lau. Honela geratzen dira idatzita 777. artikulua 5., 8. eta 10. apartatuak:

«5. Seme-alaba adingaberik egonez gero edo desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak jasotzen dituen seme-alaba adin nagusikorik egonez gero, auzitegiak Fiskaltzari eskatuko dio hitzarmenak seme-alabei buruz ezarritakoaren gaineko txostena, eta seme-alabei entzungo zaie, hori beharrezkotzat jotzen bada ofizioz nahiz fiskalak, alderdiek, talde tekniko judizialeko kideek edo seme-alabek berek eskaturik. Jardun hori gauzatuko da, aurreko apartatua aipatu epean, edo, epe hori ireki ez bada, bost eguneko epean».

«8. Gora jotzeko errekurtsioa jar dakieke banantzea edo dibortzioa ukatu duen epaiari, eta ezkontideek zein hitzarmen arau-emaile proposatu eta horretatik aldentzeko neurriren bat agindu duen autoari. Neurrien inguruan erabaki duen autoaren aurka zein errekurtsio aurkeztu eta horrek ez du neurri oneragingarritasuna

etengo, eta errekurtsio horrek ez du ukituko banantzeari edo dibortzioari buruzko epaiaren irmotasuna.

Fiskaltzak bakarrik jar dezake errekurtsioa hitzarmenaren proposamena osorik onesten duen epaiaren edo autoaren aurka, dela seme-alaba adingabeen intereserako, dela desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituzten seme-alaben borondatea, lehentasunak eta eskubideak babesteko».

«10. Eskumena Justizia Administrazioaren letraduarena bada, ez dagoelako ez emantzipatu gabeko seme-alaba adingaberik, ez desgaitasuna izan eta gurasoei esleitutako laguntza-neurriak dituen seme-alabarik, Justizia Administrazioaren letraduak hitzarmen arauemaileari buruz erabakiko duen dekretua emango du, ezkontideek haren aurrean berrespena eman eta berehala.

Hitzarmen arauemailearen proposamena formalizatzen duen dekretuak ezkontideen banantzea edo dibortzioa deklaratu du.

Irizten badio, bere ustez, hitzarmeneko akordioetakoren bat kaltegarria izan dakiokela edo kalte larriak ekar diezazkiokeela ezkontideetako bati edota ukitutako seme-alaba adin nagusi zein adingabe emantzipatuei, egilesleei ohartaraziko die, eta bukatutzat emango du prozedura. Kasu horretan, ezkontideek epailearengana jo ahal izango dute soilik hitzarmen arauemailearen proposamena onesteko.

Dekretua ez da errekurragarria izango».

Hogeita bost. Beste era batera idazten da 783. artikulua; honela:

«4. Justizia Administrazioaren letraduak Fiskaltza ere deituko du, horrek ordezkaria jarraitzen duen interesak izan baina ordezkaria legitimorik ez duten adingabeak eta toki ezezagunean dauden absenteak. Fiskaltzaren ordezkaria bukatuko da, adingabeek legezko ordezkaria lortzen dutenean eta absenteak epaiketara agertzen direnean edo horiei zitazioa zuzenean egin dakiekeenean, nahiz eta gero berriro absente egon».

Hogeita sei. Beste era batera idazten da 790. artikulua; honela:

«790. artikulua. *Jarauntsiko ondasunak eta hildakoaren agiriak aseguratzea.*

1. Auzitegiak pertsona baten heriotzaren berri izan eta testamentua badela jasota ez dagoen guztietan, ezta hildakoaren aurrekorik, ondorengorik edota ezkontiderik edo antzeko egiteko egoeran dagoen pertsonarik ere, ezta laugarren gradu arteko albokorik ere, ofizioz hartuko ditu hildakoa lurperatzeko neurriak ezinbestekoak, beharrezkoa balitz, bai eta ostu edo ezkuta daitezkeen hildakoen ondasunak, liburuak, paperak, posta eta efektuak segurtatzekoak ere.

Era berean jardungo du aurreko paragrafoan aipatutako pertsonak absente daudenean, edo haietakoren bat adingabea izan eta legezko ordezkariak ez duenean.

2. Artikulu honek aipatutako kasuetan, ahaideak agertu orduko, edota adingabeek legezko ordezkaria izendatu bezain laster, hildakoaren ondasunak eta efektuak entregatuko zaizkie, eta esku-hartze judiziala amaitu egingo da, hurrengo artikuluan xedatutakoa salbu, eta notarioarengana joan beharko dute jaraunle-deklarazioaren espedienteari hasiera eman diezaion».

Hogeita zazpi. Honela geratzen da idatzita 793.3 artikulua; honela:

«5.) Fiskaltzari, baldin eta oinordetza legitimorako eskubidea duten ahaide ezezagunak egon badaitezke; edo, jaraunsiarako eskubidea duen ahaide ezagun bati, jaraunle bati edo zati alikuotaren legatu-hartzaile bati zuzenean ezin bazaio zitaziorik egin, bere bizilekua zein den ez jakiteagatik; edota, interesdunetako bat adingabea bada eta legezko ordezkariak ez badu».

Hogeita zortzi. Honela geratzen da idatzita 795. artikulua 4. zenbakia:

«4.) Jaraunsleek eta zati alikuotaren legatu-hartzaileek administratzailea salbuets dezakete kauzioa emateko betebeharretik. Horren inguruko adostasunik izan ezean, kauzioak proportzioa izango du adostasunik eman ez dutenek ondasunetan izan dezaketen interesarekin. Beti eratuko da kauzioa, legezko ordezkariak ez duten adingabeek jarauntsian parte hartzeari dagokionez, baita, non dauden ez jakiteagatik, zitaziorik izan ez duten absenteei dagokienez ere».

Hogeita bederatzia. Beste era batera idazten da 796. artikulua 2. apartatua; honela:

«2. Jarauntsia epaiketan zatitzeko prozedura gauzatu bitartean, jaraunsleek batera etorri eska dezakete esku-hartze judiziala amaitzea. Justizia Administrazioaren letraduak hori aginduko du dekretu bidez, salbu eta interesdunetatik bat adingabea denean eta legezko ordezkariak ez duenean, edo, non dagoen ez jakiteagatik, zitazioa izan ez duen jaraunsle absentea dagoenean».

Bosgarren artikulua. *Azaroaren 18ko 41/2003 Legea aldatzea (Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestekoa eta helburu horrekin Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga-araudia aldatzekoa).*

Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko eta helburu horrekin Kode Zibila, Prozedura Zibilaren Legea eta zerga-araudia aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legea aldatzen da; honela:

Bat. Aldatu egiten da 1. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuari aplikatuko zaio lege honetan eta beronen garapenerako xedapenetan ezarritakoa; horietan guztietan ezarritakoak lehenespena izango du, Kode Zibilaren I. liburuaren XI. tituluaren xedatutakoari begira».

Bi. Aldatu egiten da 2. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuari dagokionez, ondare horren onuradun bakarra izango da ondarea zein pertsonaren intereserako eratu eta berori, eta bera izango da titularra.

2. Lege honen ondoretarako, desgaitasuna duten pertsonak hauek bakarrik izango dira:

- a) Ehuneko 33ko edo hortik gorako desgaitasun psikikoa dutenak.
- b) Ehuneko 65eko edo hortik gorako desgaitasun fisikoa edo zentzumen-desgaitasuna dutenak.

3. Desgaitasun-gradua egiaztatuko da, erregelamenduarekin bat etorri luzatutako ziurtagiriaren bidez edo ebazpen judizial irmoaren bidez».

Hiru. Aldatu egiten da 3. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Ondare babestua eratu ahalko dute:

- a) Desgaitasuna duen pertsona onuradunak berak.
- b) Desgaitasuna duten pertsonen laguntza ematen dietenek.
- c) Oinordetza-fiduziaren titularrak edo komisarioak, haren eratzailaren baimenarekin, legeria zibilean oinordetza-fiduzia aurreikusten denean.

2. Interes legitimoa duen edonork eskatu ahalko dio desgaitasuna duen pertsonari ondare babestua eratzeko, behar duen laguntzarekin, eta aldi berean ondasun eta eskubide egokien ekarpena eskainiko du, helburu horretarako nahikoa.

Laguntza emateko arduraren duen pertsonak justifikaziorik gabe ukatzen badu laguntza hori, eskatzaileak Fiskaltzaren gana jo ahalko du, eta Fiskaltzak bidezkoa dena eskatuko dio agintaritzari judizialari, desgaitasuna duen pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak aintzat harturik. Agintaritzari judizialak ondare babestua eratzeko baimena ematen badu, ebazpen judizialak hurrengo apartatuan aipatzen den edukia zehaztuko du. Ondare babestua eratzeko eman behar zuen laguntza justifikaziorik gabe ukatu duen pertsonak ezingo du administratzaile-kargua hartu, bidezko arrazoiren bat izan ezean.

3. Ondare babestua agiri publikoan eratu da, edo ebazpen judizialaren bitartez, aurreko apartatuan azaldutako kasuan.

Agiri publiko edo ebazpen judizial horretan hau jasoko da, gutxienez:

a) Hasiera batean ondare babestua osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa.

b) Administrazio- eta, hala behar denean, fiskalizatzeko arauak, eta, horren barruan, administrazio- organoetan edo –hala behar denean– fiskalizazio- organoetan jardungo duten pertsonak izendatzeko prozedurak. Hori guztia lege honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

c) Ondare babestuaren administrazioari edo kontserbazioari buruz egokitzen jotzen den beste edozein xedapen.

Halaber, agiri publiko edo ebazpen judizialean egokitzen jotzen diren kontrol- neurri edo -organoak ezarri ahalko dira onuradunaren eskubideen, nahien, borondatearen eta lehentasunen errespetua bermatzeko, bai eta abusuak, interes- gatazkak eta bidegabeko eraginak saihesteko behar diren babesak ere.

Notarioen baimenarekin ondare babesturik eratzten bada, notarioek berehala jakinaraziko dizkiote fiskalari ondarearen eraketa eta edukia; desgaitasuna duen pertsonak non duen helbidea, hango barrutiko fiskalari. Horretarako, sinadura elektronikoa aurreratua erabiliko dute. Eraketaren ondoren egiten diren era guztietako ekarpenen eskriturak ere fiskalari bidaliko dizkiote.

Fiskal batek ondare babestu baten eraketaren berri jaso eta uste badu berak ez duela hura fiskalizatzeko eskumenik, Estatuko fiskal nagusiak bere estatutu organikoari jarraituz izendatzen duen fiskalari igorriko dio».

Lau. Aldatu egiten da 4. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Interes legitimoa duen edozein pertsonak ondasunak edo eskubideak ekarri ahalko dizkio ondare babestuari, baldin eta desgaitasuna duen pertsonak, behar duen laguntzarekin, adostasuna ematen badu. Ondasun edo eskubideen ekarpen horiek doan egin beharko dira beti, are oinordetza-itunaren bitartez ere, legeria zibil indardunek onartzen duten kasuetan, eta ez dira epemugapean egongo. Oinordetza-fiduzia baten titularrak edo komisarioak ekarpenak egin ahalko ditu hildako eskuordetzailearen izenean, hori onartzen duten legeria zibil indardunetan araututako kasuetan».

Bost. Aldatu egiten da 5. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Ondare babestuaren eratzzailea haren onuraduna bera denean, ondare horren administrazioa, edozein izanda ere hura osatzen duten ondasun eta eskubideen jatorria, eraketa-agiri publikoan ezarritako arauetara lotuko zaie.

2. Gainerako kasuetan, eraketaren edo ekarpenaren agiri publikoan xedatutakoaren menpe egongo dira administrazio- arauak. Egokitzen jotzen diren laguntzak edo babesak ezarri ahalko dira; eratzzaileak edo ekarpena egiten duen pertsonak berak egin dezake hori, edo agintaritzari judizialak, ofizioz nahiz Fiskaltzak eskaturik edo ondare babestuaren titularrarentzako laguntza- neurriak har daitezten sustatzeko legitimazioa duten pertsonak eskaturik.

Ondare babestua osatzen duten ondasun eta eskubideak besterentzeko, enkante publiko ez da inola ere beharrezkoa izango.

Nolanahi ere, eta ondare babestuen xedea titularren bizi-beharrizanak ondareko ondasun eta eskubideekin nahiz haien fruitu, produktu eta errendimenduekin asetzeaenez, ondare babestuaren barruko dirua gastatzea eta ondasun suntsikorrak kontsumitzea ez dira xedatze-egintzatzat joko, baldin eta onuradunaren bizi-beharrizanak asetzeko egin badira.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, eratzailleak edo administratzaileak Fiskaltzaren gana jo ahalko dute, agintaritzaren judizial eskudunari eska diezaion baimen judizialaren beharrik ez izatea zenbait kasutan, aintzat harturik ondarearen osaera, onuradunaren inguruabar pertsonalak, desgaitasunak sortzen dizkion beharrizanak, administratzailearen kaudimena edo antzeko beste edozein inguruabar.

4. Ondare babestua osatzen duten ondasun eta eskubide guztiak, baita ondarearen emaitza, errendimendu edo produktuak ere, onuradunaren bizi-beharrizanak asetzeko edo ondare babestuaren produktibitateari eusteko erabili behar dira.

5. Ezingo dira administratzaile izan kuradore ezin izan diren pertsonak edo erakundeak, bat etorritik Kode Zibilean ezarritakoarekin edo zuzenbide zibileko, foru zuzenbideko nahiz zuzenbide bereziko arauekin, horiek aplikatzekoak direnean.

6. Eraketaren agiri publikoan edo ebazpen judizialean ezarritako arauak jarraituz ezin bada administratzaileak izendatu, agintaritzaren judizial eskudunak egoki deritzona aginduko du, Fiskaltzak hala eskaturik, onuradunaren nahiak, borondatea eta lehentasunak kontuan hartuta».

Sei. Aldatu egiten da 7. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Fiskaltzari dagokio ondare babestuaren administrazioa gainbegiratzea, eta egoki deritzona eskatuko dio epaileari, desgaitasuna duen pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz; are administratzailea ordeztzea, administratio-arauak aldatzea, fiskalizazio-neurri bereziak ezartzea, kautelak hartzea, ondare babestua azkentzea edo antzeko beste edozein neurri ere.

Fiskaltzak ofizioz nahiz edozein pertsonak eskaturik jardungo du, eta ondare babestuari dagozkion jarduketa judizial guztietan entzungo diote.

2. Ondarearen onuraduna ez baldin bada desgaitasuna duen pertsona bera, ondare babestuaren administratzaileak bere kudeaketaren kontuak eman beharko dizkio Fiskaltzari azken horrek hala adierazten duenean eta, betiere, urtean behin gutxienez. Horretarako, bere kudeaketaren azalpena eta ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen inbentarioa igorriko dizkio, hori guztia agiri bidez justifikatuta.

Fiskaltzak dokumentu gehiago eta beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eskatu ahalko ditu.

3. Artikulu honetan ezarritako eginkizunetan Fiskaltzari babesa, laguntza eta aholkua emateko kanpoko organo gisa, Desgaitasuna duten Pertsonen Ondarea Babesteko Batzordea sortuko da, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen ministerioari atxikita, eta bertan parte hartuko dute betiere Fiskaltzak eta Estatuaren eremuan desgaitasun mota guztien ordezkariarik zabalena duen onura publikoko elkartearen ordezkariak.

Batzordearen osaera, jardunbidea eta eginkizunak erregelamendu bidez ezarriko dira».

Seigarren artikulua. *Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzea.*

Erregistro Zibilaren uztailaren 21eko 20/2011 Legea aldatzen da; honela:

Bat. Aldatu egiten da 4. artikulua 10.–14. bitarteko zenbakietako testua, eta behean adierazten den bezala geratzen da idatzita. Horrez gain, egungo 14. kasua 15. zenbakiarekin identifikatuko da, eta egungo 15. kasua 16. zenbakiarekin:

«10.a Prebentziozko ahalorde eta mandatuak, kuradorea izendatzeko proposamena eta norbaitek bere buruarentzat edo bere ondasunentzat aurreikusitako laguntza-neurriak.

11.a Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialak ezartzeko prozeduretan ematen diren ebazpen judizialak.

12.a Desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuaren eraketari eta araubideari dagozkien egintzak.

13.a Adingabeen tutoretza eta adingabe emantzipatuen defentsa judiziala.

14.a Pertsona fisikoen konkurtsoaren deklarazioa eta haien ahalmenen gaineko esku-sartzea edo etetea».

Bi. Honela geratzen da idatzita 11. artikulua i) letra:

«i) Adingabeak, adineko pertsonak eta beste pertsona batzuk babestea xede duten zenbait egitate eta egintza inskriba daitezzen sustatzeko eskubidea, erregistroko inskripzioak bereziki bermatzen baititu pertsona horien eskubideak».

Hiru. Beste era batera geratzen da idatzita 44.7 artikulua lehenengo paragrafoa; honela:

«7. Jaiotzaren inskripzioa egin ostean edozein unetan aitortu ahal izango da ezkontzaz kanpoko filiazioa, aplikatzekoa den legeria zibilean ezarritako moduen bitartez. Aitak Erregistro Zibilaren arduradunaren aurrean adierazten bada, amaren eta aitortutako pertsonaren legezko ordezkariaren berariazko baimena eskatuko da, hura adingabea bada, edo harena, adinez nagusia bada. Desgaitasuna izan eta laguntza-neurriak ezarri zaizkien pertsonak direnean, neurriak ezarri dituen ebazpen judizialean edo neurriak aurreikusi edo erabakitzeke egin den notario-agirian jasotakoaren arabera jokatu da. Inskripzioa egin ahal izateko, lege zibilean eskatzen diren aitortzearen baliotasunerako edo eraginkortasunerako baldintzak bete beharko dira gainera».

Lau. Aldatu egiten da 71. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Guraso-ahalaren azkentzea, gabetzea, etetea eta berreskuratzea ere inskribatuko dira».

Bost. Aldatu egiten dira 72. artikulua izenburua eta 1. apartatua:

«72. artikulua. *Laguntzak ezartzeko ebazpen judiziala eta pertsona fisikoaren konkurtsoaren deklarazioa.*

1. Laguntzak ezartzeko prozesu batean emandako ebazpen judiziala eta hura aldatzen edo ondorerik gabe uzten duena desgaitasuna duen pertsonaren erregistro indibidualean inskribatuko dira. Inskripzioak laguntza-neurri judizialen hedadura eta mugak adieraziko ditu.

Halaber, desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri buruzko beste edozein ebazpen judizial inskribatuko da».

Sei. Honela geratzen da idatzita 73. artikulua:

«73. artikulua. *Ebazpenak hirugarrenen aurka baliatzea.*

Aurreko artikuluan aipatzen diren ebazpenak hirugarrenen aurka baliatu ahal izateko, behar diren inskripzioak eginda eduki beharko dira».

Zazpi. Aldatu egiten da 75. artikulua testua, eta honela geratzen da idatzita:

«Desanparo-egoeran den adingabearen banakako erregistroan inskribatuko da hura tutoretzapean daukala kasuan kasuko lurraldean aplikatzekoa den legeriaren arabera adingabeen babesaz arduratzen den erakunde publikoak».

Zortzi. Aldatu egiten da 77. artikulua, honela:

«77. artikulua. *Borondatezko laguntza-neurriak inskribatzea.*

Norbaitek bere buruarentzat edo bere ondasunetarako aurreikusitako laguntza-neurriak biltzen dituen dokumentu publikoa interesdunaren banakako erregistroan inskribatzeko modukoa da».

Bederatzi. 83. artikulua 1. apartatuari b) letra eransten zaio, eta oraingo b) eta e) bitarteko letrak c) eta f) bitartekoak izango dira hemendik aurrera. Hona b) letra berriaren testua:

«b) Desgaitasuna eta laguntza-neurriak».

Hamar. Honela geratzen da idatzita 84. artikulua lehenengo paragrafoa:

«Erregelamenduz ezartzen den moduan bereziki babestutako datuak dituzten idazpenen publikotasuna hirugarren pertsonari onartu edo baimendu ahalko diete hauek soilik: inskribatutakoak edo haren legezko ordezkariak, laguntza ematen jardun eta berariaz baimenduta dagoen pertsonak, prebentziozko ahalorde orokorra duen pertsonak edo kuradoreak desgaitasuna duten pertsonen kasuan. Administrazio publikoek eta funtzionario publikoek 83. artikulua 1.b) apartatuko datu bereziki babestutakoak eskuratu ahalko dituzte baldin eta, beren eginkizunetan ari direla, egiaztatu behar badute laguntza-neurriak baden edo laguntza-neurriak zer eduki duten».

Zazpigarren artikulua. *Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legea aldatzea.*

Borondatezko Jurisdikzioaren uztailaren 2ko 15/2015 Legea aldatzen da, honela:

Bat. Erantsi egiten da 7 bis artikulua; hona testua:

«7 bis artikulua. *Desgaitasuna duten pertsonentzako doikuntzak.*

1. Desgaitasuna duten pertsonak lege honetan aipatzen diren prozesuetan parte hartzen dutenean, behar diren egokitzapenak eta doikuntzak egingo dira haiek berdintasun-egoeran parte hartuko dutela bermatzeko.

Egokitzapen eta doikuntza horiek egingo dira alderdietako batek edo Fiskaltzako eskaturik nahiz epaitegiak berak ofizioz erabakirik, prozesuko edozein fase edo jarduketatan, baita komunikazio-egintzetan ere, behar izanez gero. Komunikatzeko, ulertzeko edota ingurunearekiko interakziorako egokitzapenak izan daitezke.

2. Desgaitasuna duten pertsonak ulertzeko eta ulertuak izateko eskubidea dute, egin beharreko edozein jarduketatan. Horretarako:

a) Desgaitasuna duten pertsonakiko komunikazio guztiak, izan ahozkoak edo idatzizkoak, hizkuntza argi, erraz eta ulergarri egingo dira, betiere haien ezaugarri pertsonalak eta beharrezkoak kontuan harturik, behar diren bitartekoak erabiliz, hala nola irakurketa erraza. Desgaitasuna duen pertsonari bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza ematen dion pertsonari ere egingo zaio komunikazioa, hala behar denean.

b) Desgaitasuna duen pertsonari behar adinako laguntza edo babesak emango zaizkio bere burua ulertarazteko; legez onartutako zeinu-hizkuntzetako interpretazioa eta pertsona gorrei, gor-itsuei eta entzuteko desgaitasuna dutenei ahozko komunikazioan laguntzeko bitartekoak sartuko dira horren barruan.

c) Onartuko da profesional aditu batek parte har dezala, behar diren egokitze-eta doitze-lanak eginez, erraztaile gisa, desgaitasuna duen pertsonak ulertu ahal izateko eta bere burua ulertarazi ahal izateko.

d) Desgaitasuna duen pertsona bere aukerako pertsona batek lagunduta egon ahalko da agintari eta funtzionarioekiko lehen harremanetik bertatik».

Bi. Aldatu egiten da 27. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Kapitulu honetako xedapenak aplikatuko dira legearen arabera adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen defendatzaile judiziala izendatzea bidezkoa den kasuetan.

2. Defendatzaile judiziala gaitzea eta gerora izendatzea bidezkoa den kasuetan ere kapitulu honetako xedapenak aplikatuko dira. Gaitzeko eskatuko da emantzipatu gabeko adingabea edo desgaitasuna duen pertsona, demandatua izanik, edo, demanda sustatu ezean kalte handia harturik, hurrengo kasuetatik batean dagoenean:

a) Gurasoak, tutorea edo laguntza emateko izendatutako pertsona absente egotea, haien egonlekuaren berririk izan gabe, eta behar besteko ziorik ez egotea horiek laster itzuliko direla uste izateko.

b) Bi gurasoek, tutoreak edo laguntza emateko izendatutako pertsonak adingabea edo desgaitasuna duen pertsona ordezkatzeari edo judizioan laguntzeari uko egitea.

c) Gurasoak, tutorea edo laguntza emateko izendatutako pertsona judizioan ordezkari izateko edo laguntzeko egitezko ezintasun-egoeran egotea.

3. Aurreko apartatuan xedatuta dagoena gorabehera, adingabearentzat edo desgaitasuna duen pertsonarentzat defendatzaile judiziala izendatuko da, aurretiazko gaikuntzarik behar izan gabe, hark bere gurasoen, tutorearen edo kuradorearen aurka auzitan jarduteko, edo borondatezko jurisdikzioko espedienteak eskatzeko, horretarako legitimatuta dagoenean, baldin eta Fiskaltzak desgaitasuna duen pertsonari laguntza-neurriak ezartzeko prozedura egin dadila eskatzen badu. Eskaera ez da egingo baldin eta beste gurasoaren edo, halakorik badago, tutorearen interesa adingabeak edo desgaitasuna duen pertsonak duenaren aurkakoa ez bada».

Hiru. III bis kapitulua eransten zaio II. tituluari; hona izenburua eta edukia:

«III bis KAPITULUA

Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza-neurri judizialak ezartzeko espedienteak

42 bis a) artikulua. *Aplikazio-eremua, eskumena, legitimazioa eta postulazioa.*

1. Desgaitasuna duen pertsona bati laguntza-neurri judizial egonkorren bat ezarri behar zaionean, kapitulu honetan azaltzen diren izapideak egingo dira.

2. Espedientearen ardura hartzeko eskuduna izango da desgaitasuna duen pertsona bizi den tokiari dagokion lehen auzialdiko epaitegia.

Espedientearen xede den pertsona ohiko bizilekuz aldatzen bada agerraldia egin baino lehen, jarduketak dauden horretan igorriko dira egoki den epaitegira.

3. Hauek sustatu ahalko dute espediente hori: Fiskaltzak, desgaitasuna duen pertsonak berak, haren ezkontideak –ez badaude izatez edo legez bananduta– edo izatezko egoera parekoa duenak, eta haren ondorengoek, aurrekoek edo neba-arrebek.

Epaileak laguntza-neurriak ezartzeko moduko egoera sor dezaketen egitateen berri edozein pertsonak eman diezaioke Fiskaltzari. Agintariak edo funtzionario publikoek, beren kargua dela-eta, horrelako egitateen berri izaten badute edozein pertsonari dagokionez, Fiskaltza jakitun jarri beharko dute. Bi kasuetan, Fiskaltzak espedienteak abiaraziko du.

4. Desgaitasuna duen pertsonak bere defentsa eta ordezkartzarekin jardun ahalko du. Aurreikusten bada desgaitasuna duen pertsonak ez duela izendapen hori bere kabuz egingo, eskabidearekin batera eskatuko da defendatzaile judiziala izenda dakiola, eta abokatuaren eta prokuradoreren bidez jardungo du azken horrek.

5. Justizia Administrazioaren letraduak behar diren egokitzapenak eta doikuntzak egingo ditu desgaitasuna duen pertsonak ondo uler ditzan eragiten dion espedientearen xedea, helburua eta izapideak, lege honen 7 bis artikuluan ezarritakoari jarraituz.

42 bis b) artikulua. *Prozedura.*

1. Eskabidearekin batera, laguntza-neurriak ezarri beharra egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dira, bai eta gizarte- eta osasun-arloetako profesional espezializatuek egindako aditu-irizpen bat ere, zeinaren bidez kasu bakoitzean egokiak diren laguntza-neurriak gomendatuko baitira. Horrez gain, agerraldian egin beharreko frogak proposatuko dira.

2. Justizia Administrazioaren letraduak, eskabidea izapidetzeko onartu eta gero, agerraldira deituko ditu Fiskaltza, desgaitasuna duen pertsona eta, kasua bada, haren ezkontidea –ez badaude izatez edo legez bananduta– edo izatezko egoera parekoa duena eta haren ondorengoak, aurrekoak edo neba-arrebak. Interesdunek beharrezkotzat jotzen badute agerraldian froga-eginbideren bat egitea, zitazioa jaso eta bost eguneko epean proposatu ahalko dute. Inskribatu diren laguntza-neurriei buruzko ziurtagiria ere eskatuko da Erregistro Zibilean eta egokitatzat jotzen diren gainerako erregistro publikoetan.

Agintaritza judizialak txostena eskatu ahalko dio, agerraldiaren aurretik, kasuan kasuko lurraldean autonomia sustatzeko eta desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko eginkizuna duen erakunde publikoari, edo gizarte-ekintzaren hirugarren sektoreko erakunde bati, behar bezala gaituta badago Justizia Administrazioaren laguntzaile gisa. Erakunde horrek informazioa emango du laguntza-alternatibei buruz eta agintaritza judizialak inolako neurririk ezarri behar izan gabe laguntza emateko dauden aukerei buruz.

Agerraldiaren aurretik, era berean, aditu-irizpena eskatu ahalko du agintaritza judizialak, kasuaren inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoa baderitzo.

3. Agerraldian agintaritza judizialaren eta desgaitasuna duen pertsonaren arteko elkarriketa egingo da. Azken horren egoera ikusirik, agintaritza judizialak azalduko dio zer aukera dituen behar duen laguntza jasotzeko, dela bere ingurune sozial edo komunitarioaren bitartez, dela borondatezko laguntza-neurriak ezarrita.

Era berean, proposatu eta onartu diren frogak gauzatuko dira, eta, betiere, agertutako pertsonen entzungo zaie, entzunak izateko borondatea adierazten badute.

4. Baldin eta, agintaritza judizialak informazioa eman ondoren, desgaitasuna duen pertsonak laguntza-neurri alternatibo bat hautatzen badu, espedienteari amaiera emango zaio.

5. Desgaitasuna duen pertsonak edozein laguntza mota jasotzearen aurka egiten badu, Fiskaltzak aurka egiten badu, edo eskatutako laguntza-neurrien ezarpenean interesa dutenetatik edonork aurka egiten badu, espediente amaitu egingo da. Nolanahi ere, agintaritza judizialak komenigarritzat jotzen dituen laguntza-neurriak ezarri ahalko dizkio desgaitasuna duen pertsonari edo haren ondareari behin-behinean. Neurri horiek hogeita hamar egun iraun ahalko dute gehienez, betiere aurretik ez bada laguntza-neurriak ezartzeko demanda aurkeztu auzibidezko judizioan.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren ondoretarako, ez da aurka egitetzat joko pertsona jakin bat kuradore izendatzearen aurka egitea.

42 bis c) artikulua. *Autoa, eta epaileak erabakitako neurriak gerora berrikustea.*

1. Espedienteari amaiera ematen dion autoan erabakitzen diren neurriek bat etorri beharko dute gai honi buruz aplikatzekoa den legeria zibilean xedatutakoarekin. Neurriak aldi behin berrikusiko dira, haiek erabaki dituen autoan ezarritako epean eta moduan. Horretarako, artikulua honetan jasotako izapideak beteko dira.

Neurriak autoan ezarritako epea igaro baino lehen berrikusteko eskatu ahalko dute 42 bis a) artikulua 3. apartatua aipatutako pertsonak, bai eta laguntza ematen diharduen pertsonak ere.

2. Neurriak erabaki dituen epaitegiak izango du eskumena berrikuspen horren ardura hartzeko, desgaitasuna duen pertsonak barruti berean bizitzen jarraitzen badu. Hala izan ezean, bizileku berriko epaitegiak espedientearen lekukotza osoa eskatu beharko dio hasieran horren ardura hartu zuen epaitegiari. Epaitegi horrek lekukotza bidaliko du eskaera jaso eta hurrengo hamar egunen barruan.

3. Neurriak berrikustean, agintaritzak judizialak aditu-irizpena eskatuko du, beharrezkotzat jotzen badu kasuaren inguruabarrak kontuan izanik; desgaitasuna duen pertsonarekin hitz egingo du; eta beharrezkotzat jotzen dituen gainerako jarduketak egiteko aginduko du. Ondore horietarako, agintaritzak judizialak txostena eskatu ahalko die 42 bis b) artikulua 2. apartatua aipatutako erakundeak. Jarduketa horien emaitza helaraziko zaie desgaitasuna duen pertsonari, laguntza-eginkizunetan diharduen pertsonari, Fiskaltzari eta aurretiko espedientearen pertsonatutako interesdunei, egoki deritzotena alega dezaten hamar eguneko epean, bai eta egoki deritzeten frogak ekarri ere. Haietakoren batek aurka egiten badu, espedienteari amaiera emango zaio eta neurriak berrikusteko eskatu ahalko da Prozedura Zibilaren Legean ezarritakoari jarraituz.

4. Alegazioak jaso eta frogak gauzatu ondoren, agintaritzak judizialak beste auto bat emango du, inguruabarren arabera bidezkoa den edukiarekin».

Lau. Aldatu egiten da 43. artikulua testua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Espedientearen ardura hartzeko eskuduna izango da adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik egon ezean, bizilekuari dagozkion lehen auzialdiko epaitegia.

2. Tutoretzari, kuradoretzari edo egitezko zaintzari buruzko espediente baten ardura hartu duen organo judiziala eskuduna izango da gorabeheren eta izapideen eta geroago hartutako neurrien edo gero berrikuspenen gaineko ardura izateko, baldin eta adingabeak edo desgaitasuna duen pertsonak bizilekua barruti berean badu. Hala izan ezean, gorabehera horietako baten gaineko ardura izateko, espedientearen lekukotza osoa eskatu beharko zaio hasieran horren ardura hartu zuen epaitegiari. Epaitegi horrek lekukotza bidaliko du eskaera jaso eta hurrengo hamar egunen barruan.

3. Espedienteetan, ez da nahitaezkoa izango abokatuaren eta prokuradorearen esku-hartzea, salbu eta tutorea edo kuradorea kargutik enkaitzeari buruzko eta prebentziozko ahalordeak azkentzeari buruzko espedienteetan; horietan, abokatuaren esku-hartzea beharrezkoa izango da».

Bost. Aldatu egiten da 44. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«44. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Tutoretzari eta kuradoretzari dagozkien espedienteak izapidetzeko, atal honetan xedatuta dagoena aplikatuko da.

2. Hurrengo artikuluan aipatzen den espedientearen kuradoretzari aplikatzekoa izango da baldin eta, desgaitasuna duen pertsona bati laguntza-neurri judizialak ezartzeko prozesua izapidetu eta gero, kargutik enkaitutako edo hildako kuradorearen ordez beste bat izendatzea bidezkoa bada».

Sei. Aldatu egiten dira 45. artikulua 1. apartatua, 2. apartatuko bigarren paragrafoa, 4. apartatuko bigarren paragrafoa, 5. apartatua eta 6. apartatuko bigarren paragrafoa. Honela geratzen dira idatzita:

«1. Espedientea hasteko, eskaera aurkeztu beharko du Fiskaltzak edo tutoretza edo kuradoretza sustatzeko legez adierazitako pertsonetatik edozeinek. Eskaera horretan azaldu beharko da zein egitatek eragin duen tutoretza edo kuradoretza; espedientea sustatzeko legitimazioa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira; eta, tutoretza edo kuradoretza zein pertsonarekin eratu behar den, haren ahaide hurbilenen izenak eta helbideak adierazi behar dira. Era berean, pertsona horren jaiotza-ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta, bidezkoa bada, gurasoen azken nahien egiaztatzea, adingabe diren seme-alaben tutoretza edo kuradoretzari buruzko xedapenak emateko gurasoek egiletsitako testamentua edo notario-agiri publikoa, edo desgaitasuna duen pertsonak berak egiletsitako notario-agiri publikoa, zeinean aurreikusten duen bere kuradoretza edo borondatezko beste laguntza-neurri batzuk».

«2. (...)

Epaileak nahiz Fiskaltzak ofizioz jardungo dute adingabearen intereserako eta desgaitasuna duen pertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak errespetatuz jasorik dagoen orotan, eta horretarako egokitzat jotzen dituzten neurri, eginbide, aditu-txosten eta frogak hartu eta proposatuko dituzte».

«4. (...)

Aplikatu beharreko legeria zibilaren arabera bidezkoa denean, epaileak, tutoretza edo kuradoretza eratzeko ebazpenean edo geroagoko ebazpen batean, egokiak diren zaintza eta kontrol neurriak erabaki ahal izango ditu; halaber, tutoreari edo kuradoreari txostena eskatu ahal izango dio adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren egoera pertsonalari eta haren ondasunen administrazioaren egoerari buruz. Neurriak geroagoko ebazpen batean hartzen badira, aurretik entzun egingo zaie tutoreari edo kuradoreari, adingabeari –heldutasun nahikoa badu eta, nolana dela ere, hamabi urtetik gorakoa bada–, kuradoretza eratu behar zaion pertsonari eta Fiskaltzari».

«5. Epaileak, tutoretza edo kuradoretza eratzeko ebazpenean edo geroagoko ebazpen batean, tutoreari edo kuradoreari fidantza bat eratzeko eska diezaioke salbuespenez, betebeharrak beteko dituela ziurtatzeko; kasu horretan, fidantzaren modalitatea eta zenbatekoa zehaztu beharko ditu.

Halaber, geroago, ofizioz edo alderdi interesdunak eskatuta, eman den fidantza osorik edo zati batean ondoriorik gabe utzi edo aldatu ahal du epaileak. Hori egin baino lehen, entzun egingo die tutoreari edo kuradoreari, desgaitasuna izan eta laguntza-neurriak behar dituen pertsonari, adingabeari –heldutasun nahikoa badu eta, nolana dela ere, hamabi urtetik gorakoa bada– eta Fiskaltzari».

«6. (...)

Errekurtsua gauzatzen ari den bitartean, are gai berari buruz geroago prozesu arrunt bat eskatzen denean ere, tutoreak edo hautatutako kuradoreak zainduko du adingabea edo desgaitasuna duen pertsona, eta haren ondasunak administratuko ditu, bidezkoa denaren arabera, epailearen iritziz nahikoak diren bermeen pean».

Zazpi. Aldatu egiten dira 46. artikulua 2., 3. eta 4. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«2. Fidantza emandakoan, halakorik eskatu bada, epaileak fidantza hori nahikoa dela deklaratu du, eta ebazpen horretan bertan erabakiko du fidantza eraginkorra izateko eta adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren

ondasunak iraunarazteko komenigarritzat jotzen dituen inskripzio, gordailu, neurri edo eginbideak egitea.

3. Erabakitako eginbide guztiak gauzatutakoan, izendatuak Justizia Administrazioaren letraduaren aurrean egiletsitako aktan onartuko du bere kargua legeen arabera betetzeko betebeharra. Justizia Administrazioaren letraduak, berriz, karguaren jabetza ematea erabakiko du, izendapena erabakitzeke ebazpen judizialean ezarritako ahalmenak emango dizkio eta ebazpen horren egiaztagiria emango dio.

4. Izendatua tutorearen edo ondasunen administratzailearen kargurako izendatzen bada, errekerimendua egingo zaio, hurrengo hirurogei eguneko epearen barruan ukituaren ondasunen inbentarioa aurkez dezan. Ondasunen inbentarioa onesten den arte, bidezkoa bada, izendatutako pertsonak zainduko du adingabea edo desgaitasuna duen pertsona, eta haren ondasunak administratuko ditu, bidezkoa denaren arabera, epailearen iritziz nahikoak diren bermeen pean».

Zortzi. Aldatu egiten da 48. artikulua 1. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«1. Tutoretza eratzen duen ebazpena irimo bihurtutakoan edo laguntzak ezartzeko prozeduran epaia emandakoan, tutoreak edo kuradoreak ordainsaria eskatzen badu horretarako duen eskubidea baliatuz, epaileak ordainsaria ematea erabakiko du eta zenbatekoa eta kobratzeko modua ezarriko ditu, kontuan hartuz esleitutako eginkizunen konplexutasuna eta zabaltasuna eta interesdunaren ondasunen balioa eta errentagarritasuna. Erabaki aurretik entzun egingo die eskatzaileari, desgaitasuna duen pertsonari, adingabeari –heldutasun nahikoa badu eta, nolana dela ere, hamabi urtetik gorakoa bada– Fiskaltzari eta egoki deritzen pertsonari. Epaileak nahiz interesdunek edo Fiskaltzak egokitzat jotzen dituzten eginbide, aditu-txosten eta frogak proposatu ahalko dituzte.

Artikulu honetan aipatu den autoa betearaziko da alde batera utzita apelazio-errekurtsoa aurkeztu den ala ez; errekurtso horrek ez du etete-ondorerik izango».

Bederatzi. Aldatu egiten da 49. artikulua 1. apartatuko lehenengo paragrafoa:

«1. Aplikatu beharreko legeria zibilean aurreikusitako kasuetan, ofizioz, edo Fiskaltzak, tutoretzapekoak, kuradoretzapekoak edo beste interesdun batek eskatuta, tutoreari edo kuradoreari kargua enkaitzea erabaki ahalko da, aurretiaz agerraldia eginda. Agerraldi horretan, entzun egingo zaie tutore edo kuradoreari, hura karguan ordeztu dezaketen pertsonari, desgaitasuna duen pertsonari, adingabeari –heldutasun nahikoa badu eta, nolana dela ere, hamabi urtetik gorakoa bada– eta Fiskaltzari».

Hamar. Aldatu egiten dira 51. artikulua 1., 2. eta 3. apartatuak, eta honela geratzen dira idatzita:

«1. Aplikatu beharreko legeria zibilarekin edo kasuan kasuko ebazpen judizialarekin bat etorritik, bidezkoa denean, tutoreak edo kuradoreak txostenak aurkeztuko ditu adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren egoera pertsonalaren berri emateko, edo kontuak emateko.

2. Txostenak aurkeztu ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak txosten horiek helaraziko dizkie desgaitasuna duen pertsonari, adingabeari –heldutasun nahikoa badu eta, nolana dela ere, hamabi urtetik gorakoa bada–, espedientean interesdun gisa ageri direnei eta Fiskaltzari. Horietakoren batek hamar eguneko epean hala eskatzen badu, agerraldi baterako zitazioa egingo zaie guztiei, eta egokitzat jotzen diren eginbide eta frogak guztiak proposatu ahalko dira, ofizioz edo alderdietako batek eskatuta.

Bestetik, epaileak ofizioz agindu ahalko du, tutoretzapeko edo lagundutako pertsonaren ondarearen kontura, kontabilitateko edo auditoretzako aditu-froga bat

egiteko, nahiz eta inork ez eskatu agerraldirik, baldin eta txostenean eragiketa konplexuak edo justifikazio teknikoa behar dutenak deskribatzen badira.

3. Agerraldia egin zein ez, epaileak txostenei eta kontu-emateari buruz ebaztiko du auto bidez».

Hamaika. Erantsi egiten da 51 bis artikulua, eta hau dio:

«51 bis artikulua. *Prebentziozko ahalordeak azkentzea.*

1. Laguntzak ezartzeko prozedura eskatzeko legitimatutako edonork eta kuradoreak, halakorik bada, eskatu ahalko dute azkendu daitezela desgaitasuna duen pertsonak egiletsitako prebentziozko ahalordeak, baldin eta ahalordeduna kuradorea kargutik enkaitzeko aurreikusitako kausaren batean suertatzen bada.

2. Eskaera onartuz gero, agerraldi baterako zitazioa egingo zaie eskatzaileari, ahalordedunari, desgaitasuna izan eta laguntza behar duen pertsonari eta Fiskaltzari. Aurkakotasunik sortzen bada, espedientea auzibidez gauzatuko da, eta Justizia Administrazioaren letraduak interesdunei ikustaldi baterako zitazioa egingo die; izapideek aurrera jarraituko dute hitzezko judizioan aurreikusitakoaren arabera».

Hamabi. Aldatu egiten dira 52. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta 3. apartatua eransten zaio. Honela geratzen da idatzita artikulua hori:

«1. Fiskaltzak, laguntza-neurriak behar dituen pertsonak edo interes legitimoa duen edonork eskatuta, egitezko zaintzaile bat dagoela jakiten duen agintaritzak judizialak errekerimendua egin ahalko dio informazioa eman dezan adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren egoerari eta ondasunei buruz, baita horien inguruan egindako jardunei buruz ere.

2. Epaileak egokitzen jotzen dituen kontrol- eta zaintza-neurriak ezarri ahalko ditu; dena dela, adingabeen kasuan tutoretza eratzeko espedientea sustatu ahalko du, bidezkoa bada. Neurri horiek agerraldia egin ostean hartuko dira. Agerraldi horretarako zitazioa egingo zaie egitezko zaintzak ukitzen duen pertsonari, zaintzaileari eta Fiskaltzari.

3. Baldin eta, aplikatu beharreko legeria zibilaren arabera, desgaitasuna duen pertsona baten egitezko zaintzaileak baimen judiziala eskatu behar badu erabakiren bat hartu aurretik, agintaritzak judizialak, bere kabuz, desgaitasuna duen pertsonarekin hitz egingo du, eta aditu-txosten bat eskatu ahalko du haren egoera egiaztatzeko. Halaber, agerraldirako zitazioa egin ahalko die entzun beharrekotzat jotzen dituen pertsona guztiei, zer egintzatarako baimena eskatu den kontuan hartuta».

Hamahiru. Aldatu egiten da 61. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«61. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

Kapitulu honetako xedapenak aplikatuko dira adingabearen legezko ordezkariak edo desgaitasuna duen pertsona bati laguntza ematen dion pertsonak edo ondare babestu baten administratzaileak baimen edo onespen judiziala behar duenean ondasun eta eskubideen edo ondare babestuaren xedatze- edo kargatze-egintzak edo bestelakoak baliozkoak izateko, salbu eta izapide espezifikoak ezarrita badaude».

Hamalau. Aldatu egiten da 62. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«62. artikulua. *Eskumena, legitimazioa eta postulazioa.*

1. Espedientearen ardura hartzeko eskuduna izango da adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia.

Espedientearen xede den pertsona ohiko bizilekuz aldatzen bada agerraldia egin baino lehen, jarduketak dauden horretan igorriko dira egoki den epaitegira.

2. Espedientea sustatu ahalko dute adingabearen legezko ordezkariak edo desgaitasuna duen pertsonari laguntza ematen diotenen kasuan kasuko egintza juridikoa egiteko, bai eta desgaitasuna duen pertsonak berak ere, ezarritako laguntza-neurriekin bat etorritik.

Baldin eta ondasun edo eskubide jakin batzuk administratu behar badira –haien gaineko ahalmen zehatzak izanik– eta administratzeko gaitasun hori eskualdatzaileak doan eman badu legezko ordezkari ez den baten alde, edo pertsonaren tutoretza edo kuradoretza eta ondasunena bereiz gaizatu behar badira, eskualdatzaileak izendatutako administratzaileak edo ondasunen tutoreak baimena eskatu beharko du, beharrezkoa bada.

Ondare babestuaren ondasunei buruzko egintza bada, administratzaileak izango du legitimazioa.

3. Espedientearen xede den egintzaren zenbatekoa 6.000 eurora artekoa bada, ez da nahitaezkoa izango abokatuaren edo prokuradorearen esku-hartzea. Zenbateko hori gainditzen denean, hasierako eskaera bi profesional horiek esku hartu gabe egin ahalko da, baina epaileak agindu ahalko du interesdun guztiek abokatuaren bidez jardun dezatela, eragiketaren konplexutasunagatik beharrezkoa denean edo elkarren kontrako interesak dituzten subjektuak agertzen direnean».

Hamabost. Aldatu egiten da 64. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«64. artikulua. *Izapideak.*

1. Justizia Administrazioaren letraduak eskaera izapiderako onartu ondoren, agerraldia egiteko zitazioa egingo die Fiskaltzari nahiz legeek kasu batzuen eta besteen arabera eskatzen dituzten pertsonari, eta, kasu guztietan, desgaitasuna duen pertsonari, baita adingabeari ere, heldutasun nahikoa badu eta, nolana dela ere, hamabi urtetik gorakoa bada.

2. Adituaren irizpena bidezkoa denean, hura ofizioz edo alderdietako batek eskatuta erabakiko da, eta agerraldia egin baino lehen emango da. Agerraldi horretarako zitazioa egin beharko zaie irizpena eman duen adituari edo eman duten adituei, hala erabakitzen bada, esku-hartzaileek zein epaileak egiten dizkieten galderei erantzuteko».

Hamasei. Ezabatu egiten da 65. artikulua 2. apartatua, eta 4. apartatua aldatzen da; honela:

«4. Adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren jabetzako ondasunen edo eskubideen gainean kargatze-egintzaren bat edo haiei dagozkien eskubide errealak azkentzea baimentzen bada, salmentarako ezarritako formalitate berberei jarraitzea aginduko da, enkantea bazter utzita».

Hamazazpi. III. tituluko II. kapituluaren 3. atala beste era batera geratzen da idatzita; honela:

«3. atala. *Adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen zaintza-ahala egikaritzean edo haien ondasunak administratzean modu desegokian jokatzeari buruzko babes-neurriak*

87. artikulua. *Aplikazio-eremua, eskumena eta legitimazioa.*

1. Atal honetako xedapenak aplikatuko dira adingabeen edo desgaitasuna duten pertsonen gaineko zaintza-ahala egikaritzean edo haien ondasunak administratzean modu desegokian jokatzeari buruzko neurriak hartzeko, Kode

Zibilaren 158., 164., 165., 167., 200. eta 249. artikuluetan edo aplikatu beharreko legeria zibileko antzeko xedapenetan azaltzen diren kasuetan. Hona, zehazki:

a) Kode Zibilaren 158. artikuluan adingabeen babeserako ezarritako neurriak hartzeko.

b) Kode Zibilaren 249. artikuluko azken paragrafoan desgaitasuna duten pertsonen buruz aurreikusitako neurriak hartzeko.

c) Semeak edo alabak oinordetza bidez eskuraturiko ondasunak administratuko dituen administratzaile judiziala izendatzeko, aita, ama edo bi-biok oinordetza horretan zuzen jaraungabetuak izan badira edo ezduintasun-arrazoia dela-bide ezin badira jaraunse izan, eta kausatzaileak horretarako pertsona bat izendatu ez badu eta beste gurasoak ere eginkizun hori bete ezin badu.

d) Semeak edo alabak doan eskuratutako ondasunen fruituetatik ekitatez dagokien zatia eskuarterik ez duten gurasoei esleitzeko, xedatzaileak beren-beregi agindu duenean ondasun horiek haientzat izan ez daitezela, bai eta oinordetza bidez eskuraturiko ondasunen fruituetatik dagokiena ere, baldin eta aita, ama edo bi-biok oinordetza horretan zuzen jaraungabetuak izan badira edo ezduintasun-arrazoia dela-bide ezin badira jaraunse izan, eta seme-alabei euren hezkuntza nahiz karrerarako bereziki dohaintzan eman edo utzitako ondasunen fruituetatik dagokien zatia.

e) Behar diren neurriak har daitezzen seme-alaben ondasunak ziurtatu eta babesteko, gurasoek ondasunok administratzen jarraitzeko kauzioa edo fidantza eskatzeko, edo gurasoen administrazioak seme-alaben ondarea arriskuan jartzen duenean administratzailea izendatzeko ere.

2. Adingabearen edo desgaitasuna duen pertsonaren egoitzari edo, halakorik ezean, bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaitegia izango da eskuduna. Hala ere, kasu hauetan, hasierako espedienteaz arduratu den lehen auzialdiko epaitegiak izango du espedienteaz arduratzeko eskumena:

a) Ebazpen judizialaren bidez ezarri bada gurasoek guraso-ahala batera gauzatu behar dutela edo seme-alaben zaintza eta jagoletza esleitu behar dela, eta seme-alabak tutoretzapean badaude.

b) Desgaitasuna duen pertsonarentzako laguntza-neurria judizialki ezarri bada.

3. Kapitulu honetan azaltzen diren neurriak ofizioz edo adingabeak edo desgaitasuna duen pertsonak berak, edozein ahaidek edo Fiskaltzak hala eskatuta hartuko dira. Neurriak desgaitasuna duen pertsona bati buruz eskatzen badira, halaber, edozein interesdunek hala eskatuta hartu ahalko dira.

88. *artikulua. Ebazpena.*

Epaileak neurriak hartzea bidezkoa dela uste badu, egokia dena ebatziko du, eta, horrenbestez, adingabea zaintzeaz edo desgaitasuna duen pertsonari laguntzeaz arduratu behar duen pertsona edo erakundea izendatuko du, kasuan bidezkoak diren neurriak hartuko ditu aplikatu beharreko legeria zibilean ezarrita dagoenaren arabera, eta, bidezkoa bada, defendatzaile judiziala izendatu ahalko du.

89. *artikulua. Tutoretza- eta kuradoretza-kasuetan jardutea.*

Adingabearen tutoretza-kasuetan edo desgaitasuna duen pertsonaren kuradoretza-kasuetan, espedienteaz arduratu den epaileak, tutorearen edo kuradorearen izendapenez beste epaile bat arduratu bada, behin betiko ebazpenaren lekukotza bidaliko dio epaile horri».

Hemezortzi. Aldatu egiten da 93.2 artikulua b) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«b) Tutoreek, kuradore ordezkatzailak eta, bidezkoa bada, defendatzaile judizialek, edozein jaraunspen edo legatu onartzeko inbentario-onurarik gabe, edo jaraunspen edo legatu horiek arbuizatzeko».

Hemeretzi. Aldatu egiten da 94. artikulua 2. apartatua, eta honela geratzen da idatzita:

«2. Espediente hori sustatu ahalko dute jaraunspenerako deia jaso dutenek eta jaraunspena arbuizatu duen jaraunspenaren hartzekodunek.

Deia jaso dutenak adingabeak badira, haien ordezkariak sustatu ahalko dute espedientea, eta, ordezkariak ezean, Fiskaltzak.

Deia jaso dutenak desgaitasuna duten pertsonak badira eta ordezkarietako laguntza-neurriak ezarri bazaizkie horrelako egintzetarako, laguntza hori ematen dutenek sustatu ahalko dute espedientea.

Halaber, defendatzaile judizialak sustatu ahalko du, izendapenean baimena eman ez bazaio».

Hogei. Terminoak ordezteak.

1. Zioen azalpenaren X. apartatuko 10. paragrafoan, II. tituluaren VII. kapituluaren izenburuan eta 4., 18.2.4, 19., 23., 26., 40.2, 59., 60., 65.1 eta 85. artikuluetan, «gaitasuna judizialki aldatuta duen pertsona» esapidearen ordez hau jartzen da: «desgaitasuna izan eta bere gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak dituen pertsona».

2. 28., 29. eta 30. artikuluetan, «gaitasuna judizialki aldatuta duen edo aldatuko zaion pertsona» esapidearen ordez «desgaitasuna duen pertsona» jartzen da.

3. II. tituluko VIII. kapituluaren izenburuan eta 2.3, 5. eta 90.5 artikuluetan, «gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonak» esapidearen ordez hau jartzen da: «desgaitasuna izan eta beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak dituzten pertsonak».

4. 139.2 artikuluan, «gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonen euren ondasunak askatasunez administratzeko» esapidearen ordez hau jartzen da: «desgaitasuna izan eta beren gaitasun juridikoa egikaritzeko laguntza-neurriak dituzten pertsonen».

Zortzigarren artikulua. *Merkataritza Kodea aldatzea.*

Merkataritza Kodea aldatzen da, honela:

Bat. Honela geratzen da idatzita 4. artikulua:

«4. artikulua.

Merkataritzan ohikotasunez aritzeko gaitasuna izango dute adin nagusikoek, baldin eta beren ondasunak xedatzeko askatasuna badute».

Bi. Honela geratzen da idatzita 5. artikulua:

«5. artikulua.

Hemezortzi urtetik beherakoek, zaintzaileen bidez, beren guraso edo kausatzaileek gauzatutako merkataritza-jarduerari ekin ahal diote. Zaintzaileek ez badute merkataritzan aritzeko gaitasunik edota bateraezintasun-arrazoiren bat badute, lege-baldintzak betetzen dituen faktore bat edo gehiago izendatu beharko dituzte, merkataritzan beren ordez jardun dezaten».

Hiru. Honela geratzen da idatzita 234. artikulua:

«234. artikulua.

Adingabekoez interesa dutenean merkataritzako sozietatean eta hori likidatu denean, euren aita, ama edo tutoreak jardungo du, kasuan-kasuan, ahalmen guztiekin negozioa berea izango balitz bezala, eta ordezkariok ordezkatu izenean egiletsi edo baimendutako egintzak baliozkoak eta ezeztaezinak izango dira, itzultze-onurarik gabe; hala ere, ordezkariak doloz edo arduragabekeriaz jardunez gero, erantzukizuna izango dute ordezkatuari begira».

Lehenengo xedapen gehigarria. *Justizia Administrazioa eta gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak lankidetzan aritzeko araubidea.*

1. Justizia Ministerioak edo justizia-administrazioaren arloko zerbitzuak eskualdatu zaizkien autonomia-erkidegoek Justizia Administrazioaren laguntzailatzat onartu ahalko dituzte gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Estatuaren edo autonomia-erkidegoaren eremuko erakunde gisa legez eraturia egotea eta, hala dagokionean, behar bezala izena emanda egotea Estatu edo autonomia-erkidegoko administrazio-erregistro egokian, erakunde motaren arabera.

b) Irabazi-asmorik ez izatea edo izandako mozkin guztiak erakundearen helburu ez-komertzialak betetzeko erabiltzea.

c) Interes orokorreko jardueretan aritzea. Ondorio horietarako, interes orokorreko jardueratzat joko da bultzada ematea zaurgarritasun-egoeran edo gizarte-bazterketako arriskuan diren pertsonen eta taldeen eskubide zibilak eta eskubide ekonomikoak, sozialak edo kulturalak aitortu eta egikaritu daitezzen, Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektorearen urriaren 9ko 43/2015 Legeak 2.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

d) Legez edo erregelamenduz ezartzen den beste zeinahi.

2. Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak, Justizia Administrazioaren laguntzaile izanez gero, jarduketa hauek egin ditzakete:

a) Informatzea, laguntzea, adituen jakintza eskaintzea, eta, oro har, Justizia Administrazioarekin elkarlanean aritzea haren eskumeneko gaietan, erregelamenduz zehazten den moduan.

b) Justiziaz arduratzen den ministerio-departamentuaren edo departamentu autonomikoaren solaskide gisa jardutea, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako baldintzetan, hark kontsultarako eta parte hartzeko dituen organoen bitartez.

c) Justizia Administrazioarekin elkarlanean jardutea era guztietako ekinbide, programa, neurri eta ekintzen diseinuan, garapenean eta aplikazioan, Justiziaren zerbitzu publikoa eta herritarrek hari buruz duten ikusmoldea hobetzeko.

d) Erregelamenduz zehazten den beste zeinahi.

3. Gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak Justizia Administrazioaren laguntzailatzat onartzeko eta onarpen horrek dakartzan eskubideak eta betebeharrak zehazteko prozedura erregelamenduz arautuko da.

Edonola ere, bai gizarte-ekintzako hirugarren sektoreko erakundeak Justizia Administrazioaren laguntzailatzat onartzeko ebazpenak bai horien errebotatzeak *Estatuko Aldizkari Ofizialean* edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira.

Bigarren xedapen gehigarria. *Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko neurri buruzko prestakuntza.*

1. Justizia Ministerioak, Barne Ministerioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek, zeinek bere eskumenen esparruan, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko neurri buruzko prestakuntza orokorra eta berariazkoa bermatuko dute hauen prestakuntza-ikastaroetan: epaile eta magistratuak, fiskalak, Justizia Administrazioaren letraduak, segurtasun-indar eta -kidegoak, auzitegiko medikuak, Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileak eta, hala behar denean, Estatuko Administrazio Orokorrean, autonomia-erkidegoetan edo toki-erakundeetan arlo horretako eginkizunak dituzten funtzionarioak.

2. Abokatuen, prokuradoreen eta lan-harremanetako gradudunen elkargoek desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa egikaritzen laguntzeko neurrien inguruko trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatuko dute elkargoko kideengan. Era berean, Notariotzaren Kontseilu Nagusiak eta Espainiako Jabetza Erregistratzaileen, Merkataritzako Erregistratzaileen eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Elkargoak neurri horien inguruko trebakuntza eta sentsibilizazioa sustatuko dute notario eta erregistratzaileengan hurrenez hurren.

Lehenengo xedapen iragankorra. *Egungo eskubideez gabetzea.*

Lege hau indarrean jartzen denetik, desgaitasuna duten pertsonen eskubide-gabetze hutsak, edo eskubideen erabilerarenak, ondorerik gabe geratuko dira.

Bigarren xedapen iragankorra. *Tutore, kuradore, defendatzaile judicial eta egitezko zaintzaileen egoera. Guraso-ahal luzatu edo birgaituaren egoera. Zarrastelkeria-deklarazioen egoera.*

Lehenengo legeriaren araubidearen pean izendatutako tutore, kuradore –zarrastel deklaratuakoen kuradoreak izan ezik– eta defendatzaile judicialak lege honetako xedapenen arabera arituko dira beren karguan lege hau indarrean jartzen denetik aurrera. Desgaitasuna duten pertsonen tutoreei kuradore ordezkatzailerentzat ezarritako arauak aplikatuko zaizkie; gurasoak hilda edo legeak aurreikusitako laguntza emateko ezinduta dauzkaten emantzipatuen kuradoreei eta adin-nagusitasunaren onura lortu duten adingabeen kuradoreei adingabearen defendatzaile judicialarentzat ezarritako arauak aplikatuko zaizkie.

Egitezko zaintzaile gisa jardun izan dutenek lege honetako xedapenei jarraituz jardungo dute.

Guraso-ahal luzatua edo birgaitua dutenek hura egikaritzen segituko dute harik eta bosgarren xedapen iragankorrean aipatzen den berrikuspena egin arte.

Lehenengo legeriaren arabera egindako zarrastelkeria-deklarazioen ondoriozko neurriek indarrean iraungo dute harik eta bosgarren xedapen iragankorrean aipatzen den berrikuspena egin arte. Ordura arte, zarrastel deklaratuakoen kuradoreek lehenengo legeriaren arabera jarduten jarraituko dute beren karguetan.

Hirugarren xedapen iragankorra. *Autotutoretzari eta prebentziozko ahalorde eta mandatuei buruzko aurreikuspenak.*

Autotutoretzari buruzko aurreikuspenak autokuradoretzari dagozkiola joko da, eta lege honen bidez arautuko dira.

Lege hau indarrean jarri baino lehen egiletsitako prebentziozko ahalorde eta mandatuen lege honen pean geratuko dira. Hala ere, ahalordedunari kuradoretzarako ezarritako arauak aplikatzen bazaizkio 259. artikulua babesean, bazter utziko dira Kode Zibilaren 284.etik 290.era bitarteko artikuluetako arauak.

Egilesleak ahalorde eta mandatuen aldatu edo osatu nahi dituzten, notarioak, bere eginkizunak betez, erabakiak hartzeko bere prozesua gara dezan arduratu beharko du,

beharrezkoa bada; horretarako, ulertzen eta arrazoitzen lagunduko dio eta bere borondatea, nahiak eta lehentasunak adierazteko bidea emango dio.

Laugarren xedapen iragankorra. *Kode Zibilaren 776. artikulua babesean egindako ordezkienak.*

Kode Zibilaren 776. artikulua babesean ordezkio bat izendatu den kasuetan, ordeztutako pertsona lege hau indarrean jarri eta gero hiltzen bada, lege honetan ezarritakoa aplikatuko da eta, horrenbestez, ordezkienak onbidezkoa izateari utziko dio eta ezingo da erabili ordeztutako pertsonaren testamentuaren partez. Hala ere, ordezkia hondarraren fideikomisozko ordezkientzat hartuko da ordezkioak ordeztuari doan eskualdatutako ondasunei dagokienez.

Bosgarren xedapen iragankorra. *Jada erabakitako neurriak berrikustea.*

Gaitasuna judizialki aldatuta duten pertsonak, zarrastel deklaratuak, guraso-ahal luzatua edo birgaitua duten gurasoak, tutoreak, kuradoreak, defendatzaile judizialek eta prebentziozko ahalordedunek agintaritzaren judizialari noiznahi eskatu ahalko diote berriki ditzala lege hau indarrean jarri aurretik ezarritako neurriak, lege honetara egokitzeko. Eskaera hori egin eta urtebeteko epean, gehienez ere, berriki beharko dira neurriak.

Aurreko paragrafoan aipatutako eskaera egiten ez bada, agintaritzaren judizialak ofizioz edo Fiskaltzaren eskaerari erantzunez egingo du berriki, hiru urteko epean, gehienez ere.

Seigarren xedapen iragankorra. *Izapidetzen ari diren prozesuak.*

Lege hau indarrean jartzen denean pertsonen gaitasunari buruz izapidetzen ari diren prozesuak lege honetan xedatutakoaren bidez arautuko dira, batez ere epaiaren edukiari dagokionez. Betiere baliozkotasunari eutsiko diote ordura arte egindako jarduketek.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabetuta geratzen da lege honetan xedatutakoaren aurka doan edo bertan xedatutakoarekin bateraezina den maila bereko edo apalagoko xedapen oro.

2. Bereziki, ordenamendu juridikoko edozein arautan, indargabetuta geratzen da zarrastelkeriaren erregulazio oro.

3. Era berean, berriki indargabetzen dira Kode Zibilaren 299 bis artikulua eta 301. etik 324.era bitartekoak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzea.*

Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen da, eta honela geratzen da idatzita:

Bat. Aldatu egiten da 118. artikulua 1. erregelaren lehenengo paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

«1.) 20. artikulua 1. eta 3. zenbakien kasuetan, zigor-erantzukizunetik salbuetsita daudenak norbaiten ahalpean edota legezko nahiz egitezko zaintzapean badaude, orduan, ahal edo zaintzaren ardura duenak ere erantzukizuna izango du, haiek gauzatutako egitateengatik, baldin eta erruz edo zabarkeriaz jardun badu; horrek ez dio kalterik egingo zigor-erantzukizun egotzi ezin zaien subjektuei ezar dakiekeen zuzeneko erantzukizun zibilari».

Bi. Aldatu egiten da 120. artikulua 1. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«1.) Ordezkaritza osorako ahalmenak dituzten eta lagundutako pertsonarekin bizi diren kuradoreak, baldin eta erruz edo zabarkeriaz jarduten badute».

Hiru. Aldatu egiten da lehenengo xedapen gehigarria, eta honela geratzen da idatzita:

«Pertsona bat zigor-erantzukizunetik salbuetsita dagoela adierazten denean, kode honen 20. artikulua 1 eta 3. zenbakietan ezarritako arrazoietatik bat dela eta, Fiskaltzak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuz, ebaluatuko du ea bidezkoa den prozesu bat eragitea, desgaitasuna duen pertsonari laguntza-neurriak judizialki ezartzeko, edo, dagoeneko horrelako neurriak erabaki badira, horiek berrikusteko».

Azken xedapenetako bigarrena. *Eskumen-tituluak.*

Lege hau eskumen-titulu hauen babesean ematen da:

Lehenengo, hirugarren eta seigarren artikulua erregistro eta bitarteko publikoen antolamenduaren arloan Estatuari dagokion eskumenaren babesean ematen dira; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan ezarrita dago.

Bigarren eta bosgarren artikulua eta lehenengo, bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrak legeria zibilaren arloan Estatuari dagokion eskumenaren babesean ematen dira; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan ezarrita dago.

Laugarren eta zazpigarren artikulua eta bosgarren eta seigarren xedapen iragankorrak legeria prozesalaren arloan Estatuari dagokion eskumenaren babesean ematen dira; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan ezarrita dago.

Xedapen gehigarriak justizia-administrazioaren arloan Estatuari dagokion eskumenaren babesean ematen dira; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.5 artikuluan ezarrita dago.

Azken xedapenetako lehenengoa zigor-legeriaren arloan Estatuari dagokion eskumenaren babesean ematen da; eskumen hori Konstituzioaren 149.1.6 artikuluan ezarrita dago.

Azken xedapenetako hirugarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikularrei zein agintariei.

Madriren, 2021eko ekainaren 2an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN